



Eguberriak 2011

Agenda, aholkuak... → 13/23

ETXALAR → 29

82 dozena uso harrapatu dira, iaz baino 12 gehiago

DONEZTEBE → 34

Mendiaren Eguna larunbat honetan

ARESO → 43

Panpanoziri aldizkaria sortu dute herritarrek

BAZTAN → 50

Adineko eta elbarrituen beharrak biltzen ari dira



Gerra Zibilari buruzko historia irabazleek eta gizonak idatzi dute ia beti. Orain, 75 urte beranduago, garai hura ezagutu zuten emakumeek ere badute hitza

Gerra Zibila emakumeen begietatik kontatua

ARGAZKIA: LUCIA IPARRAGIRRE



TTIPI-TTAPAK zure laguntza behar du

Dagoeneko 640 lagunek egin dute gure alde. **Eskerrik asko!**

Zure laguntza eskertzeko poltsa eder bat izanen duzu opari

LEITZA → 42

Auzitegi Nazionalak artxibatu egin du Leitzako alkatearen eta bi herritarren aurkako auzia

BERTSOLARITZA → 40

Nafarroako 14 bertsolari gazterekin XI. Xalto Sariketa jokatu da larunbat honetan Goizuetan

ZOKKETAK → 3



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

BERA AGENDA URTARRILA

Erabiltzen gureko informazio gehiago:
012 telefonon www.berakoudala.net

5
ortzeguna

ERREGEEN KABALGATA
BERA - 15:30ean Erregeen pajeak herriko kerkotan barna ibiliko dira gutunak biltzen.
18:30ean Errege kabalgata
Italbidea: Itza auzotik Eztegarra pilaletara.

7
lehurbata

SANTA BARBARAKO IGOERA
BERA - Antolatzailea: Mendi eta Agera Mendi-Taldea

21
lehurbata

ERREGEA ETA BUFOIA
(Antzerkia + bertsoa)
Bertsolaria: Sustrai Colina
BERA - Kultur Etxean
22:00etan - Sarrera: 5€
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea

24
ostiratsa

GITARRA ENTZUNALDIA
BERA - Musika Eskolan - 18:30ean
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Musika Eskola

25
asteazkena

TXISTU ENTZUNALDIA
BERA - Musika Eskolan - 18:30ean
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Musika Eskola

29
igandea

MAGIA IKUSKIZUNA: Asier Kidam
BERA - Kultur Etxean - 17:00etan
Antolatzailea: Ricardo Baroja Eskola Publikoko Gurea Elkartea
Laguntzailea: Berako Kultur Batzordea
Argibide gehiago: www.asierkidam.com





WWW.MUEBLESORDOKI.COM

Pasa Zuharka, 27 Erribueta - 48960 Leizorako, BIZKAIA

949 637 780 *telefonoa duzu eta ez du?*
info@mueblesordoki.com *telefonoa ez duzu eta?*



ZERBITZUAK

PROIEKTU PERTSONALIZATUAK
Ezinezko estiloa erabiltzeko
eremu erabiltzeko eremuak
erabiltzeko eremuak
erabiltzeko eremuak

ALTZARIEN MONTAIA

DIAGRAMAK
Gurea, Auzoak, gurea, gurea, gurea, gurea

DEKORATZAILA
Ezinezko estiloa erabiltzeko
eremu erabiltzeko eremuak

PRODUTUAK
EGONGELAK
LOGELAK
GAZTEAK
ARMAIRUAK
ILUMINAZIOA

DESKONTU HONETAZ BAIATZEKO, BONO HAU ERABILI

%10 DESKONTUA



**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**

**Eskatu zurea
948 63 54 58
telefonoan**

TTIPI TXARTELA rekin BETI IRABAZTEN DA!

555. ALEKO IRABAZLEAK

* IBAIZABAL LIBURIAK
Socorro Jimenez | Urduzubi
* AQUARIUM 2 SARRERA
Rosa Belzunegi | Elcano
* PUNPALAPLAN CD + DVD
Mari Juana Ibarra | Urduzubi

* ARKUPETXOKOLATEA
Marta Igarzabal | Lasake
* ONDOO TA PUNTO KAMISETA
M. Teresa Arozarena | Arriatuz
* LANKU LIBURUA + CDA
Antton Dagerre | Ibaia

ZORIONAK!

Irabazleak hurrengo egunean
saskiak jasango dituzte

gabonetako saskia 1



gabonetako TTIPI SASKIAK zorte on!

Ttapi txartela bakoitzarekin gabeziak eraman
saskiak jasango dituzu

gabonetako saskia 2



DESKONTUAK



GIZARTEA → EMAKUMEAK KONTU KONTARI

Gerra Zibila emakumeen begietatik kontatua

Aurten 75 urte bete dira Gerra Zibila hasi zenetik eta garai hura eskualdeko emakumezkoen ikuspuntutik bildu nahi izan da

Atsekabe franko sortu zituen 1936ko Gerra Zibilak. Gerra bukatuta irabazleak eta gizonezkoak izan ziren historia idatzi zutenak, eta emakumezkoak eta galtzaileak bazterrerara gelditu ziren. Baina 75 urte beranduago, gerra hura eta ondorena eza-gutu zuten emakumeek ere badute zer kontatua.

G. PIKABEA

Gerra Zibila eta ondorena, ez ziren beharbada Euskal Herriko bertze zenbait tokitan bezain gogorrak izan eskualdean, baina gerra, beti da gerra, eta gisa batera edo bertzerara herriar guztien-gan du eragina, bando batekoa izan zein bertze-koa, emakume ala gizon, zahar edo gazte. Konta-tzen denez, Gerra Zibilaren hasierako hilabeteak izan ziren gogorrenak gure inguruan. Gipuzkoako mugan frontea eratu zen, eta frontea Gipuzkoa barnerantz joan arte, eskualdeak gerraren ondo-rio larrienak zuzenean ezagutu zituen. Gainera, Iparraldearekin mugan egoteak toki estrategiko bi-hurtu zuen.

Gerrak iraun zituen hiru urteetan gehienak ha-labeharrez Francoren alde borrokatzera bidali zi-tuzten, eliza eta karlistak Francoren alde agertu baitziren. Bertze batzuek, ordea, arrazoi politiko-engatik edo gerrara ez joateagatik Iparraldera ihes egin zuten.

Gerraren ondorioak denek jasan bazituzten ere, bada beti bazterrean edo ahaztuta gelditu izan den begirada bat, eta hori emakumezkoena da. 75 ur-te bete dira aurten gerra hasi zela, eta hori aitzia-kiatzat hartuta egin da *Amantalaren ahotso* ikus-kizuna Gerra Zibila ezagutu zuten Gipuzkoako do-zenaka emakumeren testigantzak bilduz. Bide be-retik, TTAPI-TTAPAK Gerra Zibila eskualdeko adi-neko emakumeen begietatik bildu nahi izan du. Eskualdeko lau emakumezkoekin egon gara, ga-rari haiek nola bizitu zituzten jakin gogoz: Inaxi Iparragirre (Arantza), Rosario Karrikaburu (Arraioz), Maritxu Salaberria (Goizueta) eta Isabel Organbi-de (Urdazubi) dira.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Baserria utzi eta herrian, Ontsenean, bizi da gaur egun Inaxi Iparragirre.

Inaxi IPARRAGIRRE
(Arantza)

«Gerrak negar aunitz eragin zuen. Familiek sufritu egin zuten»

85 urterekin, ongi oroi-tzen da Gerra Zibileko kontuez Ontsenbordaba-serriko Inaxi Iparragirre. Zazpi senideko familia-koa, 9 urte zituen gerra hasi zenean. «Atta zena lineako guarda zen eta goiko herrietan, Alman-dozen eta, ibiltzen zen. Iruñetik banda bat heldu zela erran zioten eta or-duan alkate zenarekin so-lastuta, alkateak segidan konponduko zela erran zion gure attari. Baina bertze herrietara bezala, honat ere etorri ziren». Halaxe azaldu dizkigu Inaxik gerra aitzineko be-re oroitzapenak. Bertze herrietatik bezala, Aran-tzatik ere eraman zuten jendea Francoren alde gerran borrokatzera: «Arantzatik jende aunitz joan zen, behartuta, eta ez euren borondatez». Eta horien artean, bere anaia zaharrena ere eraman zu-ten: «18 urte bete gabe eraman zuten. Lehenbi-ziko Iruñera eraman zu-ten eta handik Gasteize-ra joatea tokatu zitzaion.

Handik etorri zenean 25 urtezituen». Gerraren on-dorioz, hildakoak ere izan ziren Arantzan; Inaxiren arabera, hamar bat he-rritar hil ziren. «Gazteak eraman zituzten, eta ge-ro urrikitu ere egin omen ziren gazteegiak erama-teagatik eta eskarmentu-rik gabeakoak izateaga-tik», dio. Ideia politiko en-gatik, batzuk preso ere hartu zituzten: «sei lagun eraman zituzten preso, baina apezak informe onak eraman zituen eu-rei buruz eta libre utzi zi-

tuzten. 15 bat egun pa-satu zituztela uste dut».

Gerrak «negar aunitz» eragin zuela adierazi di-gu Ontsenbordako ala-bak: «amak haurrekin utzi eta attak gerrara jo-an ziren eta mutil gazte-ak ere eraman zituztenez, familiek sufritu egin zu-ten». Anaia zaharrena ge-rran egon arren, etxean lanak egiteko ez omen zi-ren gaizki moldatu On-tsenbordan: «etxeko la-nak egiteko bertze anaiak hor zeuden», erran digu. Gerra akautu ondotik, bertze anaiak ere «zerbitzatu» omen zuten.

Goserik ere ez omen zuten pasatu etxean, na-hiz eta «orain bezalako aukerarik ez zen izaten», dio Inaxik. Eta gaineratu digu, «gerra aitzinetik ere ez ginela orain bezala on-gi». Ez zen oraingo «ero-sotasunik»: «orain azien-dak belagira botatzen di-ra, baina orduan han ari behar izaten zen lurra-k moldatzen, artoa erein, ilarra... Orain, gaztaina-ri ere ez da kasurik egi-ten». Jateko eskasirik ez, baina arropak eta oi-netakoak falta izaten zi-tuztela kontatu digu.

Oraindik neska koz-korra zen gerra garaian Inaxi, eta gerrak gerra, «li-



HILDAKOAK

«Arantzako hamar lagun hil ziren gerran eta politika-gatik sei hartu zituzten preso»

Inaxi IPARRAGIRRE
Arantza, 85 urte

besioa izanez gero, kontent» izaten zirela ere aitortu digu: «soldadu joateko mutiko kozkorrak edo pelaioak prestatzen aritzen ziren herrian, txistu eta guzti, eta gu haiei begira egoten ginen».

Eskolara ere joaten zen, baina «ez orain bezalako enpeinuarekin». Azaldu digunez, «goizean irakurtzen aritzen ginen maistraren ondoan, eta kuadernotan idazten eta kontuak ateratzen ere bai. Arratsaldeak laboretarako izaten genituen eta niri aunitz gustatzen zitzaidan. Puntuari, gantxiloan... aritzen ginen. Eta astean egun batez, marrazketa egiten genuen». Hori bai, eskolan gaztelaniaz, baina euren artean beti euskaraz: «elkarren artean, beti euskaraz aritzen ginen. Ez genekien deus ere erdaraz, eta batez ere baserritarrak, beti euskaraz aritzen ginen. Gerra ondotik Doneztebera joan nintzen erdaraz solas batzuk ikastera».

JENDEA ISILIK

Herrian jendea isilik egon zela aipatu digu: «beldurragatik, ez zuen deus ere erraten. Gainera, isilik egoten zena hobeiki zegoen». Eta gerra akautu zenean, kontent sentitu zela gogoan du Inaxik: «anaiak onik zeudelako». Horrekin batera, esnea saltzeko letxategiak ere paratu omen ziren herrian, «eta guk, baserritarrok, harat eramaten genuen etxeko esne sobrantea sos batzuk kobratzeko. Sos horiekin txardin zaharrak eta arropak erosten genituen». Halere, gerra ondotik jendea okerrago gelditu zela uste du: «diruak ez zuen balorerik eta gerran ibilitako alemaniarrek eta italiarrek ez zuten dirurik nahi, jatekoa nahi zuten».

Badu gerra ondoko bertze pasadizo berezi bat ere gogoan, alema-

nien hegazkin bat Arantzan erori zenekoa, hain zuzen: «14 urte izan nien nituen eta Antonio anaia eta biek mezara bi-dean ginela, hegazkin batek mendia jo zuela ikusi genuen eta ilargia bezalako bat agertu zen. Nik uste nuen azken juizioa zela!», dio. Mendia dena sutan gelditu omen zen eta barrenean zihoazen zazpi lagunak ere hil egin ziren. «Hegazkinaren pus-kak herrian ere egon ziren. Herritarrei menditik behiekin karroan hartu eta ekartzeko ordaindu egin zieten uste dut».

Rosario KARRIKABURU
(Arraioz)

«Soldaduen guatzeak aldatzera eta arropak garbitzera gaten ginen»

Arraiozko Jauregizaharrean sortua da 89 urteko Rosario Karrikaburu, zortzi senideko familia. 7 urtekin Erratzura joan zen izeba batengana, eta umetako urte haiek Arraioz eta Erratzu artean «gan-torri» pasatu zituen, baita gerra denborare ere. Horregatik dakizki bi herrietako kontuak.

Herri guztietan ezkilak jotzen hasi zirelako ohartu zen Rosario gerra hasi zela: «nire ahizpa ilea-painidegira gana zen eta Elizondotik oinez heldu zen. Ni orduan Lekarozen nengoen ahizpa baten etxean eta etorri zelarik, fraile guztiak leiho-tik begira ikusi zituen. 'Zazi, zazi etxera, gerra hasi da eta ezkilak horregatik dira', erran zioten eta etxera etorri ginen». Atzot gertatu balitz bezala gogoratzen du.

Gerra hasita, Arraiozera itzuli zen: «hemengo jendea Bidasoaldera jatekoa eramaten hasi zen mandoekin, eta bat edo bertze hil egin ziren», adierazi digu. Egun batzuen buruan, Erratzura joan zen izebarengana: «Erra-



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Arraiozen bizi da Rosario Karrikaburu, ahizpa eta ilobekin.

tzun, iganderoko dantzak eta inauteriak bertan behera gelditu ziren». Horrez gain, herri guztia soldaduz bete zela ere oirizten da: «lehenbizian hemengo soldaduak ziren, eta gero, behartuta lan egitera hainbertze preso ekarri zituzten».

Aduana «haundi» bat ere omen zegoen Erratzun, eta kontatu digunez, «etxeetatik maindireak eman genituen soldaduendako. Guatzeak aldatzera eta soldaduen arropak garbitzera ere ga-

ten ginen». 14-15 urte izan nien zituen. Iparraldearekin muga egiten duelako, mugimendu haundia sortu zen garai hartan Erratzun. Rosarioren irudiko, «Baztango bertze herrietan baino gehiago. Militaraunitz zegoen, eta karabineroak ere bai».

BI ANAIA GERRAN

Rosariori bi anaia joan zitzaizkion gerrara, bat Teruelera eta bertzea Bilbora. Horietako batek urte osoa egin omen zuen etxera agertu gabe, eta etorri zenean eskuak hondatuta itzuli omen zen, hotzaren eraginez. Bertzea, ordea, lehenago etorri zen, baina eritu zelako: «Lekaroz eta Oronozko komentuak ospitale bezala paratu zituzten, eta nire anaia, eritua, Lekarozko komentura ekarri zuten. Igandetan bisitatzera gaten ginen». Anai-ek kontatuta dakizki, trintxeretan nola lo egiten zuten: «hotza pasatzen zuten, eta bertze aldekoekin ere solasean aritzen omen ziren. Eskualdunak ziren bi aldetakoak eta ez zuten bat bertzearen kontra deus ere, baina mantzen zieten...».

Dena den, bi anaia horiek gerrara joan gabe gel-

ditzeko aukera izan zuten: «gerra hasi zelarik, bi anaia Frantzian ari ziren lanean. Desertore gelditzen ahal ziren, baina gure aitak etortzea nahi zuen, gerra komunismoaren kontra eta Jaungoikoaren alde zela erran zutelako. Horregatik etorri ziren». Frantziatik itzuli ziren eguna ere gogoan du Rosariok: «ikurrinarekin eta gerriko nazionalistarekin etorri ziren, eta Gartzainen emazteki batek kentzeko erran zien. 'Zertaz? Hau gurea da!', galdetu omen zuten, baina emaztekiak hobe zituztela kendu erantzun, eta kendu egin zituzten.

Arraioz eta Erratzu. Gerra garaian bi herriak ezagutu zituenez, bada atentzioa deitu zion bertze zerbait ere: «Erratzun guardia egiten zutenak fusilekin egoten ziren, eta Arraiozen, etxeko gizonek, aita eta osaba tartean, ehizeko eskopetarekin gan beharizaten zuten. Ez zuen inongo logikarik...». Hortaz aparte, gogoan du denek bandera espainolaren botoi bat eraman behar izaten zutela, «derrigorrez», eta balkoi eta leihoetan ere bandera espainolak paratu behar izan zituztela.



ETXEAN KEZKA

«Goserik ez genuen pasatu baina beldurra bai, bi anaia gerrara ganak nituelako»

Rosario KARRIKABURU
Arraioz, 89 urte

Gerra aitzinetik, «bi-ziorik gabe, baina kontent eta ongi» bizi omen ziren Rosario eta familia. Baina ideia politikoak tar-teko, erran digunez, «ez-tabaida aunitz» izaten ziren». Goserik ere ez zuten pasatu, ez gerra aitzinetik eta ez gerra denboran ere: «Erratzun denda bat zuen izebak, eta trukean aunitz egiten genuen». Goserik ez, baina beldurra bai, eta bereziki bi anaia gerrara joanak zituelako. «Hiriburu bat hartzen zutelarik, kohe-teak eta ezkilak hasten ziren. Anaia gerran zeuden eta ez nekien bizirik ala hilik ziren. Horrelako toki bat hartutakoan, beti ekartzen zuten norbait hilik». Sakrifizioak ere egiten zirela azaldu digu: «anaia gerran zirelako, postrea hartzeari utzi, zinea ikusteko aukera izan eta ez gan...».

Esolan ere aldaketa somatu zuten gerra hasita. Ordura arte, gehiena erdaraz egiten bazuten ere, egun batez eskuara ematen omen zuten, baina gerra hasita, maixu-maistra «arras erdaldunak» ekarri omen zizkieten. Gisa berean, elizako kantuak ere erdaraz egiten hasi omen ziren. Etxean eskuara eginagatik, Erratzuko karriketan erdara aunitz somatzen zela kontatu digu: «erdaldun aunitz zegoen, eta aunitz aritzen ginen erdaraz, sobera», iritzi dio. «Bertakoak eskuaraz ere aritzen ginen, batez ere ni baino zaharragoak. Baina guk esolan erdaraz egiten genuen, eta karabineroen alabak ere lagunak genituen eta haiekin ere erdaraz egiten genuen».

Etxean soldaduak hartu zituztela ere oroitzen da. «Erratzun bi kataluniar izan genituen eta Arraiozen donostiar bat. Honek gure etxean telefonoa paratu zuen, eta guk ere solas egiten genuen».



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Lau seme-alabaren ama da Maritxu Salaberria, Paulenera ezkondu zen eta hor bizi da.

Ezkilen bidez konturatu zen gerra hasi zela, eta akitu zela ere modu berean jakin zuen, ezkilak somatuta. Ordura arte, derrigortuta etxeetan eduki ziren Espainiako banderak «denbora luzez» segitu zutela aipatu digu, eta ikurrina, «arras mantso» etorri zela: «frantsak ekarri zuten Elizondora. Besta bat egin zen eta emozionatuak gelditu ginen hainbertze jende ikurrinarekin ikusita».

Maritxu SALABERRIA
(Goizueta)

«Etorri eta segituan, Espainiako bandera paratu zuten soldaduek udaletxean»

Sortzez Oattolo baserrikoa da Maritxu Salaberria (89 urte), baina ttitikitan herrira bizitzera etorrria guraso eta lau senideekin. 13-14 urte zituen Gerra Zibila hasi zenean, «adineroa», dio irribarrez. Eta beharbada horregatik, ez duela gerrako oroitzapen txarrik aitortu digu: «soldaduak behin ere ikusi gabeak genituen eta saltsa non, gu han». Baina badu bai zer kontatua: «gerra hasi zela zabalitzen ari zen, tropak heldu zirela eta de-

nak hartuko gintuztela. Eta Goizuetara ere, tropak ailegatu ziren». Horrela azaldu digu. «Soldadu asko etorri ziren eta sartu zirenean, segituan Espainiako bandera paratu zuten Herriko Etxeko balkoian, eta denak kalean bueltaka hasi ziren». Tropen etorrerak beldurra eragin omen zuen herrian: «gure ama ere negarrez hasi zen», gogoan du. Izan ere, etxean 17 urteko anaia zuen, eta horrek kezka eragin zien. Guardiazibilak etxeraino

ere joan omen zitzaizkien: «atea jo eta aitari behirik ba ote zuen galaretu zioten. Etxe askotan atea ireki eta sotoa bistan izaten da, behiak bistan, eta gurean ere bai. Aitak baietz erantzun zion. Eta zenbat zituen eta karrua ere ote zuen galaretu eta bi zituela eta karrua ere bazuela esan zion aitak. 7etarako plazara joateko agindu zion, karruarekin eta behiekin, Artikutzara jatekoa eramane behar zutela». Artikutza soldaduz bete zegoen, eta «egun frankotan jatekoa eramane behar izan zuten».

Gau batean, beste bisita bat ere izan zuten etxean, sarjentu eta soldadu batena: «zenbat gela genituen soberan galaretu eta oheak paratze-ko agindu ziguten, egun batzuetarako bizpahiru soldadu etorriko zirela gauak pasatzera. Hiru etorri ziren», adierazi digu. Baina egun batzuk pasatuta joan omen ziren: «libre zeuden garaje eta sotoak harrapatu zituzten eta soldaduen tzako prestatu zituzten».

TIROAK ETA HILDAKOAK

Maritxuren hitzetan, gerraren hasierako egu-

netan soldadu asko ibili zen herrian barna, baina gerora kopurua jeitsi egin zen. Herrian kuartela ere bazen, «lauzpabost guardiazibilekin, eta gutxi zirelako soldadu batzuk ere gelditu ziren, makiak ere ibili baitziren». Gainera, abisua ere eman omen zieten herritarrei: «inor arrotzik etortzen bazen, kuartelean abisua emateko». Eta izan ziren halako kasuak: «Baserri batean, lau lagun sartu ziren ate joka arratsean, jan gabe hiru egun bazituztela eta ea zerbait emanen ote zieten. Hotzak eta goseak zeudela. Su ederra egin omen zuten eta jatekoa ere eskaini omen zieten. Baina etxe-ko semea kuartelera etorri eta lau hantxe zeudelakontatu zuen. Guardiazibilak joan eta eraman egin zituzten, baita hil eta lurperatu ere. Bilbo eta Donostiakoak ziren». Beste kasu batez ere oroitzen da Maritxu: «borda batean, lanean ari zirela, pertsona bat agertu omen zen, kalterik ez zuela egiten eta bordan lo egin nahi zuela esanez. Eta baietz lo egiten ahal zuela. Baina herrira etorri eta guardiazibilei esan zioten. Guardiazibilak bordara joan ziren, eta eskaileretan gora haren bilazioazela hark tiroa botatuta eta ihes egin zuen».

«Gainerakoan, ez zen tirorik izan —dio—, baina saiakerak bai». Honela kontatu digu: «nazionalista batek Batzokia paratu zuen plazan, nahi zuenak apuntatzeko eta gazteria afiliatu egin zen. Aberri Egunean festa haundiak antolatzen zituen, eta Goizuetara ere Hernanitik propio txistulariak eta danborjoleak ekarri zituen, mutilak beren dantzak eta guk guk ikasteko. Gero, 1936ko Aberri Egunean Donostian dantzatu genuen. Hiru autobus joan ginen Goizuetatik, bi mu-



SALAKETAK

«Inor arrotzik etortzen bazen, abisatzeko esan zuten guardiazibilek eta izan ziren kasuak»

Maritxu SALABERRIA
Goizueta, 89 urte

tilenak eta bat neskena». Batzokiko buru egiten zuen hori, eta batzokia zegoen eraikineko nagusia lagunak omen ziren, eta horiek biek ere hartu omen zituzten hiltzeko asmotan. «Baina sarjentuak hori ez zela hiltzeko motiboa eta soltatu egin zituzten», adierazi digu.

Gainerakoan, beste herrietatik bezala, Goizuetatik ere «behartuta» joan ziren gazteak gerrara soldadu. «Hiru boluntario ere baziren, falangistak, baina besteak behartuta eraman zituzten. Gure anaia ere eraman zuten». Eta zazpi urte pasatu omen zituen kanpoan. Hona hemen arrazoia: «kapitainaren zakurra goiko dorretik bota eta zakurra hil egin zen eta atxilotua egon zen».

Maritxuk, bere aldetik, eskolan segitu zuen: «14 urte arte aritu ginen. Gerra aurretik eta gero ere, maistra berak segitu zuen. Zarauztarra zen, euskalduna, baina ez zioten uzten euskaraz hitz egiten. Guk geure artean euskaraz egiten genuen eta maistrarekin erdaraz, atzekoz aurrera edo aurrekoz atzera, baina ari». Eta goserik ere ez omen zuten pasatu, «artoa eta ilara bazelako». Baina gogoan du, batzuk ezinenez ibili zirela.

Isabel ORGANBIDE
(Urdazubi)

«Anaia falange sartu zen, bertzela, etxea hartuko zutela erran ziotelako»

Gantxenea baserriko sei seme-alaben artean, gazteena da Isabel Organbide, Felipe Otegirekin (hau ere urdazubiarra) ezkondu eta gaur egun Senperen bizi dena. Gerra Zibilaren garaian, haurra zen oraindik, baina ez ditu ahaztuak orduko kontuak. Gainera, senarra lagun izan du garai haien kontakizunean. Ha-

la, gogoan dute gerraren hasierako egun haietan, «aduanak arras itxi eta jendea hartzen hasi zirela, eta zenbait preso ere eraman zituztela Urdazubitik Iruñerat. Nazionalistak ziren. Ez genuen zer zen konprenitzen baina beldurtu ginen». Gaineratu digunez, «gero gehiago estutzen hasi ziren».

Gerrarekin batera, beldurra zabaldu omen zen herrian, eta horregatik edo, «jendea ez zen aunitz mobilizatu, isilik egon zen», kontatu digu. Bertzeetan bezala, mutil gazteak gerrarako deitu zituzten eta horietako biez ziren gehiago itzuli: «Urdazubiko bi hil ziren gerran, batto Elorrion eta bertzea Galizia aldean».

ANAIA FALANGISTEKIN

Isabelen anaia ere gerrara joan zen, eta horregatik, «penatuak» egon zirela azaldu digu. Gainera, kolpatua izan zen: «buruan metrailetarekin kolpea hartu zuen». Bitaldetan ibili zen Isabelen anaia: «Urdazubin, gizon gutti zen eta denak bortsatuko zituztela erran zioten, eta hobe zutela boluntario gan. Hasieran, erreketen gan zen boluntario, eta gerrarako presatu zituztenean, Iruñetik eskapatu zen. Zugarramurdiko lagun batekin oinez etorri zen etxera. Eta gero, falange sartu zen, sartzen ez bazen, etxea hartuko zutela erran ziotelako. Ama bakarrik zen eta ez zen egoten ahal etxerik gabe», aitortu digu. Izan ere, 7 urterekin atxa galdu zuen Isabelek, eta ama sei seme-alabekin gelditu zen.


Ordura arte, Dantxarri-neko eskolan ibili zen Isabel: «Ainhoatik mojak gaten ziren eta gure aita zenak frantsesa ikastea nahi zuen, berak Donibane Lohizuneran eginga zuelako ofizioa. Baina gerra denboran mojak izitu egin ziren etortzeko. Hala, ge-



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Isabel eta Felipe Urdazubik Senperera joan ziren eta hiru seme-alaba eduki zituzten.

rra hasi bitarte, frantsez ikasteko eskola horretara gan nintzen. Baina, tarte horretan aita ere hil egin zen. Dantxarri-neko eskolan pagatu behar izaten zen eta ama bakarrik gelditua zen». Hortaz, gero Urdazubiko eskolan hasi zen, eta gaztelaniaz egin behar harekin, «gatazkak» ibili omen zituen Isabelek: «perro errateko eskatzen zidaten lagunak, eta nik 'r' frantses azentuarekin erraten nuen», gogoratu du irribarrez.



GAUEKO LANA

«Karabineroek hiru kontrabandista hil zituzten gerra garaian Urdazubin»

Isabel ORGANBIDE
Urdazubi, 81 urte

Eskolatik kanpo, karabinero eta soldadu dezentente ibili omen zen garai hartan. «Nonahi baziren txabolak. Gure anaiak behorak bazituen eta iluntzetan behorak itzultzeraz gaten ginen, eta guardian zeudenez gu somatzean, 'cuerpo a tierra' erraten ziguten. Eurek ere izitzen zirela erraten zuten». Behin baino gehiagotan, soldaduak etxera ere joan omen zitzaizkien gosaltzera, gaua guardian eman ondotik: «kafesnea gogotik hartzen zuten -dio-. Ez zirela boluntarioak konprenitzen ginuen, eta eskualdun aunitz ere bazen». Gaineratu digunez, «soldaduek ez zuten inor kolpatu herrian».

Falangistekin, ordea, izan zen liskar bat edo bertze: «falangistek etxe bati su eman zioten Urdazubin. Etxe hartan apaiak apopilo zeuden, eta etxe horren jabea nazionalista zen. Mezako denboran eman zioten su etxeari. Ez zen su izigarria izan, baina herritar guztiak han bildu ziren itzaltzeko». Herritik hara, tago, «Irun erre zelarik gure etxetik garrak ageri zirela» oroitzen da Gantxerri-neko alaba, baita «Bilbo

hartu zutelarik ezkilak aditu genituela» ere.

Urdazubi Iparraldearekin muga egiten duen herria izaki, kontrabandorako ere aprobetxatu zuten aunitzek, tartean Felipek ere bai, Isabelen senarrak. «Sos pixka bat biltzen ginuen, ez baitzen bertze deus ere izaten. Bizitzeko behar ginuen», aitortu digu. Kontrabandistek ez behar bat baino gehiago ere izan zituzten karabineroekin: «hiru kontrabandista hil zituzten karabineroek. Batto kafea ekartzera kanpoan hil zuten muga. Tiroa bota zioten eta nahi gabe hil zutela erran zuten, baina... Bertze bat odolusuta hil zen. Eritu eta ez zioten kasurik egin eta bertan gelditu zen. Eta hirugarren bat etxera heldu zela hil zuten; pixka bat komunista zela erraten zuten».

Gerra akutu zenean ere kontrabandoak segitu zuen eta Iparraldean hurbil izateak goserik ez pasatzeko eta handik jatekoa ekartzeko aukera eman zien: «Goserik ez ginuen pasatu, baina la-saitasunik ere ez. Beti pitat estutu behar izaten zen. Zenbat opil janak ote gara xingar hotzarekin!».



Nire txanda
Sergio PANIAGUA

Giza-agendak

Krisiaren aurkako neurriek diote aurtan Bera Mugarik Gabe izeneko ospakizunik gabe galdituko dela. Hemengo eta hangoen topaketa ospatzeko besta. Kulturen degustazioa ospatzen zen besta horretan.

Zer krisiaz ari dira? Zein transakzio ez dira banke-roen gustura atera eta orain denen artean ordaindu behar dugu?

Ez dut deus ulertzen. Baina ikusten dut espekulatzaileak zakarki loditzen direla. Ez dute aski burtsan espekulatzearekin. Herrialde osoekin egiten dute, kontinenteekin, traba egiten dieten txanponekin. Gobernuek itsuki obeditzen dute. Bakar-bakarrak aukeratu ez dituztenei obeditzen diete. Eta herriak? Eta jendea? Eta umeen irrifarra? Non galditzen da hori guztia?

Ezin digute agindu zer egin, nola arnastu, nola sentitu. Ezin gaituzte beraien estatistikentzako zenbaki batean bihurtu, ezin gaituzte beraien «burtsa baloreen» merkantzia bilakatu. Herrien taupada herriek markatu behar dute. Gure zoriontasuna gurea da eta ezin da merkatuen joan-etorrien menpe egon.

Ez du inporta aurrekonturik ez izatea. Urtero bezala, ospa dezagun gure besta zoriotasunez, ospa dezagun ez dirua badelako, ospatu nahi dugulako baizik. Ez diezaiegun azpiratzen utzi. Onarpena ezin da Iruñetik, Madriletik edo Estrasburgotik etorri. Giza-agendak gureak bakarrik izan daitezke.

«Ezin digute agindu zer egin, nola arnastu, nola sentitu. Ezin gaituzte beraien estatistikentzako zenbaki batean bihurtu, ezin gaituzte beraien merkantzia bilakatu»

Nabarmentzekoak



Joakin AIOROA
Euskadiko txapeldun

Euskadiko ingude altxatze txapelketa irabazi zuen kirolari iturendarrak Doneztebeko feria egunean. 91 jasoaldi eman zizkion 18 kiloko ingudeari, segundoko bat baino gehiago.



Donato LARRETxea
Nafarroako txapeldun

Seguraski inoiz ez da hain lehia esturik izan Nafarroako aizkolari txapelketan. Kasik final osoa gibeletik joan ondotik, azkenean segundu bakarrarengatik irabazi zuen Donatok.



Aitor ETXARRI
Plazaolako presidente

Leitzako zinegotzia (Bildu) da Plazaola Partzuergo Turistikoko presidente berria, azaroaren 28an Lekunberrin egindako batzar orokorrean hautatua suertatu ondotik.



Atzera begira → 2001.12.20 / TTAPI-TTAPA 316. zk

Berako Jesusen Bihotza ikastetxearen 140 urteak ospatzen

Emakume alargun baten gogoia betez 1861. urtean ailegatu ziren Iruñetik Bera-ra Pauleko San Vicenteren Karidadeko Ahizpen kongregazioko bortz moja. Legia karrikan etxea egin eta ikastetxea sortu zuten. Lehenik La Enseñanza izena jarri zioten, gero Sagrado Corazón edo Jesusen Bihotza. Duela hamar urte 140. urteurrenko ospakizunetan zebiltzan (150 egin dituzte gaurgero) eta ikastetxean belaunaldiz belaunaldi familia bereko kideak ibili direla erakusten du duela 10 urteko argazkiak. Carmen Oiartzabal Berako mojak aipatu zigunez, «gizartea aldatu den neurrian aldatu da Jesusen Bihotza ikastetxeko hezkuntza».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellechea, Joana Guerendiain, Martin Bertiz...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	37€	Europa	55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	31€
Ipar Euskal Herria	55€	Amerika eta Australia	123€	Leizta	15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Aukera paregabea eta erronka galanta dugu parean

Juainas PAUL ARZAK

Hauteskundeak joan dira. Emaitzak, izan direnak izan dira. Aitzinera begira zer? AUKE-RA PAREGABEA ETA ERRONKA GALANTA dugu parean. Elkartzea. Irabazteko: frankismoa kondenatu nahi ez duten 'betiko' demokrata horiek euren irabazi baitute eta galtzailerik egon denik behar dute. Hala diote.

Galtzailerik behar duenak ez du bakerik nahi. Muturrez aritzeko asmoa du. Horrek ematen digu aukera. Aukera gure artean adostu dezakeguna elkar lortzeko. Gauza izanen gara? Eginbeharra ez da guztiek pentsamolde eta bide berberetan ari-tzea. Inolaz ere. Ezinezkoa izateaz gain, aspergarria izanen zen-eta.

Atzentzeko joera dugula iruditzen zait, ordea. Nola esanen nuke: gure burua hain polita eta perfektua ikusten dugu, itxurakoak nahi ditugula guzti guztiak. Alderdikideak bihurtzen ditugu, edo hurbilekoak, agian. Sinestezina eta egia berdaderoa! Eta maldatik abiatu-rik, zerbaitetan gurekin bat ez datozenak, traidore urde zikinak izan behar. Zenbat eta hurbilagokoak izanik, orduan eta gehiago. Hori dela eta hitz egiten dute, batzuk, 'españoles' omen direnen izenean, 'vascos' guztiek horrela pentsatzen dutela diote besteak eta, nola ez, euskaldun fededunetik aunitz urundu gabe, euskaldunak hau, hori eta hura pentsatu eta egin behar dugu, nahitaez.

Euskaltzale guztiak independentistak ote gara? Ezkertiar ala eskuindarrak? Kato-likoak, ateoak, hara-gijaleak, barazkijaleak... Musika, literatura eta kirola berdin eta berdina baloratzen dugu? Non gelditzen da esaldi hura: Hainbat buru, hainbat aburu?

Hau dugu erronka. Ikaragarri zabala den esparruko jendea, pertsona bakoitzak duen konplexutasun nahitaezkoarekin, jo-

katu. Guztiekin -aldeko eta ez aldeko direnekin- kontatu eta, irainetan erori gabe, proposamenak egin eta irabazi. Konbentzimenduz, ideia onenak direlako lagun gehiengo batentzat. Posible ote? Aurka dugun guztia menperatu beharko, eta pila da. Hasi sistema beratik, ohiturak, medioak, boterearen zainak, gizartearen antolaketa erreala,... Majo kostako da. Alde borrokatzeak merezi du, ordea.

«Gure burua hain perfektua ikusten dugu, itxurakoak nahi ditugula guztiak. Alderdikideak bihurtzen ditugu, edo hurbilekoak agian. Sinestezina eta egia berdaderoa! Eta maldatik abiatu-rik, zerbaitetan gurekin bat ez datozenak, traidore urde zikinak izan behar»

Gartxoten borroka

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Joan den hilean estreinatu zen Euskal Herriko zine-
metan Gartxoten kondairari buruzko filma, marrazki bizidunetan egina, 'Gartxot, konkistaren aitzineko konkista' izenburupean. Arturo Campionek Itzaltzuko bardoaren kondairari buruz egindako bertsioaren bertsioa da istorio hori, lehenbiziko komiki egina, eta, orain, marrazki bizidun. Nafarroako Erresuma oraindik independentea eta errege euskaldunen agintepekoa bazen ere, Pirinioetara etorritako monje erdaldunek euren ohitura eta hizkuntza arrotzak ezarri nahi izan zizkieten bertako herritarrei, eta Gartxotek horren aurka egin zuen borroka. Monjeek semea bahitu nahi izan zioten, latinean hezi eta euskara bazter utzi zezan, baina haien eskuetan utzi aitzinetik, Gartxotek nahiago izan zuen semea bere eskuekin akabatu. Atzerriko ohituren inposaketan dramaren adierazle bat da Gartxoten kondaira. Istorioa kokatzen den garaitik ehunka urte pasatu dira. Ordutik Nafarroako Erresuma lurraldea galtzen joan da etengabe, Espainiaren eta Frantziaren atzaparretan erori arte. Eta ehunka urte haue-

«Euskalduna bere hizkuntzaz lotsarazten da, esparru publikoan erabiltzeko trabak paratzen zaizkio eta etxeko sukaldera mugatu nahi da bertako hizkuntza»

tan, bertako hizkuntza bakarrak, *lingua navarrorum*ak, etengabe egin du gibelera. Duela 200 urte eskas (Historian 200 urte ez baita deus), Nafarroako herritar gehienak euskaldunak ziren. Napoleonen tropek Iruñea hartu zutenean bandoak euskaraz egin behar izaten zizutuzten euren aginduak bertako jendeari ulertarazi ahal izateko, eta urte batzuk geroago, oraindik hegoalderago, Artaxoak herri euskalduna izaten segitzen zuen. Zer gertatu da bada hainen denbora tarte motzeari Nafarroako hizkuntza solasten dugunak 20.000 biztanle eskaseko lurralde eremu batera mugatuta gelditzeko, eta handik kanpo euskara galarazi zen lekuetara hedatzeko etengabeko borrokan aritu behar izateko? Asimilazioaren logika dago horren giblean. Atzeritik bultzatu, eta bertako eliteekin bat hartuta egiten den deuseztatze politika, bai Gartxoten garaian, bai gaur egun. Euskalduna bere hizkuntzaz lotsarazten da, esparru publikoan erabiltzeko trabak paratzen zaizkio, eta etxeko sukaldera mugatu nahi da bertako hizkuntza. Horrela, hamarkada gutti batzuetan milaka nafarrek ez zieten beraien hizkuntza transmititu seme-alabei, haien izatea ukatu zuten, pentsatuz euskarak ez zuela deusetarako balio, eta hobe zela madrildarren pareko izatea, Atarrabian bizi arren. Makilakadaka ezarritako mentalitate horrek bizirik segitzen du Nafarroan, Yolanda Barcina eta gisako elementuek hauspotua, baina oraingo boteretsuek ere garbi eduki dezatela Gartxot bezala, haien izateari uko egiten ez dioten milaka herritar parean edukiko dituztela.

Irakurleak mintzo

Hauteskundeak eta gero...

Asier ZABALETA
APEZETXEA (Leitza)

Hauteskundeak-hauteskunde eta emaitzak-emaitza, batzuen gazi-gozo eta besteen salto-poza izan da azaroaren 20ko gauaren azpimarra. Ni abertzale naizen eremutik, nire prebisioak osotasunean betetzen ari dira, bai EAEn eta Nafarroan ere pozik.

Egia da ezker abertzaleak, momentu historikoan abstentzioa eskatu izan duela 2000. urtean, Espainiako hauteskundeak arrotzak, ordezkatzeko ez gaituztenak... zirela esanez. Emaitza kaxkar haiek zer nolako ondorioak ekarri zituen badakigu, Euskal Herriaren aurka etsai politikoei oxigenoa eman baizitzaien. Ondoren bere hausnarketa egin eta aurkezte erabaki zuenean, 2008an, guztiz positibo baloratuta, ez zitzaion utzi demokrazia ezagatik. Orain sutagar, botoa eman behar da, esate horietako! Momentu historikoa orduan eta orain, nahiz eta batzuk hori ez ikusi nahi.

Orain Nafarroan lortu diren emaitza historikoak, 5. diputatuaren lehia bizi-bizia egon denean UPN eta Geroa Bairen artean, Nafarroan balantza gure aldera erori da, 91.000 bozka euskalzaletortuaz, 2 diputatu euskaldunen ahotza edukiaz. Espainolista feudoetan emaitza onak jasoz, batzurtan Geroa

Baik eta bestetan Amaiurrek gain hartuz.

«Inork espero ez zuen eta pultso politiko oso zailari eutsi dion Geroa Bairen proiektu euskalzalea, aurrerakoa... Nafarroako errealtate bat dela oso garbi utzi du», Mariano Ferrer, Arnaldoren laguna den kazetari aurrerakoiaren hitzetan. Bat nator guztiz.

Orain zubiak eraiki behar direla badiogu, alderdikeriak alde batera utziz, Nafarroa eraiki behar da lehenbizi, Euskal Herria eraikitzeko, lan koherente bateratu bat egiteko. Etsai politikoei ahal diren oparirik gutxienak egin behar baitzaizkie. Orain arte egindakoak gehiegi izan dira eta, ETA-tik hasita.

Gizarte Enplegu Babestua finantzatzeko baliabideez

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako teknikariak

2011ko irailaren 26an Nafarroako Gobernua-ren Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazte-riako kontseilari Elena Torres Mirandak Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei bilera deia egin zien haren Departamentuak legegintzaldi honetan izanen dituen lan ildoak azaltzeko. Bileran Gizarte Enplegu Babestua mantentzeko asmoa adierazi zuen, eta Departamentuarendako baliabide hori lehen-tasunezkoa dela nabarmendu zuen, nahiz eta



Bota bertsoa

Iñigo GOROSTARTZU (Leitzako bertso eskola) • Doinua: Habanera

2011. urteari errepasoa

Bi mila ta hamaikako Abendura iritxita, heldu da urte zaharra errepasatzeko zita, erretzearen legeak sortu zuen polemika, iraultza Islamiarra ze nolako ikamika, maiatzaren hamabosta daukagu gorri jarrita, Japonian tsunamia nuklearrari kritika, Bildu hauteskundetan eta ETA armak utzita, historian egongo da hamaikako politika.

Krisia ere zabalduz doa bere azalera, asko konturatu gabe bai doaz zulo beltzera, pepinoarena ere izan zen denen kaltera, Eurogunea larri da, Berlusconiaren galera, Zapatero ere berdin eta Raxoi agintera, ERE eta erreformak zenbat langile kalera, Olentzerorentzat hau da aurten dudak eskaera, osasun izan dezagun eta moldatuko gera!

Gizarte Zerbitzuen Zorroan bermaturik ez dagoen baliabidea izan. Baliabide horretan laguntza-langile gisa lan egiten dugun teknikariek hala izatea espero dugu. Gizarte Enplegu Babestua garrantzi handiko baliabidea da eta krisi garai honetan eraginkortasunez ari da lanean behar handiko egoeretan. Lana sortzen, baliabide pertsonalen garapena sustatzen eta enplegu aukerak hobetzen ari da. Horretaz gain, oinarrizko errentarekin batera, errenta horren emaitzak optimizatzen eta hobetzen dituen baliabidea da. Horrenbestez, bat gatz kontseilariarekin eta Departamentuarekin, gure ustez ere baliabide hau lehentasunezkoa baita gizarte-baztertzearen kontra borrokatzeko dauden zerbitzuen artean. Hala ere, kezkatuta gaudela baliabide hau finantzatzeko erabiltzen ari di-

ren kontusailak ez baitira batere egonkorak eta, urtez urte gorabehera handiak izaten ari baita. Datu ekonomikoak errepasatuz ikus daiteke, 2010etik aurrera finantzazioa murrizten hasi zela, nahiz eta urte horretan finantzazioa handitu zen, krisiaren larrian beste koska bat igo zelarik. 2010etik 2011ra %14,23, eta 2012. urterako, aurrekontuak onartzeko zain, ikusirik 1. kontusaila planteatzen den kantitatea eta 2. kontusaila desagertu dela, pentsa dezakegu 2011ko aurrekontuarekin alderatuta murrizketa %26,83koa izanen dela, eta bi urteetan pilatutakoa %37,24 gutxiago. Gizarte Enplegu Babestuaren aurrekontua 2011n finantzatuaren azpitik murrizten bada, udalen egoera ekonomikoa kontuan harturik, gure ustez arriskua dago proiektuetako asko desagertzeko edo murriz-

keten ondorioz egoera larrian geratzeko. Datu horiek kontuan harturik, beharrezkotzat jotzen dugu urgentziaz ahaletzeko eta bitartekoak mugitzen hastea krisi egoera honetan dagoen behar sozialarekin bat etorriko den kontusail handiago bat bermatzeko, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei 2012. urtean bitarteko honek izanen duen kantitate erreala jakinaraztea.

Euskarazko hedabideek erakundeen konpromisoa behar dute

Euskarazko hedabide ez publikoak

Bederatzi hilabete badi-ra euskarazko hedabide ez publikoak agerraldi publikoa eta kanpaina

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Irakurleak mintzo

bateratua egin genituela, hiru helburu nagusi-ekin:

1. Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea. Komunikazioaren eta hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik ez ezik, ekonomia ikuspegitik ere estrategikoa eta garrantzia handikoa den sektore bati buruz ari gara hitz egiten.

2. Erakunde publikoei sektorearekiko konpromiso handiagoa eskatzen zitzaien, publizitate-inbertsio, bestelako inbertsio eta laguntza handiagoak, gaurtik bertatik hasita.

3. Horretaz gain, sektoreak egoeraren analisia egin eta analisi horretatik abiatuta ildo nagusi-akerakundeekin lantzen hasteko konpromisoa hartu zuen.

2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezagarriak dira, ikaratzeko modukoak.

1. 2012rako aurrekontu proposamenean jasota daudenak betetzen badira, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen diru laguntzak ezerezean dira, 2012ko aurrekontuetatik erabat desagertuko da hedabideetan euskarazko diru partida. Gainera, 2011ko bigarren epealdiko laguntzak desagertzeko arriskua ere handia da.

2. Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak onartzen badira, erakunde horrek aurten baino 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu 2012an hedabideen diru laguntzetara. Urteetan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak goraka joan direnean, euskalgintzara eta euskarazko hedabideetara bideratutako diru sailak ez dira handitu; orain, aurrekontuetan estutasunak sortu direnean, ez dago gupidarik: lehendik estu dabilen sektore bati are kalte handiagoa egiteko aukera zabalduko da.

3. Gipuzkoako Foru Al-
dundiak 2011ko diru sai-
lari eustea aurreikusi du
—aurreko bi urteetan as-
ko jaitsi da diru sail ho-
ri, eta ez du handituko—. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurre-
kontuetan diru saila han-
ditzea aurreikusi duen
bakarra—47.500 euro ge-
hiago, %12ko igoera—.

4. Eta zer esanik ez Iparralderi buruz, non eus-
kaldun hiztunen galera
bizkorra (hizkuntza poli-
tika publiko baztertzai-
learen ondorioz) anbizio-
rik gabeko hizkuntza poli-
tika batekin paraleloan
doan. Enpresa pribatu-
ek euskarazko hedabi-
de berriak sortzen dituz-
ten bitartean, laguntza
publikoak oraindik gel-
dialdi berean mantien-
tzen dira eta, aldi bere-
an, botere publiko gehie-
nek ez dituzte kontuan
hartzen euskarazko he-
dabideak beren publizi-
tate kanpaina ordaindue-
tan.

Jakintun gara sektorea-

ren etorkizuna gure la-
naren baitan dagoela na-
gusiki. Guk geuk ere
aztertu behar ditugula
gure indargune eta ahul-
dadeak, sektorean elka-
rrekin jardunda erraza-
goa izango zaigula garai
zail honi aurre egitea. Ze-
regin horretan ari gara hi-
labete hauetan eta las-
ter batean gure hausnar-
keta instituzioetako ar-
duradunekin partekatu
ahal izango dugu. Baina
argi dugu aurrera egite-
ko ezinbestekoa dugula
erakunde publikoen la-
guntza handiagoa, eta
hori ari gara aldarrika-
tzen une honetan.
Gaur egungo erakunde
publikoen dinamikak ez
du asko laguntzen bide
horretan, eta ezin dugu
isilik geratu ikusten du-
gunean euskarazko he-
dabideen sektoreak ez
duela erakunde publiko-
en 2012ko aurrekontu
proposamenetan behar
eta merezi duen tratae-
ra jasoko, ustez denen
begietara sektore ezin-
besteko eta estrategikoa

izan arren. Horregatik,
erakundeei publikoki es-
katzen diegu gaiaren ga-
rrantzia kontuan hartze-
ko eta aurrekontuak aha-
lik eta gehien egokitze-
ko, partidak handituz.

Lesakako zubiko txulo-etxea

Leire GOIKOETXEA
(Hendaia)

Azaroak 25: emaku-
meen aurkako indarke-
riaren kontrako eguna.
Hitzak eta ekintzak izan
dira matxismoaren aur-
ka.

Baina borroka hori
patriarkatuaren aurkako
borroka orokorrean txer-
tatzen da eta ez da urte-
ko bi egunetara muga-
tzen.

Nik galdera zehatz bat
dut: nola baimentzen da
emakumearen menpe-
kotasunaren ikur bat Bor-
tzirietan?

Txolak eta puteroak
ez Bidasoan, ez inon!




Karsuk®
 Muebles de cocina
 Meubles de cuisine
 Sukaldeko altxariak
 Carlos Pontier Sáenz
 C/Sara 1 bajo local C
 31780 Bera (Na)
 T/F +34 948 625 430
 M +34 699 884 084
 info@karsuk.eu
 www.karsuk.eu



ANSONEA
 Egurako menuak
 Menu vegetarianoak
 Menu makrobiotikoak
 Plater konbinatuak
 Bokatak • Etxerak
 948 621 441
 Berritoa 2000, 11 22KA








**EGUBERRIETAKO
ESKANTZA**
 Berritoa • Tepezpuzurra
-%10

♥ **HELBIDE BERRIA:** Bidasoa, 12 | BERA • 948 631 425
 ♥ **ORDUTEGI BERRIA:** Astelarena: 10:00-13:00 | 16:00-20:00
 Astelekea, asteazkena, osteguna, ostirala eta larunbata: 10:00-13:00 | 17:00-20:00
ABENDUAN, LARUNBAT ARRATZALDEETAN IREKITZEN DUGU



Ordoki Industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax: 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

Leihoetan merkatuko isolamendu termiko eta akustiko hoberena



Kontraleihoetan modelo ezberdinak lantzen ditugu



betiko rekin lan egitearen abantailak:

- 2.200m²-ko instalazioak, Baztan-Bidasoako fabrikanterik haundiena
- Kalitate-Prezio hoberenak
- 15 urtetako esperientzia leihoen munduan
- Makinaria aurreratuenak

ETORRI GURE INSTALAZIOAK IKUSTERA!



Eguberriak 2011

Jostailuak, edo arropak direla, kosmetika produktuak zein osagarriak, suniztan opariekin asmatzea zaila izaten da, eta buruhauste bat baino gehiago sortzen digu opari aproposa aurkitzeak. Gehigarri honetan proposamen komertzialak, aholkuak eta han eta hemen, gure herrietan, antolatu diren jardueren buruzko informazioak topatuko dituzu. Beldagarri izanen zaizkizuekoean. Eguberri on!

Merkataritza bizirik daoen tokietan, herriak ere biñi-biñi daude.

Erosi gure dendetan!



ainhoa
estilista

ORDUTEGIA
Asteartetik ostiralera:
09:30-13:30 | 16:00-19:00
Larunbatetan: 09:00-14:00
Astelehenetan itxia.

T. 696 125 001

Eguberri ou!

ORAIN: Albistur, 63B-an LESAKAN

ARRATE ETETIKA ZENTROA

Bismia C-dan kremarikin
desmaquillatzaile - mini krema - begi-itzala **OPARI**
Aurpegi-krema ordainduta serum-a **OPARI**

EGUBERRIETAKO ESKAINTZA BEREZIAK!
Pasatu zerrindaren bila!

OPARI AHATZEZINAK!
Txeke opariak egiten dira,
pack prestaketa eta bonoak ere!

Intxakardi, 7 | DONEZTEBE (Nafarroa) | 948 450 286

Pinpirin
PILATZU-ERRETA - TIT KARRIKAZ KARRIKA

Aitziber
Ubiris Santesteban

*EGUBERRI
OU!!*

Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnoa: 948 63 80 37

EGUBERRIETAKO AGENDA

Olentzero, Kabalgata eta bertze hainbat ekitaldi herriz herri

Eguberrietako ohiko ospakizunak Olentzero eta Errege Kabalgata izan ohi dira, Urtezhahar eguneko Diostesalbe eta gisako kantaldiekin batera. Horietaz gain hainbat kultur eta kirol ekitaldi antolatu dira herriz herri.

Eguberriak gainean ditugu eta herri gehienetan Olentzero aterako da karrikaz karrika, etxeetan opariak utzi baino lehen. Bukatzeko, Errege Kabalgatak ere izanen dira herrietan, baina tartean, bertze ekitaldi ugari antolatu dituzte kultur elkarte, musika talde, ikastetxe edo Udalek. Honatx horietako batzuk:

Olentzero, Glin-Glan eta Diostesalbea Beran

Beran kultur agenda emankorra izanen da egunotan. Hasteko, abenduaren 16an, ortziralean 18:00etan Bortzirietako haur eta gazteen ipuin lehiaketako sari banaketa egiten da liburutegian. Abenduaren 17an, larunbatean, Ainhoaiko Atsulai Abesbatzak kontzertua eskainiko du 19:00etan Kultur Etxean. Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola astez aste ari da bere entzunaldiak eskaintzen eta azkenekoa hilaren 20ko piano entzunaldia izanen da (17:30ean Musika Eskolan). Abenduaren 21ean, berriz, Eguberrietako kontzertua eskainiko dute 17:30ean Kultur Etxean. Abenduaren 24an, jakina, Olentzero ailegatuko da 17:00etan Alitzateko plazara eta euria eginen balu, Eztegar pilotalekura. Urtezhahar egunean, berriz, Glin-Glan eta Diostesalbe kantari ibiliko dira karrikaz karrika.

Olentzero lehiaketa Lesakan

Euskal Herri osoan Olentzerok lehiaketa duen herri bakarra da Lesaka. Jaiotza lehiaketa ere egiten da Eguberri bezperan, eguerditik aitzinera. Olentzero ikusgarriak eta bikainak egiten dituzte herriko ume eta gazteek eta hura bizkarrean hartu eta kantari ateratzen dira plazara. Epaimahaiak, olentzeroa bera, abestia eta kantarien janzkera baloratzen du. Olentzero politenari ere Esparza Saria ematen zaio. Maila nagusiko irabazleek (adinaren arabera egiten baita lehiaketa), arrats partean musika bandarekin herrian barna desfilatzeako aukera ere irabazten dute. Duela urte gutti arte, goizez baserri auzoetan barna ibiltzen ziren gazteak beraien olentzeroekin, baina salbuespenak salbuespen, ohitura hori galduxea dago.





Baina Olentzeroz gain, bertze zenbait kultur ekitaldi ere izanen dira Lesakan egunotan. Honela, Beti Gazteko Irakurketa Taldea abenduaren 17an bilduko da Koskontako Bideko udal aretoan. Abenduaren 21ean Eguberrietako kontzertua eskainiko du Musika Eskolak 18:00etan hasita Udaletxeko Pleno Aretoan. Abenduaren 23an ere Santa Zezilia Batzordeak Eguberrietako kontzertua antolatu du. 19:00etan abiatuko da kalejira eta ondotik emanaldia izanen da plazan. Abenduaren 22an Eguberrietako jaialdia antolatu dute Irain eskolako ikasle eta irakasleek 11:30ean. Eguberri Eguneko goizeko meza Abesbatzak kantatuko du. Lesakako Abesbatzak lan gehiago ere izanen du egunotan: Abenduaren 28an, emanaldia eskainiko du Andra Mari Egoitzan 17:00etan eta Urtezahar egunean, 18:00etan Plaza Zaharretik abiatuta egingen den Diostesalve kalejiran parte hartuko du herriko elkarte, musikari eta bizilagunekin batera.

Donezteben kirola Erreka elkartearen eskutik

Donezteben kirol eginez urtea akitzeko gogoia izaten dute, batez ere Errekak antolatzen dituen ekitaldien eskutik. Honela, abenduaren 17an Mendiaren Eguna izanen dute, Carlos Pauner mendizale handiaren partehartzearekin. Urtezahar egunean, berriz, ohitura ez galtzeko Mendaurrera joanen dira mendizaleak goizean eta San Silbestreko krosean aterako dira korrikalariak arratsaldean.

Baztanen kontzertuak, solasaldiak, krosa...

Baztanen hainbat kontzertu antolatu dira egunotan. Honela, abenduaren 17an Eguberrietako kontzertua eskainiko du Baztango Musika Eskolak 17:30ean hasita Elizondoko parrokan. Abenduaren 23an, Baztango haur eta gazte kantarien topaketa antolatu du Elizondoko abesbatzak Iruritan, 19:00etatik aitzinera. Abenduaren 26an, Elizondoko Recreo Musika Bandak Eguberrietako kontzertua eskainiko du 19:00etatik aitzinera Oronozko parrokan.

Bertzalde, Erratzuko Kultur Elkartek eta Baztango Kultur Batzordeak, Olentzeroa ez ezik bertze zenbait jarduera antolatu ditu. Hilaren 15ean, Idazleekin Solasean programaren barrenean, Eider Rodriguez idazlea 'Katu jendea' liburuari buruz solasean ari-tuko da 18:00etatik aitzinera Arizkungo Herriko Ostatuan. Abenduaren 18an, berriz, «Islandia bizikletaz» diapositiba emanaldia aurkeztuko dute Totu Iturzaeta eta Idoia Gilleneak Erratzuko Elkarteak, 18:00etan hasita. Abenduaren 18an, goizeko 11:00etan Eguberrietako Krosa antolatu du Baztan Ikastolak.

Zinema Etxalarko Kultur Etxean

Etxalarko Kultur Etxean 'Cher ami... ta ni' marrazki bizidunen pelikula eskainiko da abenduaren 27an, 16:30etik aitzinera eta ondotik opariak banatuko dira.



948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

KATEA-BIKE



**BIZIKLETA SALMENTA
ETA KONPONKETA**

Zorionak eta urte berri on!

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
JAURENA**

Julio Caro Baroja. 6 behea
31780 BERA
Nafarroa
Tel/Faxa: 948 631 217

EGUBERRI ON!!!

cenor
Etxetresnen denda

Merkaopari
www.merkaopari.es

Urtero bezala, berriz eragitsi dira Eguberriak

Beti bezala konfiantzaz eta preziorik onenean

Zorionak



EGUBERRIETAKO SOBERAKINAK PROBEXTEKO

Soberan gelditutako janarekin errezetak Alex Mugikaren eskutik

Soberan gelditutako janariarekin sukaldaritza ikastaroa egin zen Iruñean, Nafarroako Gobernuako CRANA erakundeak antolatuta. Alex Mugika sukaldari leitzarra izan zen ditugun baliabideak ahal bezain ongi aprobetxatzera bideratutako ikastaroaren gidaria.

Azaroaren 19tik 27ra Hondakinen Prebentziorako Astea ospatu zen Europa osoan eta aitzaki horrekin, Nafarroako Gobernuaren CRANA (Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentrua) erakundeak soberan gelditutako janariarekin egiteko errezeta ikastaroa antolatu zuen, olioak berreskuratzen dituen Ekogras erakundearen laguntzarekin. Etxean eta jatetxetan sortzen diren hondakinen prebentzioa eta eskura ditugun baliabideak ahal bezain ongi aprobetxatzea izan dira ikastaro hauen helburua eta 30 bat lagun aritu dira Alex Mugika sukaldari leitzarraren gidaritzapean. Tailer honetaz gain, Europako Astearen barrunean, Nafarroako bertze hainbat sukaldari bat egin dute ekimenarekin, Hiri-Hondakinen Mankomunitateek lagunduta, hala nola Otsagabiako Kixkia jatetxeko Mikel Zeberio edo Berako Zalain jatetxeko Iñaki Pikabea. Tailer hauekin, sukaldean aritzen direnei, beraien maila gastronomikoa dena delakoa, lan filosofia bat helarazi nahi izan zaie, birziklatzea ere, aurrezteko, imajinatzeko, gozatzeko eta harritzeko modu bat izan daitekeela erakutsiz.



Alex Mugika gidari

Iruñeko ikastaroan aritu zirenek, Alex Mugika izan zuten gidari eta sukaldari leitzarrak

berak argitaratutako 'Reciclaje y Alta cocina' liburutik hartutako errezetak landu zituzten. Liburu honekin, sukaldariak idatzitako liburu onenari emandako Gourmand Saria eskuratu zuen Mugikak 2008an. Tailerrean egindako menuan foie trufak, iberiko zuhaitza eta hestebeteak, errioxar erara egindako pataten kroketak, bildots eta patata terrina, tripaki eta onddoen fideuá eta turroi torrija prestatu zituzten.

Europar Batasunean egindako ikerketa baten arabera, pertsona eta urteko 180 kilo janari botatzen ditugu zaborretara eta kopuru horretatik kasik erdia (%43) etxeetan sortzen dugu, komertzio eta supermerkatuak %4aren arduradunak diren bitartean. Diruan suposatzen duenaz gain, Europan 89 milioi Tona zabor eragiten dute, 170 milioi Tona CO₂ aireratzen dutenak. Eguberrietara begira hausnartzeko moduko kopuruak.

non jantzi zure barnealdea

BIDEAN



IRUÑEA
COMEDIAS 8-10



Olentzeroren opariak **BIDEAN** denda





ARRISKUAK SAIHESTEKO AHOLKUAK

Eguberrietan istripurik ez etxean

Eguberriak trastelekuan hasten dira. Aurreko urtean kaxatan bilduta sartu genituen bolak, apaingarriak, girlandak, argiak non dauden bilatu beharra dago, jaiotza eta arbola ahaztu gabe, jakina.

Itxuraz, arriskugabeak dira horiek guztiak, baina hainbat istripu eragin ditzakete etxean. Hori dela eta, ezusteko txarrak saihesteko, ongi aztertu behar da zein apaingarri jarriko ditugun eta nola egingen dugun hori.

Arbola, hobe artifiziala bada

Ingurumenarentzat mesede izateaz gain, arbola artifizialek badute beste dohain bat ere: suaren kontrako materialekin egiten dituzte, eta, beraz, argietan txinparta sortuz gero, ez dute su hartzeko arriskurik. Etiketan begiratu behar da ezaugarri hori ageri den edo ez.

- Arbola natural bat jartzea erabakiz gero, moztu berria izan dadila, berde eta fresko egon dadin.
- Arbola natural bati apaingarriak jarri aurretik, urez betetako ontzi batean utzi egun batzuetan. Era horretan, freskoago egonen da, eta su hartzeko arrisku gutxiago edukiko du.
- Beroa ematen duten gailuetatik urrun jarri behar da arbola (erradiadore, berogailu edo tximinietatik).
- Arbolak ez ditu ateak blokeatu behar eta sarrera-irteeretan ere ez du trabarik egin behar.

Argiteria, suaren aurkakoa

Etxea eta arbola argiz apaindu nahi badugu, tentsio txikiko argiak erabiltzea da onena (12 edo 24 volt-ekoak). Argiak aurreko urteetakoak izan edo berriak izan, ongi gain-begiratu behar dira, ikusteko ea baduten alanbre gastaturik, kablerik agerian, lanpara hondaturik edo konexio solterik. Behar bezala ez badaude, konpondu egin behar dira, eta ezin bada, bota. Sekula ez da jarri behar argi elektrikorik metalezko arboletan, zeren elektrizitatez kargatu eta norbait elektrokutatzeko arriskua baitago hura ukituz gero. Argiek ez dute ukitu behar metalezko apaingarririk, handitu egiten baita deskarga elektrikoak gertatzeko arriskua.

Argiak zabaltzerakoan, ez jarri alfonbren azpian, altzarien azpian, gortinen azpian... lanparak izugarri berotu daitezke eta.





Argiak eta etengailuak ongi babestu behar dira, haurrek ezin erabili izateko moduan eta itzali egin behar dira lotara joandakoan edo etxetik irtendakoan. Argi girlandak zintzilikatzeko eta horiei eusteko modurik onena plastikozko bridak erabiltzea da. Ez erabili grapa edo iltzerik, horiekin kableak zulatu daitezke eta.

Etxearen kanpoaldea apaintzeko, kanpoan jartzeko diren argi eta apaingarriak soilik erabili; lurra duten etengailuek babesten dituzten zirkuituetara konektatu behar dira. Ongi egiaztatu behar da kanpoaldeko argiak uretatik babestuta daudela, etiketan argi adierazten dela kanpoan jartzekoak direla eta kableak gomazkoak edo kautxuzkoak direla, eta ez PVCkoak.

Apaingarri seguruak eta haurrentzako arriskurik gabeak

Ziurtatu egin behar da Eguberrietako apaingarriek 'CE' etiketa ageri dutela (indarrean dauden arauak betetzen dituela esan nahi du horrek). Etxean haur txiki-txikiak edukiz gero, ez erabili apaingarri eta irudi txikirik, ez eta desmuntatzen direnik ere, edo punta edo ertz zorrotzak dituztenik. Aerosolean datorren elur artifiziala erabiliz gero, zorrotz-zorrotz bete erabilera-oharrak, berteak bertze birikei kalterik ez egiteko.

Elur aparra dakarten ontziek su har dezakete bero-iturrietatik gertu jarritz gero, eta berdin konfeti eta sugapaperek ere.

Eguberrietako landareak ez jarri haur eta animaliangandik gertu. Goroldioa eta Eguberrietako beste landare batzuk toxikoak dira.

Ahal dela, ez piztu kandelarik. Erabili nahi izanez gero, zutargi sendoetan jarri, nolana ere ez erortzeko bezain sendo direnetan. Bero-iturrietatik urrun jarri kandelak, eta beste apaingarri eta gortinetatik ere urrutiratu. Ez daitezela egon haurren eta maskoten eskura. Sekula ez utzi haur bat bakarrik, gela horretan kandelaren bat piztuta badago. Kandelak lurrindunak badira, arreta berezia jarri behar zaie haurrei, erakarri egiten baitituzte. Etxetik irteterakoan, itzali egin behar dira kandelak, nahiz eta bost minuturako baino ez irten; berdin egin behar da ohera joandakoan ere.

Pirotekniarekin erne, arriskutsua baita

Pirotekniako gaiak erosiz gero, kontuan hartu behar da zer arrisku dagoen horiek gaizki erabiliz gero: toxikazioak sor litezke, eskuak edo betazalak erre, edo begietan zauriak eragin. Kontu handiz ibili behar da.

Leku irekietan soilik erabili behar dira, eta sekula ez pertsonak, animaliak edo ibilgailuak aski urrun ez badaude.

Haurrei sekula ez zaie utzi behar, sekula ez, petardoak, koheteak edo pirotekniako bertzelako gaiak erabiltzen.

Petardoak lata baten barnean, botila baten barnean edo bertze edozein ontziren barnean lehertzea hagitz arriskutsua izan liteke, zauri larriak sor baitaitezke horiek askatzen dituzten printzekin. Haurrei argi eta garbi adierazi behar zaie hori.

Pirotekniako gaiak ez eraman sakelara sartuta. Igurtziak eta beroak ustekabeen leherraraz ditzakete.

Haurrei ez zaie utzi behar koheteak irekitzen edo eskuetan erabiltzen; berun hondarrak, sufrea edo bolbora gera dakieke eskuetan, eta toxikatu egin daitezke ahora eramanez gero.

Haizea badabil, ez piztu hegan egiten duen objekturik (koheteak, bengalak...).

Pirotekniako gaiak ez dira erosi behar saltzaile ibiltarien postuetan; horietan ez baita izaten langile prestaturik, eta ez dute azaltzen nola erabili behar diren eta zer segurtasun neurri hartu behar diren produktu bakoitzarekin.





MERKATARIAK ERE EGUBERRIEI BEGIRA

Gabonetako kanpainak ere murrizketekin datoz

Ez da garai ona merkatariarentzat ere, oraindik ere antolatzen dituzten ekitaldien truke Nafarroako Gobernutik jasotzen duten dirulaguntzaren esperoan baitaude. Halere, azken urteetan baino apalxeagoak badira ere, Eguberrietako kanpainak prest dituzte.

Herri handienetan elkarreetan bilduak daude komertzio eta zerbitzuak. Eguberri garaian bezeroak erakartzeko helburuarekin kanpaina hauek eginen dituzte.

Fideltasun kanpaina Baztanen

Baztango Bertan Merkataria, Ostalaritza eta Zerbitzu elkartean Fideltasun kanpaina egiten ari dira abenduaren 1etik ilbeltzaren 7ra eta ilbeltzaren 9an fideltasun kanpaina horretako zozketa eginen da. Kanpaina honetan Bertan elkarteko kide diren 92 establezimenduek opari bana eskainiko dute. Bezeroek, 12 lauki dituen txartela zigilatu beharko dute eta komertzio bakoitzak gehienez ere bi zigilu jartzen ahal ditu, erosketen kopuruaren arabera (erosketa 20 euro baino guttiagokoa bada zigilu bakarra eta gehiagokoa bada, bi zigilu). Behin txartelaren 12 laukitxoak zigilatuta daudela, urtarrilaren 9an eginen den zozketan sartuko da eta 92 oparietako bat lortzeko aukera izanen du txartel bakoitzak. Opariak ikusgai daude dagoeneko garai bateko Fantxike dendan, botikaren parean. Horretaz gain, azken urteetako ohiturari eutsiz, erakusleihu edo eskaparte lehiaketa ere eginen da.

Oparien zozketa Lesakan

Lesakako merkatari eta Zerbitzuen Elkartean ere zozketa bat prestatu dute, bezeroen artean egiteko. Azaroaren 16tik abenduaren 16ra egiten diren erosketen truke sariak zozketatzen dira: bi pertsonendako asteburu bat Errioxan, Atxaspin gau bat gosariarekin eta *spa* saioarekin, igerilekuan masaje tratamendu bat, Eguberrietako janari-loteak, edertasunerako produktuen *kita*, Eguberrietako pastel eta gozokien lotea, Intzuri optikan 100 euroko bale bat... Abenduaren 20tik aitzinera saridunen izenak jarriko dira dendetan.

Lanzarotera bidaiaren zozketa Beran

Berako Larun Haizpe elkarteak abenduaren 15etik urtarrilaren 5era bazkide diren establezimenduetan egiten diren erosketen truke, Lanzaroterako bi pertsonendako bidai baten zozketan parte hartzeko aukera izanen dute. Azkeneko urteetan, haurren oporraldiekin batera, puzgarriak ere paratukatu dituzte Beran, baina aurreko dirulaguntza oraindik segurtatu gabe dutenez, ez dutela paratuko jakinarazi dute Larun Haizpetik.

Tonbola eta zozketak Donezteben

Doneztebarrak Elkarteak tonbola prestatu du. Abenduan egindako erosketen bidez tonbolako txartelak eskuratzen dituzte bezeroek eta berehala ikusten dute saria duten edo ez. Baina txartel horiek sari zuzenik ez izanda ere, gorde egin behar dira, zenbakia zozketa batean sartuko baita: 49 bazkideek ematen dituzten opariak, telebistak, *wii*, bizikletak, xurgagailu-errobotak, urdaiazpikoa, afaria, motozerrak, kazuela-sorta, Nespresso-tresna bat... Denetara 150 oparitik goiti izanen direla aipatu digu Natalia Rekarte, Doneztebarrak Elkarteko presidenteak. Abenduaren 30ean eginen da zozketa, 18:00etan eta ondotik txistorrada izanen da musikarekin, Santa Luzia Plazan.

50 euroko 41 sari Leitzan

Azken urteetan sari potoloak esku gutxi batzuetan gelditzen baziren ere, aurreko sari txixixagoak baino gehiago zozketatuko ditu Kaxkabeltza Elkarteak Leitzan. Zehazki, 50 euroko balioa duten 41 sari (elkarteko bazkide haina) zozketatuko dira egunotan elkarteko establezimenduetan erosketak egiten dituztenen artean. Zozketa, Errege bezperan, urtarrilaren 5ean eginen da Karrape Irratian.

VENTA **PEIO**

MERKATARITZA GUNEAN

USAIN GOXOEN TXOKOA
aurkituko duzu

Nacionnaud

GIORGIO ARMANI
DIOR
CHANEL
THIERRY MUGLER
YVES SAINT LAURENT
D&G
LANCÔME
JEAN PAUL GAULTIER
DKNY
LACOSTE
CAROLINA HERRERA

... eta gainera
ARROPETAN

DESIGUAL
LEVIS
DOCKERS
...



Arnegi



Ibardin



Danbarinea



Landibar



Behobia



Agus Benta

www.venta-peio.com

(0034) 902 210 800



EGUBERRIETAKO GASTUAK

Ongi eta goxo ospatu, baina gastuetan burua galdu gabe

Hortxe ditugu Eguberriak... eta buruhauste zaharrak. Ospatu bai, ongi eta goxo, baina ekonomia errealak ematen dituen posibilitateetatik atera gabe. Asmo eta helburu hori jartzen dute urtero etxe aunitzetan, eta aurtan ere ez da bertzela izanen.

Krisiak eta ezkortasun giroak arrasto sakona utzi dute, eta utziko ere aitzinera begira, seguraski, eta handik eta hemendik zertxobait aurrezteko nahia eta premia agertu da familia gehienetan. Aurtan ere, beraz, orain artean bezalatsu, buruarekin planifikatu beharko ditugu besta egun horiek, bihotzarekin baino gehiago. Nola, ordea? Eguberri garaian, nagusiki hiru sailetan banatzen da kontsumoa: otorduak, parranda edo irteerak eta opariak. Aholku batzuei segituz gero, lortuko dugu horietan guztietan guttiago gastatzea, eta pixka bat gehixeago saiatuz gero eta etxean arreta gehixeagorekin ibiliz gero, energia guttiago kontsumitzeko modua ere aurkituko dugu.

Otorduak

Kontsumoaren ikuspegitik, eta urte osoa kontuan hartuta, Eguberrietan egiten du jendeak gasturik handiena. Ospakizun horien berezko ezaugarri bihurtu da ia dirua gastatu beharra. Otorduetan, adibidez, neurriz kanpoko betekadak egiteko joera izaten da, eta jatekoak eta edatekoak ez dira izaten nolanahikoak. Jokabide desegokia da hori —are gehiago krisi garaian—, eta 'dirua botatzea' ere badela iruditzen zaio aunitzeri. Hona hemen zenbait aholku gauzei eta diruari neurria hobeki hartzeko:

- **Erosketak lehenagotik egin:** erosketarik garrantzitsuenak ez dira utzi behar azken egunetarako, eta era horretan, % 40raino aurreztuko dugu zenbait produktutan. Itsaskia, arraina eta haragia (bildotsa, adibidez) aunitz garestitzen dira abendua aitzinera doaien neurrian.
- **Ez gara bizi bildots hutsetik:** bisigua, legatza edo bildotsa, izen eta ospe handiko jakiak dira, baina garestiak ere bai; diru guttixeagorekin ere presta litezke otordu aski goxoak: oilaskoa, pularda (oilo gazte gizendua) edo untxia, ongi maneatuta, ia edozeren pareko platerak dira. Errezeta erakargarri bat aurkitzea izan liteke gakoa.
- **Etxeako postreak:** badirudi ez dagoela Eguberriak mazapan, turroi, polboroi eta gisakorik gabe, eta etxe aunitzetan hala dela dirudi, gainera, jatekoetan gastatzen dutenaren % 10 joaten zaie eta gozo horietan. Dirua aurrezteko, ideia ona izan liteke postreak etxean prestatzea. Jarduera polita izaten da haurrekin egiteko, eta mahaira ateratakoan, jendeak gustura hartuko du beti-betikoa ez den hori.

- **Hestebeteak:** Eguberrietan ohikoa izaten da urdaiazpikoa erostea edo solo-moaren eta txorizoaren gisako hestebeteak. Baina nola aurreztu, horiek derrigorrezko iruditzen bazaizkigu? Aukera on bat izan liteke erdi-onduta erostea produktu horiek, eta etxean bukatzea ontze-prozesua. Horretarako, jakina, leku egokia behar izaten da, sotoa edo ganbara modukoa; % 30 merkeago aterako litzaizkiguke era horretan.





- **Menuak planifikatu:** Baliagarria izaten da ahalik eta kalkulurik zorrotzenak egitea. Zenbat eta zehatzago kalkulatu, orduan eta janari guttiago geldituko da soberan. Guzti-guztia jaten ez bada, bertze otordu batzuetarako utz liteke.

Parrandak, bestak edo irteerak

Eguberriek irauten duten egunetan, ez da falta izaten parrandarik eta ospakizun-bestarik, eta horietan, ura iturritik bezala joaten da dirua. Nola guttiatu gastua eta nola ateratu ahalik eta etekinik gehien diruari? Hona hemen aholku batzuk:

- **Besta, etxean:** kanpoan ospatu beharrean, etxean egin dezakegu ospakizun-besta; atseginak izaten dira, jende pilarik gabeak eta aunitzez merkeagoak. Gabon gaua etxean ospatzea, adibidez, lagunak bilduta eta jolas batzuk prestatuta, % 80 merkeago aterako litzaiguke ostatzuz ostatu ibiltzea baino. Urtezahar gauean ostatuak-eta antolatzen dituzten kotilloi ospakizunetara sartzeko, adibidez, eta nahi adina edan ahal izateko, 60 euro ordaindu behar izaten dira. Diru horrekin baino guttiagorekin, aski gauza politak antola daitezke etxean, hainbertzeko jendetzarik gabe.
- **Harri batez, bi kolpe:** kanpora ateratzeko grinari eutsi ezin bazaio, ideia ona izan liteke irteera horiek opari gisa erabiltzea. Ikuskizun batera joan gaitezke bilobaren batekin edo ilobaren bat hartuta. Hartara, kanpoan ospatuko genuke, eta ez genuke izanen oparitan gehiago gastatu beharrik.
- **Dena doan:** zenbait museok eta ikuskizunek prezio murriztuak izaten dituzte egun jakin batzuetan, eta doan sartzen ere uzten dute. Egundoriek erabil ditzakegu familiako norbaitekin joateko. Zenbaitetan, gisa horretako irteerak edo egun-pasak gustagarriagoak gertatzen dira opari materialak baino.

Opariak

Oparien atalak eramaten du dirurik gehien Eguberrietan. Familia aunitzek, izan ere, aukera horixe baino ez dute izaten senitartekoei eta lagun hurbilei zerbait egiteko. Horregatik, egoera ekonomikoa on-ona ez izan arren ere, ohitura horri eutsi nahi izaten diote, barren-barrenetik ateratzen zaie eta. Baina, zer egin daiteke diruz estu eta larri gabiltzanean? Hona hemen proposamen batzuk opari:

- **Eskulanak:** erosi beharrean, norberak egin ditzake opariak. Bizkotxo eder bat egin dezakegu etxean, margolan bat, lepoko bat... Sentimendu-balio handiagoa izaten dute opari horiek.
- **Birziklatzea eta kultura berdea:** jostunik ospetsuenek eta margolaririk abangoardistenek ere birziklatzeari ekin diote beren lanik berritzaileenak egiteko, eta ideia ona izan liteke Eguberrietako oparietan dirutza handirik gastatu beharrik ez izateko. Itxuraz deusetarako balio ez duten materialekin opariak egitea jolas polita izan liteke, originala eta aski merkea. Freskagarri latekin eta brickekin, esku-zorroak edo diru-zorroak egin ditzakegu; toallekin, jakak... Irudimena erabiliz, edozein ontzi, metal edo oihal bihurtu liteke opari. Jendeak aunitz maite du arropa oparitu diezaioten, eta, beraz, aukera ona da hori, kultura berdearen aldeko apustua egin eta jantzi polit, ekologiko eta berezi-berezi bat egiteko.
- **Finantza-produktuak:** Eguberrietan dirua eskuan jasotzea ere aunitz gustatzen zaio jendeari. Dirua ematen hasi beharrean, hala ere, egokia izan liteke bankuek-eta eskaintzen duten finantza-produktu erakargarrien bat bilatzea. Kontu korrante bat irekitzea, inbertsio-funts bat edo akzio pakete bat erostea, ideia ona izan liteke likidezia beharra duen senitartekoren bat harritzeko. Produktu horiek, gainera, aukera ematen dute diru horren balioa handitzeko. Haurrentzat izaten diren kontu korranteak ere badaude egun, eta ohitura bihurtzen ari da Eguberrietan halakoak oparitzea.

GIZARTEA

HEDABIDEAK → NAFARROAKO EUSKARAZKO HEDABIDEAK EGOERA LARRIAN

2012ko murrizketak hurrengo urteetan ere ezar ditzakeela dio Euskarabideak

Ortziral honetan agerraldia egingen dute euskarazko hedabideek Parlamentuan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernutik datozen berriak gero eta ilunagoak dira eta Nafarroako euskarazko hedabideen panoramak ez du itxura onik. Aitzineko alean aipatu bezala, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen dirulaguntza gero eta urriagoak desgertarazi egin nahi ditu heldu den urtean, baldin eta Gobernuak 2012rako egin duen aurrekontu proposamena onartzen bada. Eta itxura guztien arabera, onartu egingen da proposamen hori. Izan ere, Bilduk, NaBai 2011k eta Ezkerrak hurrengo urteko aurrekontuetan euskarazko dirulaguntzei eusteko eskatuz, zuzenketak aurkeztu zituzten,



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Euskarazko hedabideak dirulaguntzarik gabe utzita kolokan geldituko dira.

baina guztiak gibelera bota ditu UPN-PSNk. Gainera, 2012ko murrizketak datozen urteetan ere ezar daitezkeela adierazi du Maximino Gomez Euskarabideko zuzendariak.

Ez hori bakarrik. Aurtengo dirulaguntza ere airean dago. Nafarroako Gobernuak adjudikatutako aurtengo dirulaguntzen bigarren zatia osorik kolokan egon daiteke. Hasiera batean, «aurrekontuak doitzeko» bigarren zatia- ren %35 murriztuko ze-

ZUZENKETAK

Bilduk, NaBai 2011k eta Ezkerrak 2012ko aurrekontuetan euskarazko dirulaguntzei eusteko eskatuz aurrekontutako zuzenketak gibelera bota ditu UPN-PSNk.

la erran zuten Euskarabideetik, eta orain, bigarren zati hori %100ean desagertzeko aukera mahai gainean paratu dute.

Euskarazko hedabideentzako sosik ez, eta

bitartean, Nafarroako gaztelaniazko hiru telebista kate pribatuentzat –Canal 4, Canal 6 eta Popular TV– 2.450.000 euroko diru saila aurreikusia dago, eta urteetan 3 milioi euro banatu izan ditu hiru telebista horien artean. Euskarazko hedabideentzat, berriz, 230.000 euroko partidak izan dira urterik onenean hamai- ka komunikabideren artean banatzeko. Gisa berean, adierazgarria da, Gobernuak publizitate instituzionalean

gastatzen duen %99 baino gehiago gaztelaniazko hedabideetan gastatzen duela.

Egoera beltza ikusita, Nafarroako euskarazko hedabideak alderdi politikoetako ordezkariekin eta Nafarroako Arartekoarekin bildu dira. Horrez gain, ortziral honetan, abenduak 16, Nafarroako Parlamentuan solastuko dira, euskarazko hedabideen egoeraren berri emateko eta UPNk hartzen dituen erabaki politikoak Nafarroako euskaldunak bigarren mailako herritarrak bilakatzeko ekidin dezaten eskatzeko. Horrekin batera, 2012an hedabideetan euskara sustatzeko 650.000 euroko partida eskatuko dute, eta horietako %80 guttienez euskara hutsez lan egingen duten medioen artean bana dadila. Bide batez, lankidetzarako prest daudela jakinaraztera ere joanen dira euskarazko hedabideak ortziraletan Parlamentura.



UDALA → BANDO BIDEZ JAKINARAZI DU

Su egur loteak etxera eramateko aukera eskainiko du aurten ere Udalak

Interesatuak
ortzirala baino
lehen 012ra
deitu behar du

TTIPI-TTAPA

Jende aunitzek su egurren loteak atera eta etxera garraiatzeko zailtasunak dituela ikusita, herritarrei bertze aukera bat emanen die Udalak, loteak aprobetxatzeko. Aitzineko urtean bezala,

Udala arduratuko da zuhaitzak bota, egurra atera eta eskatzaileak nahi duen tokiraino garraiatzeaz. Pista bazterrean utzi edo etxeko atariraino eramanez lukete, eskatzaileak nahi duen bezala. Loteak borts tone-ladakoak izanzen lirateke eta 200 euro ordaindu beharko lirateke horretarako.

Interesatuak 012ra deitu behar dute ortzirala, hilak 16, baino lehen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kafe-antzerki zikloak eman du aurtengoa

Kafe-antzerki zikloaren XIII. edizioaren barne, antzerkiaz gozatzeko aukera izan da azaroan, Osoron, Txirene eta Xagu taldeekin. Argazkian ikus daitekeen bezala, herritarrek zein kanpotik etorritakoek ez diete hutsik egin hitzorduei.

Izen-abizenak, telefonoa eta lotea eraman behar den lekua jakinarazi beharko dira deitutakoan. Loteak esleitutakoan, 012 bidez deituko da ordainketa egiteko eta ondotik banatuko dira.



ARGAZKIA: MUSIKA ESKOLA

Ikasketei dagokien diploma jaso dute Musika Eskolako ikasleek

Azaroaren 22an, Santa Zeziliako kontzertua eskaini zuten Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako ikasleek gitarra, pianoa, bibolina, txistua eta trikitixa doinuekin. Baina horrez gain, diploma eta lore bana jaso zuten ikasleek, beraien ikasketen adierazgarri. Azaroaren 30ean, berriz, saxofoi, klarinete eta tronpetaren entzunaldia eskaini zuten Musika Eskolako ikasleek.

Mugikortasun plana

Mugikortasunaren gaiarekin lanean segitzen du Udalak. Joan den urteko irailean, ituna sinatu zuen herriko hainbat eragilarekin elkarlanean. Handik Mugikortasunaren Planaren proposamena etorri zen eta orain, irailaz geroztik, herriko elkarte eta ikastetxeekin eztabaidatzen ari da Udalak, testua itxi eta egitasmoak martxan parartzeko. Aparkatzeko eta abiaduraren inguruan neurri batzuk hartuko dira, seinalizazioa ere ho-

betu nahi da, espaloietako oztopoak kendu...

Ezkontzetan bizikidetza zuzena

Ezkontzetan bizikidetza zuzenerako hitzarmena onartu du Udalak. Bortzirietako Mankomunitatean lanean dagoen Kontziliazio eta Berdintasun taldean landutako gaia da eta akordioan etxeko eta familiako ardurak banatzeko konpromisoa hartzen da. Hala, ezkontzen edo izatezko bikoite egiten direnei proposamen hau eskainiko zaie.

**larun-
haizpe**

**etxetik kanpo
bidaltzen
zaitu...**

ESKERRIK ASKO
gure herria
bark momentzen
laguntzeagatik
eta gure herrietan
lan egin eta biziak
osatu emateagatik

...LANZAROTE...

**ABENDUAREN 15etik
URTARRILAREN 5era**
egindako eraketa bakoitzan
saxofoi, klarinete, bibolina, txistua
eta trikitixa doinuekin

BORTZIRIAK

ERREPIDEAK → N 121A ERREPIDEA

Berako sarrera-irteerak hobetzeko biribilgunea egitea proposatu du Udalak

Gobernuko ordezkariekin bildu dira Bortzirietako udal arduradunak

TTIPI-TTAPA

N-121-A errepidean, Alkaiaga inguruan Berako sarrera-irteeren arriskuari soluzio bat eman nahizik, Anai Astiz Nafarroako Gobernuko Sustapen eta Etxebizitza kontseilaria, Camino Bonafaux Herrilantako zuzendari nagusia eta Bortzirietako udal ordezkariak azaroaren 21ean bildu ziren Beran.

Berako sarrera-irteerarako, Nafarroako Gobernuak zazpi proposamen ezberdinen artean 1,2 milioi euroko aurrekontua duen enlaze-erdia onetsi du, bertze gauzen artean Alkaiagako tunelari zati bat ere gehitu beharko liokeena, Beratik Iruñerako irteera gaur egungo tunelaren gaineko aldetik altuera hartuz proposatzen baita, N-121-A errepideko bi erreiak gurutzatu beharrean. Berako Udalak, ordea, bertze proposamen bat dauka: biribilgune bat egitea.

Gobernuko ordezkariak garbi adierazi zuten 2012an ez dela lan honetarako aurrekontu-ata-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Bortzirietako udal ordezkariak azaroaren 21ean bildu ziren Anai Astiz kontseilariarekin eta Camino Bonafaux Herrilantako zuzendari nagusiarekin.

lik izanen, eta beraz, 15 hilabetez ahalik eta soluziorik egokienazekin den aztertzeko eztabaidatzeko prest azaldu ziren. Beti ere, bide segurtasunari lehentasuna eman behar zaiola jakinarazi zuten Astiz eta Bonafauxek, Alkaiagako tunelaren hurbiltasuna eta bideak hartzen duen trafiko handia ikusita. Beratik proposatu den biribilgunea ere faktore aunitz daukela ere aipatu zuten, hala nola, zubia, desnibela, lanean ari den harrobia...

Camino Bonafauxek Gobernutik aurkeztu den aurrekontua «ez dela ga-

restia» adierazi zuen, baina gaineratu zuenez, «obra konplikatu da, tunel zati bat gehitu behar delako, erreka ere ondorian dagoelako, desnibel handia duelako eta paretak ere behar izango liratekeelako, ongi segurtatua».

Berako udal ordezkariak, «kontsentsua» ere nabarmendu zuten: «kontsentsua bilatu behar dugu Bortzirietako ordezkariak, beratarrek ez ezik Bortzirietako bizilagunek erabiltzen baitute, zerbitzu aunitz Beran daudelako eta egitasmoak hartzen duen

eremua Lesakan dagoelako». Gainera, industria eta etxebizitzetarako sarrera-irteera ere bada bidegurutzea.

Guraso Eskola

Barbie alaba eta Rango semea eduki nahi al dituzu? Izenburu hori duen hitzaldia emanen du Marian Moreno hezitzaileak abenduaren 19an, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik. Berako Kultur Etxean izanen da, 18:00etan, eta Haur Txoko zerbitzua ere eskainiko da. Izen-ematea 948 635036ra deituta.

BAR RESTAURANTE EVSKALDYNA
Bidasoa 5, BERA
T. 948 630 392 - 948 630 907

URTE ZAHARREKO AFARIA

Kastarretan bustina
Frisco maitatzen duena
Frisco eta anaiak dituen hantza kuxerak
Itas fruitu-antolatza
Frisco Xilantzen txipiz-oliarrekin
Ostiaurreko flashkastak
Lanari ondoan sartzen
Asteazkeneko txipiz-oliarrekin
Tarta txikiak
Asteazkeneko txipiz-oliarrekin
Asteazkeneko txipiz-oliarrekin
Asteazkeneko txipiz-oliarrekin
Asteazkeneko txipiz-oliarrekin

okaNe
HARATEGIA / URDATEGIA
T. 948 630 018
Kastarretan bustina

BIDASOA
T.F. 859 971 442
BERA

MARTIKO
Martiko
P. 948 630 018
T. 948 630 018
F. 948 630 018
www.martiko.com

abenduak 17 + abenduak 24
goizeko 9:00etik 13:00etara

BOZZAIDS
BOZZAIDS

IRU BIDE
IRU BIDE

UDALA → AZPIEGITURAK

Zola berritu eta sareak aldatzeko lanak aste honetan hasiko dira

Sasoi enpresak arduratuko da obrak egiteaz

TTIPI-TTAPA

Sareak aldatu eta zoladura berritzeko lanak aste honetan hastekoak dira. Sasoi enpresak eginen du obra, Udalak egindako deialdian aurkeztutako bederatzi eskaintzen artean, balorazio altuena lortu duenak. 370.266,66 eurotan (BEZ gabe) egingen dira.

Hainbat zatitan egingen dira lanak eta egun hauetan egingen diren prestaketan ondotik, urtarilaren 9an Herriko Etxe inguruan hasiko dira eta otsailaren 21era bitarte hor ariko dira. Otsailaren 22tik martxoaren 9ra Xubixabal alderdian egingen dituzte lanak eta otsailaren 29tik martxoaren 6ra Kanttonberrin ere ariko dira.

Udaletik jakinarazi dutenez, obra hauek nolako eragina izanen duten

ikusi nahi da, gero herri-tarrein bilera egin eta azaltzeko, «batez ere Herriko Etxe ingurukoe-kin eta Eztegarakoe-kin», adierazi digu Marisol Taberna alkateak.

Arropa trukea

Etxean soberan dauden arropari probetxua ateratzeko asmoz, arropa trukearen azoka antolatu du Kaxerna Gaztetxeak. Asteazkenetan (18:00-19:00) eta ortziraletan (19:00-20:00), egingen da azoka, eta mota guztietako arropak balio du, jantziak aprobetxatu eta trukea bultzatzea baita helburua. Gainera, doan izanen da.

Urtarilera arteko ortziralen batean norbait azokan arduradun gisa aritzeko prest badago, idatzi kaxerna_gazte_txea@hotmail.com-era.

Euskararen Eguna

Hilaren 5ean, Euskararen Eguna ospatu zuten Ricardo Baroja eskolan, hainbat jarduerekin.



ARGAZKIA: SONIA ITURRIA

Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna Toki Ona institutuan

Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen azaroaren 25a, eta eguna modu berezian izan zuten gogoan Toki Ona institutuan. Aste horretan talde bakoitzak tutoretza orduan gaia landu zuen: bideoak ikusi, mahai-inguruak, lazoak prestatu eta talde bakoitzak lelo bat prestatu zuen. Guztien artean pankarta haundi bat ere osatu zuten eta azaroaren 25eko atsedendian patioan zintzilikatu zuten –argazkian-. Egun horretan, morez edo lilaz jantzita joan ziren irakasle zein ikasleak.



ARGAZKIA: LABIAGA IKASTOLA

Urteko azken eskola egunak Labiaga Ikastolan

Abendua ekitaldiz beteriko hilabetea izaten ari da Labiaga Ikastolan. Hilaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, aste berezia prestatu zuten. Horren barne, Lesaka eta Elizondoko ikastolekin elkartu eta *Ikaspiotan* aritu ziren. Bezperan, jaialdi ederra izan zuten. Eta Eguberrietarako, gurasoek Olentzeroak egin dituzte, tartean, Mari Domingi ere bai. Bertetik, Lesakako ferietako **boletoen zenbaki sariduna** 266 zenbakia dela jakinarazi dute. Saridunak 948 630172ra deitu.

Toki Onako boletoak

Toki Ona institutuko Eguberrietako zozketaren zenbaki sarituak ikas-

tetxeko web orrialdean zintzilikatuko dira aste honetan, eta sarituak 948 625000ra dei dezakete.

Bide batez, institututik eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eman duten guztiei.

Urte xaharra Churrut Hotelean, bai ederkiz?

oh
HOTEL CHURRUT

Foruen plaza • BERA • T. 948 62 55 40
www.hotelchurrut.com

2011. Urtezahar Gaueko Menua

*Urteazahar liberekin
Entsalada exela plantxan egindako txipiroekin*

Labean erretako obabando erdia maiziere saltzarekin

Ido-espigazuna foie freskoarekin

*Etzako hostore-tarta
Eguberrietako jarririk*

Mahatsak, botillo polita, ura, ardoa, urra eta kafai burra

Prezioa: **70€ + BEZ (IVA)**

ENPRESA BAZKARIAK, EGUNEKO MENUA ETA BANKETEAK

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

BAR BOTXO OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

LEHIAKETA → HORIETATIK 105 ZALTABEREAK ZIREN

154 azienda plazaratu ziren feria egunean

Lehen aldiz
pottoka,
montura eta
ponni
onenarentzat
sariak izan dira

Aitor AROTZENA

Guzira 154 azienda aurkeztu ziren azaroaren 24an azienda feria, horietatik 83 zaldi eta behorak, 22 ponni, 41 behi batzuk bere aretzearekin eta 8 ahari. Giro ederrean joan zen eguna, eguraldiak ere bikain lagundu baitzuen eta jendez gainezka izan ziren herriko karrikak.

Behi azienda lehiaketari dagokionez, suitzen kategorian, 190 euroko lehen saria eta 100 euroko hirugarrena, Gillenbordako Francisco Javier Altzugarainen bi burentzat izan ziren. Bigarren saria, berriz, 160 euro, azken urteetan lehen postuetan ibilia zen Berako Begibeltzeneko-bordako Joxean Igoak eskuratu zuen. Haragitako behien kategorian ez zen ezusterik izan eta joan den urtean bezalaxe, hiru lehenbiziko sariak (hemen ere 190, 160 eta 100 euro) Makukobordako behientzat izan

ziren. Aurtengoan ez zen behi holandesarik aurkeztu eta sariak hutsean gelditu ziren.

Zaldietan, 125 euroko lehen saria Nicolas Larralde aurkeztutakoarentzat izan zen eta bigarren eta hirugarren sariak, 95 eta 50 euro, Iriberriko Jon Muñoa-rentzat. Lehen aldiz, pottoka (100 euro Joseba Irigoienentzat), montura (80 euro Jose Miguel Almandozentzat) eta ponni onenak (70 euro Jaime Etxegarai beratarrentzat) ere saritu ziren.

Zortzi ahari aurkeztu ziren eta 50 euroko lehen saria Miguel Angel Etxegarai beratarrenari egokitu zitzaion, 30 euroko bigarren saria Isabel Larralde lesakarrari eta 20 euroko hirugarren saria Patxi Gortari beratarri.

Baina azienda feriaz gain, karrikek salmenta postuez eta jendez gainezka egin zuten, eguraldi bikaina probetuz. Plazan, aizkoran eta arpanan aritu ziren eta Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolariak ere kantari aritu ziren, preso senide eta lagunek hauen eskubideen aldeko elkarretaratzea egin zuten artean.

Bezperan, Beti Gaztek



ARGAZIAK: AITOR AROTZENA

Itxura ederra hartu zuen plaza inguruak feria egunean, 41 behi azienda, 105 zaltabere eta zortzi ahariarekin. Bezperan, ajoarriero lehiaketan 13 bikotek hartu zuen parte.

antolatutako ajoarriero lehiaketan 13 bikote bildu ziren Beheko Plazan

eta horien artean, iaz bezala, Bortzirietako Go-riak taldeko Juan Igna-

cio Etxepare eta Maite Ortega suertatu ziren irabazle.

XATURETXEA
ZALDIA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

KATTU Taberna - Jantetxea
Urteazaharrean **ZABALIK!**
20€ko MENUAK
Informazio gehiagorako deitu
telefono hauetara:
948 627 573 • 618 735 539

F. LANCHAS
Akudialorea eta berriztatzailea
Parkes eta parket flutatzailen
jartzaia
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 755 M: 607 406 781

EHIZA → USATEGIAK

Sareetan 82 dozena uso harrapatuta bukatu da aurtengo denboraldia

50 lagunek bazkari eder bat eginez eman diote akabera sasoari

Irune eta Itsaso

Ehun dozena uso harrapatzea ezinezkoa izan bada ere, ez da batera marka txarra lortu dutena. Izan ere, kontuan hartu behar da ia sasoia erdia mendealdeko haizearekin joan dela.

Bertzalde, urtero bezala, Pirinioetako Usategien besta ospatzeko zen joan den abenduaren 3an. Aurtengoa, Lanne-ko usategietan tokatu zen eta bertara joan ziren Etxalar-ko usazaleak ere. Elkar-tzen diren usategien artean ranking bat egiten da eta gehien harrapatu dutenei boneta haundi bat eman zitzaion eta guttien harrapatu zutenei boneta txiki bat. Ranking honetan aurtengo irabazlea Lanne izan da, bigarren postuan Na-

phal gelditu da eta hirugarren lekuan Etxalar.

Bisita gidatuak

Aurten inoiz baino jende gehiago animatu da usategietako bisita gidatuak egitera. Datuek horrela erakusten dute. Orain arte, sasoi guztian 200 lagun inguru izaten baziren, aur-

tengoan 320 bat lagun egin dute bisita. Usoarekin nola lan egiten duten zuzenean ikusteko aukera haueta-ko gutti batzuk bakarrik izan badute ere, bisita egin duten guztiak kontent agertu dira.

Bisita gidaturik egin ez, baina usategietara usoa sareekin ehiza egi-

ten ikustera etorri den jende kopuruak ere goiti egin du. Izan ere, eguraldi ona egin baitu ia denboraldi osoan.

Gorrien mus txapelketa

Aurten ere, Bortzirietako gorriek mus txapelketa antolatu dute. Bortz herrietan egingen

dira partidak eta lehenbizikoa azaroaren 25ean Etxalar-ko Herriko Ostatuan izan zen. Bederatzik bikote aritu ziren eta Julen Zubieta eta Beñat Irazokik irabazi zuten. Aitor Telletxea eta Xabier Etxarte izan ziren azpitxapeldunak, hirugarrenak Joseba Aranburu eta Mikel Zubieta eta laugarrenak Beñat Maia eta Aitor Danboriena. Lau bikote hauek abenduaren 25ean 18:00etan Lesakako Koxkila egingen den finalera pasatu dira.

Etxe-ren kontzertua

Larunbat honetan, hilak 17, Etxe kantaria etorriko da Herrikora *Haize berri bat* disko berria aurkeztera. Kontzertua 23:00etan izanen da eta ondotik, DJ Pistols-ek 70 eta 80ko hamarkadako musika jarriko du.

Zinema

Cher ami... eta ni filma ikusteko aukera izanen da hilaren 27an Kultur Etxean, 16:30ean.



ARGAZKIA: JABIER IRIARTE

Blog ikastaroa Kultur Etxean

Abenduaren 15, 16, 19 eta 20an blog-ak nola egin ikasteko ikastaroa izanen da Kultur Etxean. Izan ere, hau da zure elkarte, talde, zaletasuna, iritziz edo kezkek ezagutzera emateko modurik onena. 16:00etatik 18:00etara izanen da, 24 euro ordainduta. Animatu!

%20ko deskontua
eguzki betaurreko
guztietan!!!!

Ostargi optika

Bida Aitola Feynau
Optiko-optometrista
Rd. 2k. 9812

Bidasoa 2 BERA
Tfn: 948 630 753

Lehen
Bideratze
Merkatu
Jarduerak
Prestakuntza

Ichigo Goma

Batasun gunea 30.30750 Lekuak
T: 948 627 514

JARDUEK - GOSTATEGIA

948 630 786
Aitzola 10 • BERA

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK

Kultur Batzordeak eta eskolak ekimen aunitz antolatu dituzte hurrengo egunetarako

Larunbatean eskolako lagunek antzezlanak taularatuko dituzte

Nerea ALTZURI

Urte bukaerako egunetara inguratu gara. Eskolako jarduerak eta Eguberrietako ekitaldiak tarteko, egitarau polita antolatu dute Udaleko Kultur Batzordeak eta eskolak.

ESKOLAN

Astehonetan hondakinei buruzko tailerra egitekoa zen eskolan Nafarroako Gobenuko ingurumen arloak antolatuta. Dagoeneko tradizio bilakatu diren antzezlanek ere euren tartea izanen dute astehonetan. Igantziko eta

Etchalarko lagunen aitzinean erakutsi ondotik, larunbat honetan, abenduak 17, jendaurrean antzerki emanaldia izanen da arratsaldez eskolako gimnasioan.

Eguberri giroan sartuz, berriz, abenduaren 22an, Olentzeroren lagunmina eta mezularia den Mari Domingiren bisita jasoko dute eskolan.

ESKOLATIK KANPO

Horrela, Eguberri bezperara ailegatuko gara. Hilaren 24an, Olentzero ikazkinaren eta Mari Domingiren bisita jasoko dugu herrian. Ongietorria eginen zaie eta musikaz eta kantuz horniturik herriko karriketan barna ibiliko gara. Ondotik, berrendua eta gaztain jatea eginen dira.

Bertzale, arratsalde horretan, 18:30ean triki



ARGAZKIA: SONIA ITURRIA

Genero indarkeriaren aurka herritarrek plazan

Azaroaren 25ean, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, Udalak deituta elkarretaratzea egin zen plazan. Herritar andana bildu zen, emakumeen indarkeriaren kontrako jarrera hartu, indarkeria hori errotik kentzeko konpromisoa bere egin eta egun hortan izandako ekintzetan parte hartzeko Udalak egindako gonbidapenari erantzunez. Gisa berean, Udalak bando bitartez, adierazpen bat egin zuen: Berdintasunaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa adierazten duela, indarkeria sexista mota guztiak prebenitzeko eta ezabatzeko bide gisa. Indarkeria sexista salatu eta muturreko indarkeria horren ondorioz, kolpatutako eta hildako emakumeei elkartasuna adierazi nahi izan die.

kantu poteoa eginen da.

Urte bukaerako egunetan, abenduaren 28an eta 16:30ean, haurrentzako zine emanaldia izanen da.

Abenduaren 30ean, Amaier 1512-2012 Nafarroa bizirik-en eskutik hitzaldia izanen da Ekaitza Elkartean, 19:00etan hasita, eta bukatutakoz, luntxa eskainiko da.

URTEZAHAR EGUNA EKITALDIZ JOSIA

Urteari akabera emateko, abenduaren 31n goiz-arratsaldez ekital-

diak eginen dira. Egun guztian, futbito txapelketako partidak jokatuiko dira frontoian. Taldeak borts eta zazpi lagun bitartekoak izanen dira eta talde bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Izen-ematea abenduaren 26a baino lehen, telefono hauetako batera deituz egin behar da: 627 001380 (Dabit) edo 676 389094 (Andere).

Irabazten duen taldeak sari gisa herriko jatetxe batean afaria hartuko du.

Bertzalde, 20:00etan presoan aldeko giza katea eta kalejira eginen da musikaz alaiturik. Eta gauerdian, 2012. urteari ongietorria emanen zaio.

URTARRILEAN HONDAK EKITALDIAK

Ilbeltzaren 4an, haurrak oporretan daudela aprobetxatuz, film bat emanen da.

Biharamunean, Errege Egunaren bezperan, ohi bezala, erregeen kabalgata izanen da arratsalde-ilunabar aldera.

aterpe
T. 948 636 119
ARANTZA
www.arantzai.net

EMBANDONEA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 • aldea 21-22 • 31780 BERA

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Enpresen eta pertsonen
T. 948 577 131
E-posta: imanol@iturria.com
Eskatu zure kontua konpainia-erik gisa

KOXKONTA Jatetxea
Haurrak eta askeburuak merende,
karta, eskolaz kanpo beraketa,
juventutetarako beraketa
T. 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657
Oñango autoa, 1 • LESAKA

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK

Abenduaren 24ko arratsaldean ailegatuko da Olentzero menditik

2 egun lehenago Mari Domingiren bisita izanen da eskolan

Maidar PETRIRENA

Eguberriak ailegatzear daude eta hori nabari da, prestaketak hasiak baitira. Abenduaren 13an eta 20an, 16:00-etan Beheko Eskolan entsaioak izanen dira Olentzero etortzen denerako.

Abenduaren 22an, urteko azken eskola egunean, Mari Domingi etorriko da eskolara. Eta ezin bada eskola orduetan egin, hurrengo egunean egingen litzateke.

Abenduaren 24an, berriz, urtero bezala, Olentzero menditik etorriko zaigu. Joan den urtean bezala, bi taldetan banatuta egingen da itzulia: 8 urte artekoek eskola aldeko auzoa egingen dute eta haundiek, errepide nagusiko auzoa. Ondotik, berendua izanen da eta Olentzero-

ri gutuna eta muxua emateko aukera izanen dute neska-mutikoek.

Artista gazteak

Malerrekako ipuin lehiaketako bortz sarie-tatik hiru lehenbizikoak hiru sunbildarrentzat izan dira: 3. mailako Ekaitz Bertizek *Arraioz eta izarrak* ipuinarekin lortu du lehenbiziko saria, 4. mailako Josune Madariagak *Alejandra eta kiev*-ekin eta 4. mailako Uxue Prietok *Alejandra eta zaldia* lana-rekin. 5 eta 6 mailakoek bertso paperan parte hartu zuten, honetan ere lehenbiziko saria herri-tar batek eskuratuz: Junkal Martiarenak.

Lerro hauen bitartez, zorionak artista hauei eta segi horrela. Epai-mahaikide batek aipatu digunez, ipuinak oso politak eta maila onekoak dira eta gainera, lehenbiziko saria lortu duena 3. mailakoena da, epaimahaiak liluratuta utzi dituenak. Eskola tti-



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Neska-mutikoak ilusioz egoten dira Olentzeroren esperoan. Argazkia iazkoa da.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Kinto bestak

Azaroaren 26an kinto bestak ospatu ziren Ariztigain kanpinean, zehazki, 1945, 1946 eta 1947an jaiotakoena.

kiek ere merezi dute aipamena, laugarren saria Iturengo eskolara joan baita. Zorionak!

Bai Euskarari Ziurtagiria

Azaroaren 25ean Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa egin zen Malerre-

kako Mankomunitatean. 40 entitatek jaso zuten Ziurtagiria eta horien artean, Sunbillako hauek: Ariztigain kanpina, Marisol Janari-denda, Maria Jesus harategia, Fonda ostatua, Ulibeltzak Elkar-tea, Sasoi Eraikuntzak, Nafarroako Herri Kirol Fe-

derazioa eta eskola.

Kanpina itxita

Abenduaren 10ean egitekoa zen Ariztigain kanpinean denboraldi bukaerako besta. Bide batez, aipatu, kanpina itxita egonen dela hilaren 23tik urtarilaren 8ra.

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

ikusi-makusi
• ONDORU OLAGARRIEN LESTERAK •
• JASOTZEN DUTEN GABONETARAK •

ALURRERATU ZAITEZ GABONETARAK!
Eragotzi hilara nekartsuak
eta azken momentuko prisak
Zatoz, sartu eta ikusi
Hartituko zara!

www.ikusi-makusi.net

ORDUTEGIA: astelehenaetik larunbatera 10:00-12:30 | 14:30-20:00
Kalea: Pasa-diegua • Etxeak: Etxeak • 5020X BILBO • 945 413 380

EUSKARA → ZIURTAGIRIAREN BANAKETA

40 entitatek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagia

Zazpi entitate
berrik bat egin
dute
egitasmoarekin

TTPI-TPA

Alberto San Migel Ma-
llerrekako Mankomuni-
tateko lehendakariak,
Patxi Mariezkurrena Ma-
llerrekako Euskara Ba-
tzordeko buruak eta Ar-
kaitz Illarramendi Ziurta-
giriaren Elkarteko orde-
zariak gidatu zuten aza-
roaren 25ean Malerreka-
ko Euskara Mankomu-

nitatearen egoitza berri-
an egindako Bai Euska-
rari Ziurtagiriaren bana-
keta ekitaldia. Guztira,
40 enpresa, komertzio
eta bertze entitateek ja-
so zuten Ziurtagiria.

Mankomunitateko eragileak gustura agertu ziren, hamarretik zazpi berritu baitute iaz Ziurtagiriarekin sinatutako konpromisoa. Gisa berean, nabarmentzeko da zazpi entitate berrik bat egin dutela egitasmoarekin: Artalea, Arrate Estetika, Ainhoa ile-apaindegia, Ogi-Berri,



UTZITAKO ARGAZKIA

Bai Euskarari ziurtagiridunak azaroaren 25eko banaketaren ondotik.

Sasoi Eraikuntzak, Zergalan eta Iturengo Herriko Ostataua. 40 Ziurtagi-
rietatik hamaikak *Zerbitzua euskaraz* maila lor-
tu dute eta gainontzeko
guztiek *Bidean* maila.

Alberto San Migel lehendakariak Ziurtagiria jaso duten entitateak zoriondu ondotik, norabide berean «urrats biziak» ematen segitzera animatu zituen. Eta Mankomunitateak euskaraz bi-

zitzeko hautua egiten duten herritarrei aukerak eta erraztasunak ematen segitzeko konpromisoa mantenduko duela azpimarratu zuen.

Patxi Mariezkurrena ere pozik agertu zen. Bere iritziz, Ziurtagiriaren banaketa ekitaldiak agerian uzten du Malerrek 2009an martxan jarritako Euskaraz bai dinamika «osasuntsu» dagoela. Malerrekako entitate, en-

presa eta komertzioei dei
egin zien aurrerantzean
euskara erabiltzen segi
dezaten bere egunero-
koan: «Euskaraz bizitze-
ko jarrera gure egin eta
indartuz gero, euskara-
ren normalizaziotik ger-
tuago egonen baikara».

Ekitaldia akitu baino lehen, Arkaitz Illarramendi Ziurtagiriaren Elkarte-ko ordezkariak eskerrak eman zizkien Ziurtagiria jasotzera hurbildutakoei.

Zatoz IRUNera eta disfruta ezazu egun ahaztezin batez

IRUN ZATOZ!

Erosketen, aisialdiaren eta kulturaren hiria

1.250 denda baino gehiago eta horietan denetik aurkituko duzu

Jarduera onitzai, haren artean gehien gustatzen zaitzuna aukeratu ahal izango duzu: musika, danza eta kaleko giroa, Eguberrietako Haur Parkea, falterak eta askoz gehiago ere.

SENS IRUN
esperientzia gogoangarri bat

Aurreliko izen ematea:
943 02 07 32
turismo@irun@bidatoo-activa.com

APARKALEKU ORDU 1 DOAN*
Irunek 1.000 aparkaleku plaza baino gehiago eskaintzen dituzte hiria-erdialdean (5 aparkaleku) 24 orduz erabilgarri.

Eskeintza baldagarria da auzotarren %14.30ek, iragarki hau baino lehen aparkalekua edo Mendebaldeko Duintasun Agintariaren aurkikuntza (abenduaren 2018. urteaz geroztik) baliagarria izan ez balaketa.

Informazio gehiago www.irun.org/turismo web orrian

DONEZTEBE

KIROLA → LARUNBAT HONETAN MENDIAREN EGUNA

12 zortzimilako igo dituen Pauner mendizalea Mendiaren Egunean izanen da

Horrez gain, mendi irteera, poteoa eta bazkaria eginen dira



ARGAZKIA: ZALDUA

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, Mendiaren Eguna antolatu du Erreka Kirol Elkarteak larunbat honetarako, abenduak 17. Horren harira, egun oso-rako ekitaldiak prestatu dira. Goizean, ohiturari segituz eta 07:30ean abiatuta, mendi irteera eginen da Leurtzako zir-kura, eta bide batez, Errekak Bonozorrotz mendian duen buzoia bisitatzeko aprobetxatuko da ateraldia.

13:00etan mendizaleen poteoa eginen da eta 14:30ean bazkaria Kasino elkartearen. Interesatuek Titi Ostatuan eman behar dute izena ortziral hau, abenduak 15, baino lehen.

Arratsaldekoa ere aipatzeko moduko ekitaldia da. Izan ere, 12 zortzimilako igoak dituen

Erreka Kirol Elkarteak azaroaren 26an egin zuen eskubaloiko talde guztien aurkezpena. 130 jokalar pasatu ziren kiroldegitik.

Carlos Pauner (1964, Jaka, Espainia) mendizaleak hitzaldia eskainiko du zineman, 19:30-etik aitzinera.

14KOA OSATZEKO BI FALTA

Mendizale espainiarra 15 urte zituela hasi zen mendian eta eskalatzen, eta 17 urte betetzerako zailtasun haundiko paretak egiten hasia zen. Himalaya aldean ere aunitz ibilia da eta erran bezala, 12 zortzimilakoen tontorrak zapalduak ditu: K2 (8.611 m), Kangchenjunga (8.586 m), Lhotse (8.545 m), Makalu (8.462 m), Cho Oyu (8.201 m), Dhaulagiri (8.167 m), Manaslu (8.163 m),

Nanga Parbat (8.126 m), Annapurna (8.091 m), Gasherbrum I (8.068 m) eta II (8.035 m) eta Broad Peak (8.047 m). 14 zortzimilako egiteko falta zaizkionak Everest (8.848 m) eta Shisha Pangma (8.027 m) dira.

SASKIAREN ZOZKETA

Mendiaren Egunean, Errekako saskiaren zozketa ere eginen da, 13:00etan elkartearen egoitzan.

Urteko azken eguna kirola egiteko

Urteroko ohiturari segituz, Erreka Elkarteak kirola eginez akituko du urtea. Goizean Mendaurrea igoko dira, eta horretarako 07:30ean

egin dute hitzordua autobus geltokian. Behin tontorrera ailegatuta, 10:30ean aterako dute taldeko argazkia.

Arratsaldean Doneztebeko San Silvestre lasterketa eginen da aurten seigarren aldiz. Gero eta indar haundia goa hartzen ari da eta horren seinale, joan den urtean 164 korrikalari biltu zituen lasterketak, 75 haur eta 88 haur. Guztiz herrikoia bihurtua da, giro ederra sortzen baita, eta aurten ere horixe da asmoa.

Haurrak izanen dira itzulia egiten lehenbizikoak. 18:00etan buelta bat emanen diote ibilbideari eta ondotik, helduek lau kilometroko

ibilbidean laister eginen dute. Udaletxe atarian hasi eta akituko da lasterketa eta ibilbide guztia herrian barna izanen da. Garaileentzat sariak izanen dira eta horrez gain, korrikalari guztien artean opariak zozketatuko dira.

Futbol-zelaiaren inaugurazioa

Abenduaren 8an egitekoa zen futbol-zelai berriaren inaugurazioa. Hasteko, argazkia egiteko zuten futbolari guztiek, gero inaugurazio ofiziala eta ondotik, partidak jokatzekoak ziren Osasuna indoor, Reala indoor eta Doneztebe taldeen artean. Luntxa ere antolatua zuten.

APARAN, S.A.

ERIKOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukaide mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Banurako mogleak eta osagariak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

Guro Haragia
Nuestra Carne

EGUBERRIAK → SAN MIGEL ESKOLAKO EKITALDIAK

Herrian barna kantu kalejira egingen dute eskolakoek abenduaren 22an

Zikloka banatuko dira eta Olentzero eta Mari Domingirekin aterako dira

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako oporrrak hartu aitzinetik, San Migel ikastetxeko ikasleek Olentzero eta Mari Domingiren konpainian pasatuko dute aurtengo azken eskola eguna, abenduaren 22a. Aurtengoa, gainera, berezia izanen da. Izan ere, urtero, azken egunean jaialdia egin izan da, baina aldi honetan egitaraua aldatzea erabaki da eta bertze zerbait egingea.

Eskolako ikasleak zikloka taldetan banatuta herrira aterako dira. Batzuk San Migel auzora joanen dira, bertzeak Elizagibelara, bertzeak Zazpigurutze... Herrian barna kantari ariko dira eta kalejiraren ondotik, eliza atar-

rian elkartuko dira denak.


Ibilbidea Olentzero eta Mari Domingirekin egingen dute. Eta aipatzekoa da, bigarren eta hirugarren zikloko ikasleek beraiek egindako Olentzeroak eramanen dituztela.

Kalejiraren ondotik, Guraso Elkarteak txistorrada antolatu du eskolan.

Euskal dantzen ikastaroa

Euskal dantzak ikasi nahi dituen guztientzat, ikastaroa antolatu du Erreka Dantza Taldeak. Oinarrizko dantzak erakusten hasiko dira eta ongi pasatzea izanen da bertze helburuetako bat. Urtarrilean hasiko da ikastaroa eta gimnasioan emanen dira klaseak.

Informazio gehiago nahi duenak edo izena emateko deitu 647 569682 telefonora edo idatzi doneztebekodantzariak@hotmail.com helbidera.



ARGAZKIAK: MALERREKAKO GAZTE ASANBLADA

Ernadi Rock jaialdiaren balorazio ona egin dute gazteek

Malerrekako Gazte Asanbladark antolatuta, Ernadi Rock jaialdia egin zen azaroaren 5ean Donezteben eta egunaren balorazio ona egin dute antolatzaileek. Gogotik egin zuen euria asteburu hartan, eta «nahiz eta putzu artean ospatutako eguna izan, jaialdi arrakastatsua izan zen, momentu oro giro paregabea egon zelako», adierazi dute Gazte Asanbladatik. Goizeko argisoinuen ondotik, hainbat jarduera egin ziren hurrekin: jokoak, aurpegi margotzeak, serigrafia tailerra... Tikienekin akitzeko luntxa izan zen. Arratsaldean, kafea eta kopa eskaini zen eta ondotik, gazte olinpiadak egin ziren herrian, trikitilari eta bertsolariekin. Ilunabarrean karpajende zegoela afaria eman zen eta honetara ere jende andana bildu zen. Kontzertuek ere harrera ona izan zuten. Lerro hauen bidez, Gazte Asanbladak eskerrak eman nahi izan dizkiete lagundu eta parte hartu zutenei. Bide batez, gaineratu dute, «egun honetan bizitakoa bertan gelditu ez dadin, ernadi gazte».

Urteko azken besta ospatuko du Arkupeak elkarteak asteazken honetan

Urteko azken besta aste honetan ospatzekoa du Arkupeak jubilatuen elkarteak. Asteazkenean, abenduak 14, egingo dute hitzordua eta egun horretan, ohiturari segituz, 12:00etan meza izanen da aurtengileko bazkiden oroimenez, eta on-

dotik, bertsolarien saioa etorriko da. 14:00etan bazkaria egingen dute kiroldegian, eta arratsaldean, 16:30etik 19:00etara, dantzaldia izanen dute Jalisko Band taldearekin. 19:15 aldera etxerako autobusa hartuko dute bazkideek.

Angie
ENGLISH ACADEMY

University of Cambridge atzerketa
buruzko prentakuntza

Itzulpen lanak egiten dira
Eskola laguntza

AURTEN DSPATZEN DITUGU 20 URTE MALERREKAN

EGUBERRI eta URTEBERRI ON!

Elizagibela, 7 beheko - 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 - angiescademy@gmail.com

ESTIBALIZ
estetika zentrua

T. 948 581 360 | 606 738 406
Xabakortx, 14 - ELIZONDO

DEPILAZIO IRAUNKORRA
LIGHTSHER DIIODO-LASERRAREKIN

Emakumearen gorputz osorako
eskaintza berezia 350€
(Pantak osorik, atzetik, aurretik, bikini eta berrapeak)

Gizonaren gorputzetarako
eskaintza berezia 490€
(Pantak, atzetik, aurretik, bikini eta berrapeak)

Itzerrondoa eta berrapeak 120€

Hanka erdiak 150€

Ezpaingaina 30€

PREZIO GEHIAGO JAKITEKO
INFORMA ZAITEZ KONPROMISORIK GABE

ZUBIETA

AISIALDIA → GAZTEGUNEA

Gazteguneko langileari hilabete honetan akituko zaio kontratua

Hemendik aurrera nola moldatu hitz egiteko bildu beharko dute gurasoek

Bestetik, kontseilua urtero aldatzeko erabakia hartu zen eta kide berririk zein diren ere erabaki beharko da.

Luzaketa ikastaroa

Astean egun batez, luzaketak egiteko ikastaroa paratu nahi da martxan Donamariako Danielekin. Goizez izanen litzateke, ordu bat erdiz, eta Olsenean. Urtariletik aurrera hasi nahi da, baina horretarako, taldea osatu behar da eta norbaitek interesa baldin badu, dei dezala 948 451569 telefonora.

Depuradorara doan bidea

Aurreko aldizkarian, Landa sarreratik depu-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Olentzeroren bisita

Aurten ere, haur, gazte eta gurasoek ongietorria egingen diote Olentzerori abenduaren 24an. Lehenbiziko herrian barna kantari ibiliko dira, eta kalejiraren ondotik, bere astoarekin ailegatuko da Olentzero. Harrera egitera herri bazterre-ra joanen dira herritarrak.

radorara doan bidean or-migoia botatzen Eguberrien ondotik hasiko zirela adierazi genuen, enpresak ere horrela esana zuelako. Baina aldatketak egon dira, eta hilabete hasieran ekin zioten lanei. Aldizkari hau argitaratzerako, beharbada akitua izanen du.

Errotako ordutegia

Errota ohiko ordutegira itzuli da. Langileek

oporak hartu ahal izateko, aldaketa batzuk egin ziren orain hilabete inguru, baina berriz ere lehengora bueltatua da. Astelehenetik ostiralera 11:00etatik 14:00etara egonen da zabailek eta larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Dena den, abenduaren 24an, 25ean, 30ean eta 31n itxita egonen da.

Joaldunak Kantu Zaharren Egunean

Azaroaren 26an egin zen Dantxarinean Euskal Kantu Zaharren Eguna, eta gure herriko joaldunak gonbidatu bereziak izan ziren. Antolatzaileek eskatuta zortzi joaldun joan ziren, eta pozik bueltatu ziren etxera, oso harrera ona jaso zutelako. Horregatik, eskerrak eman nahi izan dituzte.

URROZ

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK

Aurten ere opariz beteta etorriko da Olentzero

Joseba URROTZ

Aurten ere, Olentzeroren bisita izanen dugu herrian. Berekin solastu eta hala baieztatu digu. Joan den urtean bezala, opariak bizkarean hartuta etorriko da eta neska-mutikoei banatuko dizkie. Beraz, gutunak idazten hasi be-

harko da. Beharbada, egun batzuk lehenago-tik bere laguntzailearen bat gutunen bila etorriko da.

Udal berria

Alkate berria aukeratzeko saioa abenduaren 10ean egiteko azen. Lerro hauek idazterako-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

laz, ilundu ondotik ailegatu zen Olentzero, eta herriko gaztetxoek bidea argitu zioten.

an ez genuen azken erabakiaren berririk, baina

aldizkari hau argitaratzerako jakina izanen da

nola osatuko den udal berria.

OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

Kanta artean eginen zaio ongietorria Olentzerori

Azken urteetan,
Olentzeroren
bisita izan dute
Iturenen

Arkaitz MINDEGIA

Pasatu berri diren Kultur Egunek irekitzen dute gurean abenduko hilabete dotorea, eta bertze lekuetan bezala, Eguberrietako usain eta umorea hartzen du.

Eguberriak hotzari aurre eginez, Olentzerori ongiatorria emanez, Urtezahar eta berria ospatuz eta berexia izaten den errege bezperarekin joaten zaizkigu. Ongietorri bikaina ematen zaio Olentzerori Ituren eta Aurtitzen, bate-

an eta bertzean herriari kantatuz buelta emanez. Aurtitzen herriko haur bat gurdi batean dutela ematen dute buelta eta Iturenen astoa eta guzti plazan jaio-tza biziduna egiten dute. Gainera, azken urteetan Olentzeroren bisita jaso izan dute.

Urtezaharra akitu eta mahatsak janez hasten dugu berria. Berexia izaten den Errege Bezpera ere egun polita izaten da. Arratsalde eta gauean joare soinuak entzuten dira gure herriko edozein bazterretan: arratsaldean herriko umeak aritzen dira herriari buelta ematen, Aurtitzen joaldunen atzetik trikitilari gazte-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurtizko gaztetxo hauek ibili ziren joan den urteko Eguberrietan etxex etxe.

txoak ere egiten dute itzulua, eta gauean, berriz, herri afaria egiten da Aurtitzen eta Iturenen. Goizaldera joare soinuak juergarekin tartekatzen dira, eta gauean iturenen musika ere izaten da. Horrelaxe ospatzen ditugu gure herrian Eguberriak. Bertzerik gabe, Eguberri zoriotsuak opa dizkizuegu.

Ibintzako boletoak

Urtero Ibintza Kultur Taldeak boletoak atera izan ditu. Baina aurrean, joan den urteko salmentak eskasa ikusita, bertze modu batera egitea

erabaki du. Iaz adina sari izanen dira, baina boletorik gabe. Lehenbiziko saria herriko komertzioek emandako eta Ibintza taldeak gehituko dituen produktuekin osatutako zarea izanen da; bigarren saria bi afari eta Ibintzak jarriko duen zarea izanen da eta hirugarren saria, Altxunean bi afari.

Lehenbiziko eta bigarren sariak euskal tonbola gisara egingen dira: panel batean ehun zenbaki jarri eta zozketan sartu nahi duenak zenbakia erosi bertzerik ez du egin beharko. Erran, lehenbiziko saria Arizte-

gi harategian egonen dela eta bigarren saria Herriko Ostatuan. Hirugarren saria, berriz, Errege bezperako afarian zozketatuko da.

Hauteskundeak

Azaroaren 20ko hauteskundeetan talde bakoitza aurkeztu zen Ituren, Bildu. Kanpainako azken egunean aurkeztu zuten taldea bertso eta trikitixa doinuekin, beraien ideiak herritarren aitzinean azalduz, eta babes haundia jaso zuten hauteskundeetan. Orain, gogotsu hasiko dira udal berria martxan jartzen.

PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informazaituz!!

Kolon Pasealekua, 64 beheak • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psikobide.com



**PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!**
Garrin arazi taldea

GIZARTEA → 'BERTZEAREN LARRUAN JARRI' LEHIAKETA

Bideo lehiaketako sariak banatu ditu Bidelagun Elkarteak

Hamar lan aurkeztu dira

TTIPI-TTAPA

Bidelagun elkarteak boluntarioria eta solidartatearen inguruan *Bertzearen larruan jarri* bideo lehiaketa antolatu zuen eta aurkeztutako hamar lanen emanaldia eta sari banaketa azaroaren 30-ean egin zen Beran.

400 euroko **lehen saria** Lekarozko *Wellongi-venido* bideoak eskuratu zuen, Ana Antxorena, Enzo Betancourt, Darwin Cuenca, Sara El Ouardani, Flavio Gonçalves, Tatiana Naula, Christian Orellana eta Victor Soulek egin: «gidoi zoragarriagatik, bideo landuagatik, harrera, solidaritatea eta mezu positiboagatik eta jende aunitz inplika-

tu duelakoz».

300 euroko **bigarren saria** *Superlagun* lanarentzat izan zen, Bera-ko Toki Ona institutuko Igone Salinas, Jennifer Zelaiaeta, Ismael Perez, Jon Santamaria, Idoia Bertiz eta Ainhoa Altzugu-*gurenek* egin: «sormenagatik, umore eta solidaritate mezua uztartzeagatik eta talde lana nabaria delakoz».

200 euroko **hirugarren saria** bi lanen artean banatu zen. Batetik, Lesakako Olaia Otxoteko, Idoia Irazoki eta Johanna Ramirezek egin-dako *¿Y si fueras tú la diferente?* lanari, erre-alizazio lanagatik eta arra-zakeriaren gaia ukitzeagatik. Eta bertzetik, Lekarozko Amaia Loiar-te, Jone Uriarte, Uxo-a Bertiz, Jokin Maia, Jon Zubieta,



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Ikasle sarituak Bidelagun elkarteko Isidro Herguedas, Elkarriazane-ko Alfonso Obeso, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Jokin Apezetxea eta Jorge Diaz Arcelor Mittaleko gerenterekin.

Malerrekako ipuin eta bertso paper lehiaketako sariak banatu dira

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Euskara Batzordeak, Kontseiluak eta Doneztebeko San Migel eskolak *Euskaraz bizi nahi dut* bertso-paper eta ipuin lehiaketa antolatu zuten Malerrekako ikastetxeetako ikasle eta irakasleendako eta azaroaren 30-ean banatu ziren sariak. 3. eta 4. mailakoek ipuinak aurkeztu zituzten eta lehen saria Sunbillako eskolako 3. mailako Ekaitz Bertizentzat izan da *Alejandra eta izarra* ipuinagatik. Bigarren saria Sunbillako 4. mailako Josune Madariagarentzat izan da (*Alejan-*

dra eta Kiev ipuina) eta hirugarren saria ere Sunbillara joan da, 4. mailako Uxue Prietorentzat (*Alejandra eta zaldia*). Laugarren saria Iturengo eskola-ko Haizea Aioroaren *Errumaniatik etorri zen familia* ipuinak lortu du eta bosgarrena Doneztebeko eskolako 3. mailako Aritz Zulaikak *Errumaniar euskaldunak* ipuinarekin. 5. eta 6. mailakoek bertso paper lehiaketa izan zuten eta lehen saria Doneztebeko eskolako Junkal Martiarenarentzat izan da eta eskola eta maila bereko Patxi Martinek aipamena jaso du.

Mikel Sagaseta eta Ander Iraolak egindako *Es-*

kolako Itzala bideoari, «bullyng gaia erre-alismo

eta gordintasunez tratatzeagatik».

60
anfitrión
Casa Cambra
Zure erosketarengatik
urteurreneko oparia

**OPARI PRAKTIKOAK!
ZORIONAK!**

estredoi fiandak • estredoi nortilkoak
ohe estalkiak • albormozak
maindireak • mantelak
kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

GOIZUETA

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO BERTSOLARI GAZTEAK

Xalto sariketaren hamaikagarren edizioa larunbat honetan jokatu da

14 bertsolari gaztek parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Andres Narbarte go-goan, bi urtetik behin egiten den bertsolari berrientzako Xalto sariketa hamaikagarren ediziora ailegatuko da larunbatean, hilak 17. Udaletzeko garban Nafarroako hamaikau bertsolari ariko dira.

11:00etatik aurrera, kanporaketak izanen dira. Bi kanporaketa egiten dira, seiko taldea batean eta zortzikoa bestean. Eta 18:00etan goizeko saioetatik sailkatu diren sei bertsolariek jokatuko dute finala. Sarrera dohainik izanen da.

Eguberriak

Oporrak hartu aurretik, abenduaren 22an Eguberrietako jaialdia egiten dute eskolan. Lehenik, gelaka jokoak egiten dira eta gero, hiru hizkuntzetan Eguberrietako kantak abestuko dituzte herritar guztiei irekia egoten den ekitaldian.

Abenduaren 24ko goizean, berriz, haurrak kalean ibiliko dira eta arratsaldean, herrian barna kalejira egiten da presoen aldeko Olentzerorakin. Ilunabar aldera ongi etorria egiten zaie Olentzero eta Mari Domingiri.

Abesbatzaren emanaldia

Umore Ona Abesba-

tzarentzat urteko emanaldirik berezietakoa den Eguberrietako kontzertua larunbat honetan, abenduak 17, eskainiko du elizan. Ilunabarrean hasiko da saioa eta urtero bezala, Umore Ona koruaz gain, eskolako neska-mutikoek ere beraien emanaldia egiten dute.

Umore Ona elkarteko lanak

Umore Ona Elkartearen egoitza ezinduentzako egokitu asmoz, hasi dira beheko solairuko lanak. Orain arte biltegi gisa erabili izan du Udalak toki hori baina orain, urte batzuetarako Umore Onari utzi dio. Elkartek sukaldia, bodega, komuna eta jangela egin nahi ditu hor ezinduek arazorik gabe erabil dezaten. Lehenengo solairuarekin eskailera bidez elkartuko da behekoa.

Gremiotan elkartu eta lanak «ahal den neurrian» auzolanean egin nahi direla adierazi digu Joxe Jabier Etxeberria elkarteko lehendakariak. Gaineratu digunez, hasierako egitekoa garbiketa lana izanen da: paretak eta egurrak garbitu, lurra moldatu... Azaro hondarrean hasi ziren boluntarioak horretan eta lanak bukatzeko data zehatzik finkatu ez badute ere, «festetarako egina» izatea gus-tatuko litzaike.

Lanen aurrekontua 50.000 eurokoa da eta horri altzarien balioa gehitu behar zaio.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA ETA FELIX LOIARTEK UTZITAKOAK

Txondorra Feria Eguneko protagonista

Eguraldia lagun, giro ederra izan zen Feria Egunean. Eskulangile eta aziendekin batera, bezperatik piztu zen ikatz txondorra izan zen protagonista. Txondorra egiten ttikitan ikasi zuen Andoni Etxenike izan zen prozesua gidatu zuena, nahiz eta 30 urte pasatuak ziren azken aldiz egin zuenetik. Denbora asko emana zuten Etxeniketik eta laguntzaileek txondorra prestatzen eta feria egunean harro erakutsi ahal izan zuten bere lana. Izan ere, txondorraz gain, etxola bat ere eraiki zuten eta lanabesak eta astoa ere inguruan zuten Etxenike, *Motza*, *Gorrene*, Fernando Goiak eta Xumar Bakerok. 20 Tona egur behar izan zituzten txondorrerako eta hortik 400 bat zaku ikatz aterako direla kalkulatu zuten. Zahagi Dantza txondorren inguruan sortu zela dioenik ere bada eta hala, txondorra piztu baino lehenxeago Zahagi dantza ere dantzatu zuten. Baina txondorraz gain, izan zen zer ikusi eta non gozatu.



'Goizuetako etxeen izenak'

Patziku Perurena, Patxi Salaberri eta Juan Jose Zubirik urteetan egin duten lanak argia ikusi du eta kalean da *Goizuetako etxeen izenak* liburua. Etxe eta baserrien 546 fitxa bildu dituzte, etxez etxeko deskribapenarekin, argazkiekin eta beste zenbait daturekin hornitua. Lan mardula egin dute eta herritarrentzako aski interesgarria, 25 eurotan eros daiteke. Pamiela argitaletxeak atera du, baina Udalak, Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Euskarabideak diruz laguntzeko konpromisoa hartua dute.

OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

Haur eta gurasoen kantuek alaituko dute Eguberri bezpera

Goizean, herrian barna ibiliko dira haur eta gurasoak

Maidar ANSA

Aurten ere, herritarren belarriak goxatuz aterako dira herriko haurrak Eguberrietan, gurasoek lagunduta. Olen-tzeroren irudia herri guztian barna bizkarrean eramango dutegaueko opariak irabazteko azken ahaleaginean. Beti bezala, goiza borobiltzeko, elkarrekin bazkalduko dute neska-mutilek.

Udal aldaketa

Udal berriaren kargu hartzea hilaren 10ean egitekoa zen. Datorren lau urteetarako alkate makila jasotzekoa zuen Ainhoa Ansak, Iñigo La-rearen eskutik.

Bazkaria Joseba Tapiarekin

Azaroaren 27an, 60 lagun inguruk San Roke elkartean kantu bazkari batez gozatu ahal izan zuten Joseba Tapia trikitilariarekin. Aranorekin lotura estua izan du musikariak betidanik eta lagun zaharrekin elkartuta bazkari eta giro goxoaz gozatu zuten denek. Bazkalostean, Ferminen akordeoiarekin eta gainerakoen ahots eta intentzio guztiarekin kantu egonaldi bikaina egin zuten. Hala ere, dantzarik egin gabe ezin gelditu aranoarrak. Bukaeran dantzarako pieza batzuk ere jo zituen Tapiak des-pedida moduan.

→ → → Etorri. Badabil.

HAZKARIAK HAZKARIAK

Etorkizuna ongi lotua izanda, badabil.

% 3,40
4 urte eta 3 hilabetera

diru-akopioa eta kreditu-akopioa, kredituaren 1.3.3. artikulua egonik

16.11.2011ko erabakia. Hurrengo erabakia 2012ko azaroaren 16an.

Horri gure bulegoan eta baita duzun informazioa, gaitza eramatea dugu eta begiratu www.uta.es

UTA, Unió de Turistes d'Aragó, 42270 Aragó, C/ de l'Industria, 11. 50009 Sarriena (Aragó). 2011ko azaroaren 16an erabakiak hartuak. UTA, Unió de Turistes d'Aragó, C/ de l'Industria, 11. 50009 Sarriena (Aragó). 2011ko azaroaren 16an erabakiak hartuak. UTA, Unió de Turistes d'Aragó, C/ de l'Industria, 11. 50009 Sarriena (Aragó). 2011ko azaroaren 16an erabakiak hartuak. UTA, Unió de Turistes d'Aragó, C/ de l'Industria, 11. 50009 Sarriena (Aragó). 2011ko azaroaren 16an erabakiak hartuak.

LEITZA

GIZARTEA → EPAIKETAK

Urtebetean hamabi herritar deituak izan dira deklaratzera

Alkatea, Iraola eta Juantorena-
ren aurkako au-
zia artxibatu dute

TTIPI-TTAPA

«Utzi pakean Leitza!». Halaxe adierazi du «ozen eta indartsu» Auzipetuekiko babes taldeak. Izan ere, azken urtebetean hamabi herritar deitu dira deklaratzera, eta babes taldearen irudiko, «3.000 pertsonako herri txiki bat izanda datua benetan larria eta esanguratsua da».

«Leitzan eta Euskal Herrian garai berriak bizi ditugula» dio babes taldeak, «Euskal Herriak bizi duen gatazka konpontze bidean, urrats esanguratsuak eman dira» gaineratuz. Baina, bestalde, «herritarren aurkako erasoek ez dutela etenik» salatu dute: «betidanikoa izan arren, azken bi urteotan areagotu egin dute gure herritarren aurkako erasoaldia, eta presoenganako elkartasuna eta gazteria kriminalizatzea izan dute helburu».

Bi urteotako «erasoaldien laburpena» ere egin du babes taldeak: • 2009ko urria: «Maxurrenako atarian 'antzerkia' eta ondorengo intoxikazio mediatikoa». • 2010eko urtarila: «errege bezperako euskal preso politiko eta iheslariaren aldeko elkartasun afaria debekatzea». • 2010eko ihotek: «atsaurretutako gaztetxe

eta antolatutako ekimenak legez kanporatuak». • 2010eko abuztua: «herritar bat Audientzia Nazionalera deitua 'terrorismoari gorazarre' egitea leporatuta».

• 2011ko martxoa: «hiru gazte identifikatuak Jone Lozanoren atxiloketa salatzeako kartelak jarzzen ari zirela».

• 2011ko apirila: «beste hiru gazte identifikatuak Joneren argazkiak jarzteagatik. Sei hauetatik hiru adingabeek Audientzia Nazionalera deklaratzera joan behar izan zuten, 'terrorismoaren gorazarre' egitea egotzita».

• 2011ko pestak: «herritarren aurka eraso mediatikoa eta ondorioak: pestetan eta ondoren, nabarmen igo da presio poliziala, uniforme zein kaleko arropaz, kalean barrena argazkiak ateraz, kontrolak gehituz, pankartak kenduz, jendea identifikatuz ibili baitira». • 2011ko iraila: 'terrorismoa goratzea' egotzi die Espainiako Auzitegi Nazionalak Oier Eizmendi alkateari, Saioa Iraola pestetako txupinazoa bota zuenari eta Lurdes Juantorenari.

• 2011ko azaroa: «festetako auziarekin jarraituz, Auzitegi Nazionalak bes-



ARGAZKIAK: BILGUNE FEMINISTA

Herritarrek indarkeria sexistaren aurka

Pozik gelditu dira Bilgune Feminista eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Udaren babesarekin azaroaren 25erako antolatuak zituzten ekitaldien erantzuna ikusita. Egun hori genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da eta aurtengoa hainbat ekimenekin joan zen. Hasteko, Bilgune Feminista eta Mankomunitateko ordezkariak institutuko ikasleekin bildu eta *Indarkeria sexistaren aurrean, guk-zuk zer egin dezakegu-zu?* gaia landu zuten. Txapak egiteko tailerra ere egin zuten, eta ikasle bakoitzak gaiaren inguruan nahi zuena idazteko aukera izan zuen txapan. Institutu atarian elkartu ziren gero, aste osoan landutako adierazpenez osatutako ladriluak irakurtzeko, eta kontzentrazioa egin zen segidan, indarkeria sexistaren aurka. Eguerdian, plazan mahai bat jarri zuten Bilgune Feminista eta Gizarte Zerbitzuetako kideek eta informazioa emanez. *Indarkeria sexistaren aurrean, denona erantzukizuna* lelopean txapak ere banatu zituzten eta jendeak bereak egiteko aukera ere izan zuen. Ilunabarreko kontzentrazioan 30 bat lagun elkartu ziren. Azaroaren 26an, beriz, emakumeentzako autodefentsa tailerra eta luntxa egin ziren eta hamabost bat emakume elkartu ziren.

te hiru herritar deitu ditulekuko gisa».

• 2011ko azaroa: «bigazte Auzitegi Nazionalak eskatuta Iruñeko epaitegira deituak, 'terrorismoa goratzea' egotzita».

Hauen helburua «hirukoitz» dela uste du babes taldeak: «herriaren izaera deuseztatzea, bereziki gazteria kolpatuz, presoenganako elkartasuna kriminalizatzea eta Euskal Herrian aldatzen ari den egoera politikoan eragitea, urratsak galaraziz». Baina ez dutela lortuko esan du. Eta Espainia eta tokiko gobernuak «errepresioaren bi-

dea alde batera utzi eta elkarriketaren bideari ekiteko» exijitu die eta hamabi herritarrei «elkartasuna eta babesa» adierazi. Egun hauetan mobilizazioak egitekoak ziren.

naren eta Iraolaren aurka irekitako auzia. Hilaren 1ean jakinarazi zuen, ez dela frogatu txupinazoz egunean «terrorismoa goratu» zutenik.

Plazaolako berriak

Azaroaren 28tik, Aitor Etxarri zinegotzia da Plazaola Partzuergo Turistikoko presidente berria.

PESTETAKO AUZIA

Espainiako Auzitegi Nazionalak artxibatu egin du alkatearen, Juantore-

gaztelu sol
iturgintza
kalafaktoria - sarrasmendua - gasa
Telefonoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 510 856
LEITZA

ERDIZ
ARKITEKTOAK + ABOKATUAK
ANOLKULARITZA ARHITEKTONIKO ETA JURIDIKOA
TXOSTENAK - PROIEKTUAK
OBRA ZUZENDARITZAK - ZAHARBERBITZAK
ANOLKULARITZA JURIDIKOA - ERRIKETA MOTA GUZTIAK
TELEFONO ARRETA: 17.00etatik 20.00etara
astatekoan bakarrik
Barrañen Etorbidea, 17 - 3. Bidegora - IRUÑEA

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK

Gurdia opariz betea duela etorriko da Olentzero abenduaren 24an

Bi egun aurretik Mari Domingik bisita egingen du eskolara

Juana Mari SAIZAR

Aurten ere, eskolako ikasleak izanen dira Olentzero eta Mari Domingiren bisita jasoko duten lehenengoak. Urteko azken eskola egunean izanen da, abenduaren 22an. Egun horretan, 09:30 aldera, jaialdia eskainiko dute eskolako haurrek gurasoen aurrean, antzerki, abesti eta abarrekin. Ondotik, musika doinuen laguntzarekin, herrian kalejira egingen dute Olentzerorekin, eta herriko itzuliaren eginda-

koan, Mari Domingi etorriko da Olentzero-rentzako gutunak biltzera. Guraso Elkarteak, bere aldetik, hamai-ketakoa eskainiko du.

Abenduaren 24ko arratsaldean etorriko da Olentzero opariekin. Menditik jaitsiko da bere astoarekin eta gurdia opariz beteta duela. Laguntzaileak ere ondoan izanen ditu, eta herrira iritsi baino lehen, trikitilari, haur, gazte eta helduak zain izanen ditu. Denak batera herriko plazara jeitsi eta abesti bat kantatuko diote haurrek. Bide batez, plaza apaintzen duten irudi eta jaiotza ere erakutsiko dizkiote ikazkinari. Ondotik, plaza zaharreko estalpera joanen

dira denak eta hemen, haur bakoitzari bere oparia eta goxokiak banatuko dizkio Olentzerok. Opariak emanak di-

tuenean, abesti batekin datorren urtera arte agurtuko dute herritarrek Olentzero. Aipatu, halaber, haurrei opari-

ak banatu bitartean, trikitixa doinuak ere izanen direla eta Udalak berendua ere emanen duela.



Kalean da herritarrek egin duten Panpanoziri aldizkaria

Herritar talde baten lanari esker sortu da Panpanoziri aldizkaria, eta dagoeneko argitaratu eta aurkeztu dute lehenengo alea –ikus irudia–. Euskararen Egunean aurkeztu zuten. Ale honetan, garai bateko Aresoko kontuak jaso dira, baita herriko euskarari buruzko oharra ere. Aresoko irudiak ere bildu dira eta Casilda Irazusta azken emakume errotariari ere egin zaio elkarrizketa. Horiek eta gehiago ageri dira Panpanoziriren lehen alean. Ana Goñi, Jaione Olazabal, Maitane Gereño, Itxaso Onsalo, Juana Mari Saizar eta Udaleko Euskara Zerbitzuak egin duten lanaren emaitza da.

LEITZA

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK

Dena prest Orantzarori ongi etorria egiteko

TTIPI-TTAPA

Gero eta gutxiago gelditzen da Eguberrietarako eta horrekin batera, Orantzaroren bisita ere laster izanen dugu, abenduaren 24an, zehazki. Egun horretan, 12:00-etan, neska-mutikoek kalejira egingen dute Orantzar eta Mari Domingi-ekin eskolatik plazara. Han gozokiak banatuko dizkiete Orantzaroren

laguntzaileek.

18:30ean etorriko da Orantzar, eta Orantzaropesta egingen da, Maimur, jentille eta galtxagorriekin, Orantzar sua piztuz. Gero kalejira egingen da.

Eguberrietako ekitaldiak eskolan

Aurtengo azken eskola egunean, hilaren 22an, eskolako ikasleek urteroko jaialdia egingen



ARGAZKIA: MIGEL MARI ELOSEGI

Giro ederrean bertso eskolaren hamargarren urteurrenoko festa

Helduen bertso eskola X. urteurrena ospatu zuen azaroaren 18an. Hasteko, bertso poteoa egin zuten Julen Zelaieta, Joseba Zabaleta, Mikel Azpiroz eta Zili Barberiak. Poteoaren eta Gaztetxeko afari-merenduaren ondotik, desafioa hasi zen. Lesakatik Xavier Terreros, Ior Tainta eta Iosu Sanjurjo aritu ziren, eta Leitzatik, Zili, Iñigo Gorostartzu eta Miel Mari Elosegi. Desafioa berdinketan amaitu zen eta hurrengo urtean Lesaka aldean desenpatea jokatzeko gelditu ziren.

dute. Zikloka banatuta, ikuskizuna eskainiko du-

te eta irakasleak ere egingen dute beraia. On-

dotik, Guraso Elkarteak pintxoak emanen ditu.

NARBARTE-LEGASA

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK

Boluntarioak behar dira Narbarten Eguberrietako jaiotza bizidunerako

Interesatuak ortziraletan eskolara ager daitezke

Martin BERTIZ/TTIPI-TTAPA

Narbarten, ohitura bihurtu da abenduaren 25ean meza ondoren, jaiotza biziduna ikustearena. Baina egun horretako emanaldia ikusteko lan dezente egin beharra dago aitzinetik: arropak prestatu, entseguak, boluntarioak bilatu... Hortaz, norbait jaiotza biziduneari parte hartzeko interesatua baldin badago, ager dadila eskolara ortziraletan 18:00etatik 19:00etara.

San Andresak

San Andres Narbarteko

patroia da eta garai batean egun horretan ospatzen ziren herriko bes-tak. Duela urte saila, bes-tak abuztura pasatu ziren, baina azaroaren 30-ean seinalea egiten segitzen da.

Aurten, ohiturekin jarraituz, goizean meza izan zen, eta ondotik, nahi zuen guztia rendako luntxa ostatuan. Eguerdian herriko alkate eta zinegotziek bazkaria izan zuten eta arratsaldean, txokolatada batekin eman zitzaion San Andres egunari amaiera.

Hitzaldia

Hilaren 2an enpatiari buruzko hitzaldia izan zen Narbarteko eskolan.

Olentzero Legasan

Urtero bezala eta negua-

rekin bat, Olentzeroren bisita espero dugu Legasan. Abenduaren 24an menditik jaitsiko da, eta legasak guztien gutuna hartuta bueltan joanen da. Beraz, gutunak prestatzen hasi.

Argazki emanaldia

Abuztuaren ospatzen Legasako Kuku elkarte-ko 25. urteurrenaren argazkien emanaldia egingen da Eguberrietan. Oraindik data finkatu gabe dago, baina asmoa Eguberrietan egitea da. Emanaldia eskolako gimnasioan egingen da.

Urteberri Eguna eskean

Urtero bezala, Urteberri Egunean haurrak etxetik-etxe urtatzak es-



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Onddo xelebrea

Joan den azaroan, Narbarteko Diego Perez lagunak onddo xelebrea hau Narbarteko mendietan aurkitu zuen. Gisa aunitzetako onddoak ikusiak gaude baina horrelakoak ikustea behintzat ez da batere ohikoa.

kean ibiliko dira Legasan, *Urtax-urtax* abestia kantatuz eta etxeetatik botatzen dituzten urtatzak bilduz.

Kuku elkarteak garbitzeko deialdia

Legasako Kuku elkarteak garbitzeko lanen en-

kantea atera da. Beti bezala, enkantea eskaintza merkeenari emanen zaio. Eskaintzak aurkezteko epea abenduak 31n akituko da eta interesatuak zaudetenak gutunazal itxi batean, biltegian dagoen buzoian utzi behar duzue eskaintza.



**CLUB
MÁS
Xti**

Birritan irabazi "Más Por ti" Klubarekin

Nafarroako Kutxa edo Caja Ruralaren txartelekun ordaindu ezkeror, merkeago erosi zure puntu/euro **irabaztuta** eta, honetaz gain, **400 opari baino gehiago** duten zozketetan parte hartu: bidalak, erosketak, bonuak, tabletak, urdailazpikoak, ardo kutxak...

Club Más Por ti

Gehiago Zuregaitik Klubak











Bila zure kutxa edo kaja ruralaren txartela 2012ko azaroaren 15etik 2013ko azaroaren 15era bitartean. Zozketak 2013ko azaroaren 15etik 2013ko azaroaren 17ra bitartean egingo dira. Zozketaren irabazlea 2013ko azaroaren 17an zuzenean jakinaraziko da. Zozketaren irabazleak irabazitako opariak 2013ko azaroaren 17an jasoko ditu.



FCN
Nafarroako Kutxa

2012 ZUZKOTEN
BAGOAZ AURTERA



Nafarroako
Gobernua



can



GASOLIOA ETXERA



AUTOMOZIOA
A GASOLIOA

NEKAZARITZAKOA
B GASOLIOA

BEROKUNTZA
C GASOLIOA

REPSOL
Diesel e⁺

AgroDiesel 10e

ENERGY
Energy e⁺

BAZTAN

KIROLA → ELIZONDON EGINEN DA

Igande honetan eginen da Ikastolak antolatutako Eguberrietako krosa

11:00etan
abiatuko da
ikastolako
parketik

zen eta Kultur Etxean
egin behar zuten. Gai-
nerakoek lasterketa
egunean egin beharko
dute ikastolan.

Urtezahar Egunean San Silvestre

Azken urteetako ohi-
turari segituz, abendu-
aren 31n San Silvestre
lasterketa egingen da Eli-
zondon, Baztango Las-
terketa Taldeak antola-
tuta.

17:00etan haurren
lasterketa abiatuko da
eta 18:00etan heldue-
na. Azken hauek 3,9 ki-
lometroko ibilbidea osa-
tu beharko dute. Izen-
ematea dohainik izanen
da eta egun berean or-
du erdi lehenagotik egin
beharko da.

Lasterketaren ondo-
tik, merkatariek eman-
dako materialak zozke-
tatuko dira parte hartzai-
le guztien artean.

Aipatzekoa da, joan
den urtean kasik 200
korrikalari bildu zirela.

TTIPI-TTAPA

Lasterka egiteko au-
kera ederra izanen du-
te neska-mutikoek igan-
dean, abenduak 18, Eli-
zondon, orduan egingen
baita Baztan Ikastolak
Udalaren laguntzarekin
antolatutako Eguberrie-
tako krosa.

Ikastolako parketik
abiatuko da, 11:00etan,
eta bortz mailatan ba-
natuko dira gaztetxoak:
haurrak 1998 eta
1999an jaiotakoak; ale-
binak 2000 eta 2001ean
jaiotakoak; benjaminak 2002
eta 2003 urtekoak, au-
rrebenjaminak 2004 eta
2005ekoak eta ttikiak
2006an jaiotakoak.

Eskolako neska-mu-
tikoentzat izena emate-
ko azken eguna astear-
te hau, abenduak 13,



ARGAZIAK: AMAIUR ETA ARRAIOZKO ESKOLAK

Olentzeroren bisita

Eguberriak hurbiltzearekin batera, Olentzero ere laster izanen dugu bisitan. Eta bisita hori hartzen lehendabizikoak herrietako eskolak izanen dira, abenduaren 22an. **Amaiurko** eskolan, erraterako, urteroko moduan, Olentzero ttikia herriko karriketan barna ibiliko da txistulariek lagunduta. Eta ondotik, eguerdian, haur, guraso eta maisu-maistrendako bazkaria izanen da herriko elkartearen. **Arraiozen** ere izanen dira ekitaldiak. Ohi bezala, Eguberrien atarian, kanten entseguak egingen dituzte. Hasieran ikasle eta irakasleak bilduko dira eta azken egunetan herriko jendea ere gonbidatuko dute elkarrekin kantatzeko. Olentzero ere egingen dute eskolan eta abenduaren 22an herriari itzulia emanen diote Olentzero bizkarrean dutela. Akordeoi doinuekin lagunduta, herriko kantak eta eskolan entsaiatutakoak kantatuko dituzte. Egun berean, hamaiketako berezia egingen dute, txistor-jatea, eta Guraso Elkarteak antolatuta bazkaria ere egingen dute herriko elkartearen. Abenduaren 24an ere etorriko da Olentzero Arraiozera, umeei opariak banatzera. Bertze herrietan ere izanen dira gauza gehiago.

Eguberri eta urteberri ad

LOLA OTELO

ILEAPAINOEGIA • MAKILLAJE ZERBITZUA

T. 948 580 390

www.chanelsa.com

Postbuz 9 • 48100 ELIZONDO

info@chanelsa.com

URREGINE

Emili Hernaiz

Salma Urutia, 30 • ELIZONDO

948 580 434

Aurtengo gabanetan ere
OPARITU BITXIAK

Zilarra, altzairua, urrea...
diseinu eta prezioetan
eskaintza zabala

URTEBERRI ON!

GIZARTEA → URRITIK MAIATZERA

80 lagun mugitzen dituzte Eguzkiloare Elkartearen ikastaroak

Elkarguneak sortzea izan da aurtengo berrikuntza

M. OTEIZA / TTIPI-TTAPA

Ikastaroetan hainbat aukera eskaini ditu aurtengo Eguzkiloare Elkarteak: yoga, erlaxazioa, yogilates, dantza pilates, autolaguntza eta familia konstelazioak. Horiek guztiak urrian paratu zituzten martxan eta maiatzera bitarte iraunen duten ikastaroetan 80 bat lagunek parte hartzen dute.

Baina ikasturte honen badu berrikuntzarik ere. Elkar(g)uneak sortu dira eta hala, hi-

labeteko bigarren astelehenetan, gai zehatz bati lotutako jakintzak elkar trukatzeko dituzte. Arizkuneneako bigarren solairuan biltzen dira, 19:00etatik 20:30era. Saio hauek edozeinentzako irekiak daude eta dohainik dira.

Azaroan egin zen Elkar(g)uneko lehenbiziko saioa eta garbiketa ekologikoak izan zituzten hizpide. Maddalenek etxean prestatu eta erabiltzen dituen garbitzaileen errezetak bertze hamabortz lagunekin konpartitu zituen. Parthartzaileek bertze saio batean elkartearen erabaki zuten, xaboia egiten ikasteko. Asteleheneron, abendu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako sokatira txapelketako lehendabiziko bi txapelak Amaiurrentzat

Amaiurko gizonezkoen sokatira taldeak bosgarren urtez segidan Nafarroako txapelketa irabazi du 640 kiloko kategorian. Azaroaren 19an Elizondoko jokatuak bigarren jardunaldian tiraldi guztiak irabazita jantzi zuen txapela. Seiko mistoan ere, 420 kilotan, txapelak izan da Amaia. Amaiaurko taldea sasoiko dago, nahiz eta Mieljo Ariztia kapitainak aipatu duenez, «hurrengo txapelketei ekiteko behar den mailatik beheiti gauden, lanean gogor eta erritmo onean ari garen arren».

ak 12, Eli sukaldariak zenbait errezeptak eta truku eskaintzekoak zituen jendauraren. Eta urtarilaren 9an, puntua egin edo trikotatu nahi dutenak elkartuko dira Anarekin.

2012ko egutegia

2012ko tokiko jaieguna urriko ferietako ostirala ezartzea erabaki du Udalak. Beraz,

2012ko urriaren 26a jaieguna izanen da Baztanen, eta ez orain arte bezala, inauterietako asteartea. Urriaren 27ko batzarrean erabaki zuen hori Udalak.

Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua

Santa Zezilia eguna Elizondoko karriketan os-

patu zuen Baztango Musika Eskolaren egunaren bezperan. Herria kantuz eta musikaz alaitzen ibili ziren arratsaldean herriaren harridura eta pozera.

Bertzetik, aipatu, larunbat honetan, hilak 17, Eguberrietako kontzertua eskainiko dutela Musika Eskolako ikasleek Elizondoko elizan. 19:00etan hasiko da.

JAI HAUETAN EZ ZAITEZ ETXEAN GELDITU ELURRA ZAIN DUZU!

Forfaita berrak

		Eguberriak 8 egun/zazpi gau		Urte zaharra 8 egun/7 gau	
VALLNORD	H. Ertz ***	ME	336 €		606 €
ARAMON CERLER	Aptu. HG Cerler *** 8 perta	HA	349 €		624 €
GRANDVALIRA	H. Magic Pas ****	OG	493 €		1.017 €
		Eguberriak 3 egun/2 gau		Urte zaharra 3 egun/2 gau	
CANDANCHU	H. Margas Golf ****	OG	103 €		183 €
ARAMON PANTICOSA	Aptos. Altur 5 *** 4 perta	HA	108 €		132 €
ASTÚN	H. Barceló Jaca ****	OG	118 €		125 €
LA MOLINA	H. Supermolina ***	OG	164 €		187 €

Informazioa eta Erreserbak:
Ertzera 22, beheak
31700 BERA Navarra
Tel. 948.631.388
E-mail: bera.1260@viajesiberia.com

Prezioak pertsona bakoitzak dira eta gela bakoitzeko, berrakotik, adierazten ez bada, eta adierazten ez badira, erreserba egiteko. Eguberri eta Urte Zaharra egun zehatz batzuetarako bakoitzak dute. Galdetu datu zehatzak eta establezimendu bakoitzak gela-erreserba duen prezio gehigarria. Garraioa ez dago sartua. Otoroia erreserba. HA: Logela bakoitza. HD: Ote eta Galaria eta MP: Maitasun Erdia.

Baita joan

VIAJES IBERIA

BAZTAN

KULTURA → IRURITAKO ELIZAN

Haur eta gazte kantarien topaketa eginen da abenduaren 23an

Elizondoko Abesbatza Ttikik antolatu du jaialdia

M. OTEIZA / TTIIPI-TTAPA

Elizondoko Abesbatza Ttikik antolatuta, Baztango haur eta gazte kantarien topaketa eginen da abenduaren 23an Iruritako elizan. Han izanen dira Elizondoko Abesbatza Ttikiko partaideak, Giltzarri Ttikikoak eta Baztango ikastetxeetako haur eta gazteak, hauek ere zenbait kanta prestatu baitituzte egun horretarako. Horiek guztiek abestuko dute 19:00etan hasiko den jaialdian.

Entsegu orokorra egun eta toki berean eginen dute, abenduaren 23an Iruritako elizan. 17:30ean izanen da.

Bilduren boletina

Azaroko berripaper elektronikoa kaleratu du Bilduk. 2012ko **udal aurrekontuak** ditu, bertzeak bertze, hizpide, eta asmoa «aurrekontu parte hartzaileak egitea» dela adierazi du: «alta, aurreten ez dugu aurrekontu parte hartzaileak abiarazteko asti eta modurik izan». Halere, herrietako alkateekin eta herritarrekin bilerak egiteko asmoa badutela gaineratu du. Bildutik «oinarritzko hiru puntu» ikusi dituzte: zerbitzu sozialetan bilangile gehiago kontratazea eta horren kostua

36.000 euro ingurukoa litzateke; berdintasun programa hasi nahi da horretarako Lekunberriko Udalak utzi duen laguntza aprobetxatuta. Udalarendako 10.000 euro inguru suposatuko lituzke; eta hirugarrenik, herrietako eskoletako garbitzaileen lan baldintzak hobetu nahi dira gizarte segurantzaren bermatuz eta soldata %18 igoz. Kostua 15.000 eurokoa litzateke. Udaleko aholkulari juridiko eta urbanistikoak aldatuta, 75.000 euro aurreztu direla jakinarazi du Bilduk, eta lorezaintza manteuaren eta zaborren bilketaren kontratuak berrikusita 100.000 euro.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango kultur ekitaldiak Udalaren webgunean

Hemendik goiti Baztanen eginen diren ekitaldiak www.baztan.es webgunean argitaratuko direla jakinarazi du Udalak. Kultur arloko ekitaldi horien jakinaren gainean egoteko www.baztan.es webgunearen barnean *Agenda* hitza klikatu ondoren, eguna hautatu behar da eta ondoren, aste horretan izanen diren ekitaldi kulturalen berri izateko berriz ere eskuin aldean agertuko den *Agenda* hitza klikatuz behar da. Bertzalde, Udalak antolatuta, azaroaren 26an Glup filma eskaini zen Iruritan. Haurrei zuzendutako eta birziklapenaren inguruko pelikula izan zen eta emanaldi arras arrakastatsua izan zen, 80 lagun inguru bildu baitziren. Pelikulaz gain, azaro hondarrean, CRANAREN eta Udalaren lankidetzaz, birziklatzearen inguruko antzerkiak eskaini ziren herrietako eskoletan.

Azken **uberroek** ondare publikoan 150.000 euro inguruko kaltea eragin dutela ere badio Bilduk, eta horietatik erdia «premiatzko konponketa behar dutenak» omen dira. Gobernuak, premiartzko lan horien %70 diruz lagunduko

duela erran omen du, eta gainerako guztia Udalak egin beharko omen du. «Gainera, diru hori Udalak aitzineratu beharko du, Gobernuak noiz itzuliko dion jakin gabe».

Bertzetik, Nafarroako Gobernuak **murizketak** iragarri ditu lehendik

onartuak zeuden asig-nazioetan, eta hori dela eta, Bilduren arabera, 54.904,67 euro guttiago jasoko lituzke Udalak.

Dagokion eskaera eginez gero, asteburuetan **Arizkunenea** erabiltzeko aukera egonen dela ere jakinarazi du Bilduk.

HAUTESKUNDEAK → ESPAINIAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZEN ERREPASOA

13 hautes-mahaietatik bederatzitan UPN nagusitu da baina 45 boto gehiago atera ditu Amaiurrek

TTIPI-TTAPA

la hilabete pasatu da Espainiako Gorteetara-

ko hauteskundeak egin zirenetik, baina herriz herri eta mahaiaz-ma-

hai zein emaitza lortu diren ez da aipatu eta hori ikus daiteke taulan. Bel-

tzez mahai bakoitzean zeinek jaso zuen boto gehien ageri da.

	Zentsoa	Amaiur	UPN-PP	Geroa Bai	PSOE	Ezkerra	Bertzeak	Zuria/nuloa
AZPILKUETA/AMAIUR	378	128	63	32	17	2	0	8
ERRATZU	392	140	59	35	15	2	0	2
ARIZKUN	483	113	116	47	28	6	4	10
ELIZONDO-ELBETE	548	112	129	81	35	8	15	9
ELIZONDO 1	558	88	133	68	39	4	7	16
ELIZONDO 2	571	100	126	62	41	8	17	13
ELIZONDO 3	715	135	136	90	70	11	16	9
ELIZONDO 4	463	91	99	64	26	5	0	13
GARTZAIN/LEKAROTZ	458	106	100	59	26	5	5	7
IRURITA	673	130	142	85	37	4	6	21
ARRAIOZ/ORONOTZ	547	115	91	60	23	9	2	14
ANIZ/ZIGA	214	50	53	25	7	2	2	4
ALMANDOZ/BERROETA	253	48	64	29	19	1	0	5
GUZTIRA	6.253	1.356	1.311	737	383	67	74	132

EUSKARA → KANPAINA BERRIA

Abizenak euskal grafiaz paratzeko deia egin du Euskara Batzordeak

Haurrak euskaraz inskribatzea ere bultzatu nahi da

TTIPI-TTAPA

Celayeta, Echeverria, Echenique, Irigoyen, Jauregui... Berez euskal abizenak diren baina aunitzetan gaztelaniaz idazten direnak euskal grafiaz paratzeko kanpaina eginen du Euskara Batzordeak. Al-di berean, haurrak euskaraz inskribatzeko kanpaina ere izanen da.

Abizenak euskal grafiaz paratzeko erregistro zibilerat joan eta abizena euskal grafiaz paratu nahi dela erratea nahikoa dela adierazi du Euskara Batzordeak: «Erregistroan ematen duten orria norbere datuekin bete eta eskututako agiriak eraman behar dira: NAN, jaiotza ziurtagiria (epaitegian eskatu) eta errolda agiria (udaletxean eskatu)».

Haurrak euskaraz inskribatzeko kanpaina

grafia aldatetarekin batera eginen du Euskara Batzordeak, «erlazio zuzen-zuzena» dutela irizita. Kasu honetan ere ez dela deus egin beharrik oroitarazi du: «haurra euskaraz inskribatu nahi duzula erran, bertzerik ez». Gisa berean, gurasoetako batak abizena gaztelania-ko grafiarekin baldin badu, haurrari ere horrelaxe paratuko diotela ohartarazi du Euskara Batzordeak.

Ezkerra Zilbetiko tunelaren irteeraz

Boto emailleekin asanblada egin ondotik, Zilbetitik Kintora doan tunelaren irteerari baiezkoa ematea erabaki du Ezkerrak. Hala jakinarazi du ohar bidez. 50 lagunek parte hartu zuten asanbladan eta ida-

tziz, hurrengo Batzar Orokorreko gai ordenean sartzeari eskatuko zuela jakinarazi du. «Kintoko Mankomunitatea

tunelaren irteera egiteko harremanetan jarri zen eta hau NA 138 errepidearekin konektatzeko eskatuz. Modu hone-

tan kamioiak ez lirateke Zilbetiko herritik pasako eta gainera, bidea murritzuko litzateke», dio Ezkerrak oharrean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Onddo aunitz eta ederrak

Ibili eta ibilita eta han eta hemen banatuak harrapatu ohi dira normalean onddoak. Baina ez beti. Elizondoko Margak argazkian ageri diren onddo horiek guztiak hiru metro koadroko eremuan aurkitu zituen azaro hondarrean, guztira 3,2 kilo onddo. Ibaik eskuetan duen haundiena 850 gramokoa da.



SOULE

hileta artea
Tfnoa: 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN





ANTXITONIA

Antxitonía, a beautiful house in the heart of the Basque Country, with a swimming pool and a garden. It is a perfect place for a family holiday or a romantic getaway.



Bonika Iturri 16, Elizondo • 948 591 807 • 948 581 853
txatx@antxitonia.com • www.antxitonia.com

Okindegia Jatetxea

Uxoa



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Espezialitateak parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errean,
goxo goxo!

Ordok Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

BAZTAN

GIZARTEA → BENETAKO BEHARRAK ANTZEMAN NAHI DIRA NEREUS PROIEKTUAREKIN

Adineko eta elbarrituen beharrak biltzeko proiektu bat lantzen ari dira Baztanen

700 lagun
elkarriketatuko
dira Iruñean eta
Baztanen

TTIPI-TTAPA

Pertsona helduek eta elbarrituek bizitzako hainbat alorretan izan ditzaketen benetako beharrak aztertzeko asmoz, Nereus proiektua paratu da abian. Nafarroako bizitza kalitatearen alde lanean ari den PINCV delakoa da proiektuaren bultzatzailea, eta Nafarroako Gobernuak Osa-sun Departamentuaren eta Unibertsitate Publikoaren babesa du. Jendeari elkarriketak eginez datuak bildu nahi dira, hala, beharretara ego-kitutako proposamen eta programak lantzeko.

Azarotik abendura, 700 lagun inguru elkarriketatuko dira Iruñean eta Baztanen. Bi zonalde horiek aukeratu dira, bat landa eremuko eta bertzea hirikoa delako, eta zerbitzuen eskaintza eta aukerak desberdinak izan daitezkeelako batean eta bertzean. Baztanen kasuan, elkarriketak Tasubinsa erakundeak Elizondoko duen Poxkonea zentroko langileak egiten ari dira. 2012ko lehen hilabeteetan ikerketaren emaitzak ezagutzera emanen dira. Gisa berean, aipatu, prozesu honetan datu pertsonalak eta elkarriketatoko datuak babestuko direla ziurtatu duela Udalak.

Informazio gehiagorako telefonoak eta helbidea: 948 203322, 618 977589, info@pincv.org.



ARGAKZIA: ONDIKOL

Elizondoko Kasinoak 150 urte bete ditu itxura berriarekin

Abuztuaren 19an bete zituen 150 urte Elizondoko Circulo de la Union Kasinoak eta hiru hilabete beranduago, azaroaren 19an, zaharberritze lanen inaugurazioa egin zuten bazkideek. 1861ean 40 bazkidek sortu zuten elkarte. Ordukoak erai-kin ttiki bat izan behar zuen, eta karlistaden inguruan itxi eta irekiz ibili omen zen. 1882an inauguratu omen zen oraingo eraikina. Gaur egun, berriz, 120 bazkide ditu eta horien artean, zaharrena, Federico Valencia, eta gazteena, Agustín Sansiñena, izan ziren bi urteko lanak akituta, zinta moztu zutenak. Zuzendaritza batzordean Txuma Uriz da presidentea egun eta Pello Alaña ordezkaria; Jabier Alzuguren diruzaina, Jesus Miguel Egurrola idazkaria eta Luis M^a Ruiz, Juan Jose Arrizibita, Pedro M^a Landa, Esteban Ustariz, Gabriel Laborra eta Eduardo Zubikoa bokalak.



MARCHI
MODA HOMBRE

Soropu Mutila, 11
20302 IRUN
T. 943 612 626





CAPELETTI

Hondol Markatutako Zorruak
20302 IRUN
T. 943 624622

HONDAKINAK → AINHOA ETA URDAZUBIKO UDALAK

Hemengo ur hondakinak tratatzen dituen Ainhoako instalazioak haunditu egingen dira

Obra horien lehendabiziko harria astelehen honetan jarri da

TTIPI-TTAPA

Duela urte batzuetatik honat, Ainhoako Dantxaria auzoko instalazioetan kanalizatu eta arazten dira Urdazubi-Dantxarineako ur hondakinak. Baina ur horiek gero eta gehiago direla ikusita, azpiegitura horiek haunditzea erabaki zen. Hala, Urdazubiko eta Ainhoako udalen, Ipar Euskal Herriko Herri Elkargoaren eta NILSA erakunde publikoaren arteko akordio bati esker, orain hasiko dira haunditze lan horiek egiten eta instalazioen egoera hobetzen. 1,5 milioi euro kostako dira lan hauek, eta %90 NILSAk bideratuko du.

Astelehen honetan, abenduak 12, obra honetako lehenbiziko harria paratzea aurreikusia zegoen, Nafarroa eta Lapurdiko agintarien partehartzearekin.

Errepideko obrak akituak

N-121B errepidetik herrira doan bideko konponketa eta zabaltze lanak bukatu dira. Mariezkurrena enpresak egin ditu, 400.000 euroko aurrekontuarekin, eta Herri Lan Departamen-

tuak %100ean finantzatuta ditu. Bertzeak bertze, Hiribereko bidegurutzetik 1,5 metroko zabaleira duen oinezkoendako bidea egokitu da azken 600 metrotan. Oinezkoen bide horretan argiteria paratuko du laster Udalak.

Asteburuetako 'bandalismoa' salatu du Udalak

«Bertze behin ere, herriko altzari, trafiko seinale, zuhaitz eta abarren kontrako bandalismoaren berri eman behar dugu, batez ere La Nuba diskotekak ateak zabaltzen dituen asteburuetan». Hitzez hitz horrela salatu du Udalak. Ekin-tza horiek bereziki Dantxarinea inguruan gertatzen direla azaldu du, baina noizean behin herri-guneraino eta ingurura ere ailegatzen direla gaineratu du.

Azaroaren 26-27an, Genaro Fagoagak grabatutako harri bat hautsita agertu zela jakinarazi du Udalak: «herriari utzi dizkion egurrezko eta harrizko obra aunitzen egilea da Genaro, eta hautsi duten harri hori zubi berriaren inguruan jarria zen bezperan».

Udalak «gogor gaitzetsi» ditu ekintzak eta aldi berean, Genarorieskerrak eman nahi izan dizkio herriagatik egiten duen lanagatik eta erakutsitako borondateagatik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Olentzeroren bisita

Urtero bezala, abenduaren 24an egingen du Olentzerok bisita gure herrira. 18:30 aldera asto eta guzti Salbatoreko plazara ailegatuko da, eta eguraldi txarra egin ez gero, frontoi berrian egingen zaio harrera. Behin herrira ailegatuta, haur guztiendako opariak banatuko ditu.



ARGAZKIA: ONDIKOL

350 lagun Euskal Kantu Zaharren Egunean

350 bat lagun bildu ziren azaroaren 26an Dantxarineako Lugarana jatetxean ospatu zen Euskal Kantu Zaharren Egunaren zortzigarren edizioan. Mahaian lekua lortu zutenak pozik aritu ziren kantu kantari bazkalondoa, euren ahotsak eta Jallisko edo Joxe Angel bezalako soinulariak edo Angel Mari Peñagarikano bertso-laria eta Patxi Saez edo Panpi Portugal kantariak lagun zituztela. Euskal kantuak ez ezik rantxerak kantatzeko aukera ere izan zuten eta giroa gori-gori zegoenean, Zubietako joaldunek oraindik beroago jarri zuten ustekabean. Angel Mariezkurrena antolatzailea ere kontent azaldu zen izandako arrakastarekin.

ALBERTO RETEGI
abokatua
948 630 763
Alzate, 17
BERA

MONTXO OSTATU

Dantxarinea 2 km-tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA - URDAZUBI
Egunero irekia 10.30etik 02.30era

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → BATZORDE BERRIA AKELARRE ELKARTEAN

Carles Belda izendatu dute Akelarre Elkarteko lehendakari

Ortzegun
honetan
biltzekoa da
batzorde berria

Koro eta Margari

Azaroaren 25ean batzar orokorra egin zuen Akelarre Elkartek, batez ere batzordea berritzeko.

Jendealde pulita elkartziren: 23 lagun. Eta guztien buruan lortu zen batzorde berria osatzea. Hala gelditu da: Carles Belda lehendakaria da, Hirune Soto idazkaria, Elena Ansalas diruzaina, eta gainontzeko kideak: Maddi Alti, Ainara Ariztegi, Arantxa Mendiburu

eta Ione Zozia dira.

Batzorde berria, asteazken honetan, abenduak 14, elkartzekoa da, eta hasteko bi asmo argi dituzte: alde batetik, bilkura orokor bat egitea herritarrek dituzten ideiak biltzeko; eta bertze aldetik, hilabete behin bilduko diren egun eta tenore bat finkatzea. Egun horretan, edozeinek zer bait behar izanez gero, jakinen luke elkartekideak hor egonen direla.

Ttipi-Ttaparen oharra

Azaroaren 20ko Espainiako hauteskunde orokorretan, Amañur izan zen Zugarramurdi talderik bozkatuena. Bi boto-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Juanito Etxenike erremontista hil da 81 urterekin

Gure herrian kirolak ez du sekula garrantzi haundirik izan, baina ohore handiz kirolari xarmant bat izan dugula erraten ahal dugu: Juanito Etxenike Sagartza- zu erremontista bikaina. Juanito 1931n sortu zen, eta 20 urterekin hasi zen profesional mailan. Atzelari izigarri ona omen zen, eta 1956. urteko pilotalekuen arteko txapelketa irabazi zuen. Lesio baten ondorioz, 1971. urtean erretiratu behar izan zuen, baina hala ere, ez zuen pilota mundua utzi, artekari bezala aritu baitzen. Duela 17 urte bere herriko txokorat erretiratu zen, baina ez zion kirola egiteari utzi: egunero ibiltzerat ateratzen zen, eta hainbat kilometro egin arte ez zen itzultzen. Ez zituen bere ibilalditxoak utzi, ezta eritasunak larri jo zuen ere, eta gordetzen dugun bere irudia hori da preziskiki: Juanito kurri bere makila eskutan. Orain ere nonbait kurri segituko du seguraski. Ongi izan, Juanito.

ko alde atera zion UPN-PPri, 39 eta 37 boto eskuratu baitzituzten, hurrenez hurren. Hala jakinarazi zen aitzineko TTI-PI-TTAPAn ere. Herriz

herriko emaitzen berri emateaz gain, eskualde mailako datuak ere agertu ziren eta hemen, ohi bezala, Zugarramurdiko eta Urdazubiko datuak

elkarrekin eman ziren. Kasu honetan, bi herrietako emaitzak batuta UPN-PPk gehiago lortu zituen. Hori izan zen alizkarian agertu zena.

GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDO (BAZTAN) | LETIZA | BETELU
DONIZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
LOREA, HILARRIAK, ESKELA, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

Olentzero eta Mari Domingi larunbat honetan etorriko dira

18:00etan
eginen zaie
ongietorria
plazan

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, abenduak 17, Olentzero eta Mari Domingi plazara jautsiko dira haurren ikustera. Hitzordua 18:00etan emana da plazan, eta momentu goxo baten pasatzeko aukera izanen da, musika eta kantuekin.

Bertzalde, ohiturak nahi duen bezala, Eguberri bezperako meza 20:00etan emana izanen da elizan eta Eguberri Egunean, 10:30ean.

Bozak

Oroitu, heldu den urtean hauteskundeak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ongietorri beroa egin zitzairen joan den urtean Olentzero ikazkinari eta Mari Domingiri.

izanen ditugula. Boze-tako listetan abenduaren 31 aitzin eman behar da izena, egin ez dutenentzat.

Bertzalde, gazteen-tzat, 16 urte egiten duten hilabetean, Herriko Etxean aurkeztu behar

dute burasoen familia-ko libretarekin.

Kukusoa haragi salmenta

Heldu den haragi salmenta abenduaren 22an, ostegunarekin,

eginen da; banatzea etxeetan egiten da.

Zortzi kiloko paketak dira eta kiloa 13 euro-tan da. Interesatuak bazarete, deitu Aurélie Bérasategui zenbaki honetara: 06.32.73.07.35, edo bertzela, mail bat

idatziz helbide honetara: ferme.kukusoasfr.fr.

Elkarretaratzea

Urtero bezala, abenduaren 31n, Urtats Gaez, presoan aldeko elkarretaratzea egingo izanen da plazan iluntzean. Parte hartzaile bakoitzak kandela ttiki bat beharko du ekarri. Urtats Gaez ere presoak gogoan ditugu!

Kirol emaitzak

Azaroaren 26an Sarako errugbilariek lagunarteko matxa bat jokatu zuten Ziburuko ekiparen kontra, eta 17-00 irabazi zuten. Sasoin hau ongi hasi dute basurdeek.

Eskubaloiko senior taldea Bokalen aritu zen egun berean, eta hauek ere matxa irabazi zuten, 13-11.



SENPERE

GIZARTEA → 1977KO BILKUREN BERRI EMANEZ

'Xibertako aktak' liburua plazaratu du Anai Artea elkarteak

1977ko akatsak ez errepikatzea nahi luke Monzonen taldeak

Franck DOLOSOR

Aitzineko TTIPI TTA-PAk liburu gomendioen sailean zioen bezala, Anai Artea elkarteak *Xibertako aktak* liburua plazaratu du berriki Angelun, Xiberta hotelean. Liburu hortan biltzen dira 1977an Telesforo Monzonek deitu zituen euskal abertzale guztien biltzar klandestinoen agiriak. Dokumentu horiek Mirentxu Purroy nafarraren esku ziren orain arte, kazetari hunek ere parte hartu baitzuen Monzonek prestatu zituen bilkuretan. Agiriak Anai Artea elkarteari eman dizkio Purroyk eta orain batasun hunek argitaratu ditu de-

nen esku izan daitezen. Gogoetak egiteko balio duela liburuak uste du-te Anai Artekoek, horien artean Mixel Mendiburu gure herritarrak. Senpertarra eskuinean ageria da ondoan dituelarik Mirentxu Purroy eta Battitta Larzabal.

Urtats gaua Ibarrunen

Ibarrungo besta kometeak antolaturik, urtats gau alaitua izanen da aurtien ere Inharrea baserrin. Afaria eta musika izanen dira DJ Mathewwrekin, 50 eurotan. Txartelak erosi behar dira Eskola tabernan abenduaren 9 eta 10ean arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

Sukaldaritza ikastaroa

Eguberriak hurbiltzen ari direla eta, Auberge Basque jatetxe ospetsuko nagusiak, Cédric Béchadek, sukaldaritza ikastaldiak eskaintzen



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Liburuaren aurkezpenean, Battitta Larzabal, Mirentxu Purroy eta Mixel Mendiburu.



ARGAZKIA: HERRIA SATEKARIA

Mende erdia elgarrekin

Berriki Frantxa eta Alfred Barnetche herritarrek Urrezko Ezteiak ospatu dituzte duela 50 urte ezkondu baitziren. Haurrak zirelarik San Josep eskolan ezagutu zuten elgar eta gero ostalaritza ikasi eta beren negozioa sortu zuten. Zonbait urtez Baionako Maignon ostalua atxiki dute Lapurdiko hiriburuko sartzean berean. Urte horietan lanean aritu ziren azkarki orenak kondatu gabe eta adixkide frango eginez. Badira 15 bat urte erretiroa hartua dutela baina halere etxerat etortzen zaizkiote beti Baionan ezagutu zituzten bezeroak, orain lagunak bilakatu direnak. Ez da harritzekoa lagun aintz izatea biziki jendakinak direlako Frantxa eta Alfred! Goresmenak eta bizi luze airosa, beti elgarrekin...

ditu larunbat goiz guziz. Otruntz osoa apailatzen

ikasiko du Helbarrungo ostaturat joanen denak.

Ikastaldiak 120 euro baliotu.

Gierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Baserriak - Txiak: 948 662 043
GORDOZ - MUGAIRE

carneha
guztiak sartzen
orain sartzen 2000 baki
1000 baki
www.carneha.net

EDARIK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

Itxiki Alasquet margoak
Fatuak (1. Berraketa) Fiduak
Fiduak defektuak eta indutzeak
Defektuak erabakiak, defektuak
Laketa eta berraketa defektuak
Fiduak eta berraketa defektuak
Fiduak eta berraketa defektuak
pinturazko defektuak
Itur-ttapi etxea
Landibar Auzoa
31711
URDAZUBI
T. 659 862 417

EZKONTZAK

Vardkes Stepanyan eta Marina Afrikyan, Armeniakoak, azaroaren 19an Etxalarren.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Leiane Altzuri Mindegia, Aurtizkoa, azaroaren 22an.

Aner Maiza Zabaleta, Etxarri-Aranazkoa, azaroaren 15ean.

Jon Ugalde Villanueva, Berakoa, azaroaren 16an.

Oihan Oiartzabal Larralde, Lesakakoa, azaroaren 15ean.

Irati Sansiñena Aragon, Urdazubikoa, azaroaren 17an.

Sara Caballero, Aresokoa, azaroaren 19an.

Eneko Agerre, Sarakoa, urriaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Miguel Telletxea Arangoa, Legasakoa, azaroaren 22an, 92 urte.

Patxi Txoperena Urrutia, Igantzikoa, azaroaren 17an, 93 urte.

Jose Santesteban Santesteban, Zubietakoa, azaroaren 19an, 82 urte.

Juan Arriada Arratxea, Elizondokoa, azaroaren 26an, 78 urte.

Anastasio Goñi Tapia, Lesakakoa, azaroaren 27an, 87 urte.

Gabino Berra Arozena, Lesakan, azaroaren 23an, 89 urte.

Madeleine Le Fur, Sarakoa, azaroaren 14an, 89 urte.

Michel Guilsou, Sarakoa, azaroaren 14an, 92 urte.

Antonio Apezetxea Zubiri, Goizueta-koa, azaroaren 30ean, 87 urte.

Juanita Ariztegi Sanzberro, Etxalar-koa, abenduaren 1ean, 89 urte.



Josetxo GRAGIRENA eta Rosa Maria JUANENA

2009/12/11 - 2009/12/16

II. URTEURRENA

Joan da uda, heldu da negua
gure artetik joan zineten abenduan
eguzki, euri edo elurra
beti egoten zineten umorean
adin kontuan ibiltzen zineten
elkartzen zineten bakoitzean,
zuen irri eta haserrearen hutsa
nabaritzen da mahai inguruan,
hala ere egunero zaudete
famili guziaren bihotzean.

ZUEN FAMILIA



Maria Rosario TELLETXEBA BABAZE

Oizen, 2011ko urriaren 30ean

Amatxi maitea, orain dela denbora gutxi
zure bihotza itzali da eta zurekin
gure bihotzaren zati bat joan da. Nola atzendu
zure irrifarra, zure ahotsa, zure alaitasuna, lagundu
gaituzun guztia... Nola bete utzi diguzun hutsunea?
Ezinezkoa da. Ez zaitugu inoiz atzenduko eta
beti gurekin egonen zara, gure bihotzetan.
Horregatik amatxi maitea, adiorik ez,
gero arte baizik. Beti maitatuko zaitugu!
Mila esker etxeko eta senideen partetik, gurekin
egon zareten guztioi.

ZURE FAMILIA



Antonio APEZETXEA ZUBIRI

Goizuetan, 2011ko azaroaren 30ean

(Ramon eta Pello lankideen anaia)

Familiaren eta
bereziki gure lankideen
saminarekin bat egiten dugu.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

PILOTA → ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

46 bikote gaztetxok parte hartu dute Bortzirietako XI. pilota txapelketan

Bederatzi kategoriatan aritu dira pilotariak lehia

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Bukatu da Bortzirietako eskuz binakako hamaikagarren pilota txapelketa. Guztira 46 bikote aritu dira bederatzi kategoriatan banatuta eta horietako batzuk izan zuten azaroaren 19an Lesakan jokatu ziren finaletan aritze-ko aukera.

FINALAK

Aurrebenjaminen mailan, Berako Gure Txokoako Iker Osua eta Jon Pagolak 18-7 irabazi zieten Gure Txokoako Unai Lluicia eta Andoni Telletxeari.

Benjaminen B mailan, Lesakako Arkupeko Aritz Otxoteko eta Asier Larralde, 18-3 nagusitu ziren Etxalarako Altxatoko Aiert Irigoien eta Unai Arburuaren kontra.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Txapelketan parte hartu duten pilotari gehienek elkarrekin atera zuten argazkia.

Benjaminen A mailan, Baztango Txarutako Mikel Ariztia eta Beñat Etxebere 18-14 irabazi zieten Gure Txokoako Josetxo Sesé eta Asier Telletxeari.

Alebinen B kategorian, Gure Txokoako Xan Ongareti urruñarrak eta Arkupeko Jon Leiza 18-8ko emaitzarekin nagusitu ziren Gure Txokoako Oier Larretxea eta Xiker Lizardiren kontra.

Alebinen A mailan, Igantziko Biltokiko Enaitz Telletxea eta Ar-

kupeko Aimar Otxotekok 18-7 irabazi zieten Gure Txokoako Mikel Eltzaurdia eta Yago Canterori.

Infantilen B mailan, Arkupeko Jonan Fagoaga eta Beñat Ordokik 18-8 irabazi zieten Oiarpeko Egoitz Etxabe eta Oihan Lopezi.

Infantilen A mailan, Txarutako Iker Espelosin sunbildarrak eta Enaitz Anso oiztarrak 18-11ko emaitzarekin irabazi zuten, Biltokiko Oihan Canabal igantzia-

rraren eta Bingen Anduaga Lizarrakoaren aurka.

Kadeteen B mailan, Gure Txokoako Andoni Lazkanotegi eta Ibai Rossek 18-14ko markagailuarekin irabazi zieten Ronan Mendy eta Martin Garbisu taldekideei.

Kadeteen A mailan, Gure Txokoako Ander Errandonea eta Iñigo Martinez nagusitu ziren, 18-15 irabazi baitzieten Arkupeko Jon Olaizola eta Xabi Azpiroz pilotari.

Behin finalak jokatu ondotik, orogarriak eman zitzaizkien parte-hartzaile guztiei eta kopak eta txapelak finalistei eta txapeldunei. Sari banaketan, Bortziariak pilota elkarteko, Arkupe pilotazale elkarterko eta Marisol Taberna Berako alkatea eta Jose Emilio del Rio Lesakako udal zinegotziarekin batera, pilota txapelketa honetan lagundu duen Arcelor Mittal lantegiko ordezkariak izan ziren.

SUKALDEKO OLIOARENTZAT EDUKIONTZI

Galkano bilera pertsona bakoitzari eta heriotzarako, erabilgarriak sukaldeko olio biltzeko edukiontzia berrak, jantzi ditugu kalean.

Kokapena: Elizondo, Salvador eta Aldudes kaleetan, Iruñea; Berueta-Zaga errepidean, Arizkun; Herriko plazan, Oñate; Merkatuko plazan eta Aparan industrialdean, Iruñea; Ramon Larrosa plazan, Nafarroa; Frontoiari-irribidean, Iruñea; Agente auzoan, Iruñea; Auzoan eta Eztegarra kalean (irribidea), Iruñea; Etxeak kalean (Alproa) eta Arretxoa kalea, Iruñea; Aparkaleku-bus geltokian, Arizkun; Herri sarrerako aparkalekuan, Elizondo; Herri sarrerako aparkalekuan.

BERRIA!

BAZTAN, BALEARRAK eta BORTZIRIAN

Sukaldeko olio biltzeko edukiontzia berrak, ez kotoak, ezin baliatzen direnak.

Olio ondo biltzeko edukiontzia utzi behar da edukiontzia barruan.

Olio biltzeko edukiontzia berrak, ez kotoak, ezin baliatzen direnak.

902 366 251

www.ecogras.es

Informazioa: 902 366 251

Informazioa: 902 366 251

Informazioa: 902 366 251

AIZKORA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Segundo bakarragatik Larretxearentzat izan da Nafarroako txapela

Jon Rekondo leitzarra hirugarren izan da

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Azken segunduan lortu zuen Donato Larretxeak Nafarroako aizkolari txapelketa nagusia azaroaren 18an Donezteben.

Lezaungo Juan Jose Lopezekin lehia es-tua izan zuen finalean. Azkenean, lau kanaerdi-ko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko mozteko la-na 31 minutu eta 7 se-gundotan egin zuen Do-natok eta 31 minutu eta



ARGAZKIA: ZALDUA

Aizkolariak sariak banatu ondotik. Tartean, Larretxea –txapela soinean–, Rekondo eta Erasun.

8 segundotan Lopezek. Podiumeko hirugarren kokxa Jon Rekondo

leitzarrarentzat izan zen (34:43), Olagueko Antonio Senosiain izan zen

laugarren (36:34) eta Aurtizko Ander Erasun bosgarren (37:43).

APUSTURAKO PREST

Nafarroako Lehen Mailako txapela jantzita, apusturako deia egin zuen Donato Larretxeak. Edozein aizkolari jokatu liokeela adierazi zuen, 30 kanaerdi-kotara. Martxoan jokatuko beharko litzateke desafioa, eta enborrak Larretxeak berak eramane-lituzke. Dirutan, ber-riz, 12.000 eurotik goi-ti jokatuko beharko litzu-ke aizkolari bakoitzak. Abenduaren 3rako egi-na zuen aranztarak hit-zordua Tolosan, baina lerro hauek idazterako-an ez genuen apustuak erantzunik izan ote du-en ala ez jakiterik izan.

HERRI KIROLAK → EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Joakin Aioroak irabazi du lehen aldiz Euskal Herriko ingude altxatze txapelketa

Josetxo Urrutia leitzarra bigarren sailkatu da

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Bigarren urtez jokat-u da aurtien Euskal Her-riko Ingude-jasotze Txapelketa, eta espero bezala, Joakin Aioroa iturendarra nagusitu zen

azaroaren 18an Donezteben jokatutako le-hian. Lehendabizikoz eskuratu zuen txapela Aioroak, 91 jasoaldi eginda; iaz baino bi ja-soaldi guttiago. Jose-txo Urrutia leitzarra bi-garren izan zen, 4 jasoal-di guttiago eginda.

Joakin Aioroak, be-raz, urte oparoa izan du 2011koa, Zazpi Herrial-deen Arteko Txapelke-



ARGAZKIA: ZALDUA

Ingude altxatzaileak sariak banatu ondotik. Horien artean Aioroa –txapelkarekin– eta Urrutia.

tan ere lehen postuan sailkatu baitzen, 94 ja-soaldi eginda, eta Na-farroako Txapelketa ere, 91 jasoaldi eginda, be-rak irabazi zuen. Urru-tiari dagokionez, biga-rren izan da, bai Euskal Herriko Txapelketan eta bai Nafarroakoan ere (85 jasoaldi)

Bortz kirolari aritu zi-ren lehian: Josetxo Urru-

tia (Leitza), Joakin Aio-roa (Ituren, Nafarroa), Igotz Ardeo (Getxo, Bizkaia), Unai Ardeo (Getxo, Bizkaia) eta Pe-ru Hiribarnegarai (Ge-

txo, Bizkaia).

Lazaro Bujan leitza-rra ere aritzeko azen tx-a-pelketan, baina bezpe-ran ohararazi zuen ezin izanen zuela ari.

SAILKAPENA	JASOALDIK
Joakin Aioroa (Ituren)	91
Josetxo Urrutia (Leitza)	87
Unai Ardeo (Getxo, Bizkaia)	83
Igotz Ardeo (Getxo, Bizkaia)	81
Peru Hiribarnegarai (Getxo, Bizkaia)	74

abenduak 16-urtarrilak 12

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo **948 63 54 58****Ospakizunak**

DONEZTEBE | 2011.12.17

Carlos Pauner Errekaren Mendiaren Egunean

Urtez urte goi mailako mendiza-lea gonbidatzen du Errekak eta aurtan ez da guttiago izanen, 12 zortzi milako igoak dituen Carlos Pauner izanen baita.

Topaketak

IRURITA | 2011.12.23

Baztango haur eta gazte kantarien topaketa

Elizondoko Abesbatzak antolatuta, Baztango haur eta gazte kantarien topaketa egingen da Iuritan, Baztanen abesten aritzen diren gaztetxoak elkartzeko.

Bertsokak

GOIZUETA | 2011.12.17

Nafarroako bertsolari berriak XI. Xalto Sariketan

Bertsolari berriei zuzendutako sariketaren hamaikagarren edizioa egingen da larunbatean Ganbaran. Goizez kanporaketak eta arratsaldean finala.

Herriko Ostaturan. Ondotik DJ Pistols-ek 70. eta 80. hamarkadako musika jarriko du.

BERA

Ainhoako Atsulai Abesbatza

Abenduaren 17an Ainhoako Atsulai Abesbatzak kontzertua eskainiko du 19:00etan Kultur Etxean, Berako Abesbatzak antolatuta.

Musika entzunaldia

Abenduaren 20an piano entzunaldia antolatu du Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak 17:30ean.

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 21ean Eguberrietako kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasleek 17:30ean Kultur Etxean.

ELIZONDO

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 17an Eguberrietako kontzertua eskainiko du Musika Eskolak 17:30ean parrokian.

Oihan Vega DJa Lur dantzalekuan

Abenduaren 17an Oihan Vega DJ + Gogo's Lur dantzalekuan, 01:00etatik aitzinera. 9 euro eta kontsumizio bat doan 03:30 arte.

LESAKA

Eguberrietako kontzertuak

Abenduaren 21ean Eguberrietako kontzertua eskainiko du Musika Eskolak 18:00etan Udaletxeko pleno aretoan.

Abenduaren 23an Santa Zezilia Batzordeak antolatuta, 19:00etan musika taldeen kalejira eta ondolik emanaldia plazan.

Erakusketak

ELIZONDO

Xabier Celestinoren margolanak

Azaroaren 23tik urtarrilaren 9ra Xabier Celestinoren margolanen erakusketa Arizkunenean, astelehenetik ortziralerara.

BERTIZ

Diana Iniestaren margolanak

Azaroaren 4tik abenduaren 22ra Diana Iniestaren *Presentimientos* margo erakusketa Jaurerriko Natur Parkean. 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 17:30era.

LEITZA

Guatemalako argazkiak Peritzan

Mikel Zabaletak Guatemalako indigenei ateratako argazki erakusketa zabalik da Peritzan.

Ospakizunak

DONEZTEBE

Mendiaren Eguna

Abenduaren 17an antolatu du Erreka elkar-teak. Goizean Leurtzako zirkura mendi ateraldia, eguerdian po-

teoa eta bazkaria Kasino Elkartean. 19:30ean hitzaldia eskainiko du Carlos Pauner mendizaleak zineman.

Bertsokak

GOIZUETA

Xalto Saria

Abenduaren 17an jokatu da bertsolari berriei zuzendutako sariketaren hamaikagarren edizioa. 11:00etan bi kanporaketa eta 18:00etan sei bertsolarik finala jokatuko dute.

Lehiaketak

LESAKA

Olentzero eta jaiotza lehiaketa

Abenduaren 24an eguerdian kategoriaz ezberdinetako Olentzero eta jaiotza lehiaketak egingen dira plazan.

Ikastaroak

BERA

Yoga ikastaroa

Astelehenetik ortziralerara 09:00etatik 10:30era eta astelehen eta asteazkenetan 17:30etik

19:00etara ere. Izen ematea: 627 395245.

ETXALAR

Blog-ak egiten ikasteko

Abenduaren 15, 16, 10 eta 20an blogak egiten ikasteko ikastaroa Kultur Etxean.

Kontzertuak

ETXALAR

Etxe kantaria Herriko Etxean

Abenduaren 17an Etxe kantariak *Haize berri bat* diska aurkeztuko du 23:00etan

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Eguberrietako ospakizunak

Urtero bezala, Olentzero jautsiko da mendietatik herrietara eta herri herri ongietorria egingen diete neska-mutikoei, arratsean opari ederrak jasotzeko itzaropenez. Kalejirak izanen dira han eta hemen eta Lesakan (argazkian) Olentzero eta jaiotza lehiaketa ere. Urtezahar, Urteberri eta Errege egunak etorriko dira ondolik. Urteberri on!



Abesbatza Andra Mari Zahar Etxean

Abenduaren 28an emanaldia eskainiko du Lesakako Abesbatzak Andra Mari Zahar Etxean 17:00etan.

ORONÓZ-MUGAIRI

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 26an Eguberrietako kontzertua eskainiko du Elizondoko Recreo Musika Bandak 19:00etan Oronozko parrokian.

GOIZUETA

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 17an Eguberrietako kontzertua eskainiko du Umore Ona Abesbatzak ilunabarrean elizan.

Hitzaldia

ARANTZA

1512-2012 hizpide

Abenduaren 30ean Amaur 1512-2012 Nafarroa Bizirik hitzaldia Ekaitza Elkartean, 19:00etan.

ARIZKUN

Idazleekin solasean

Abenduaren 15ean Eider Rodriguez idazlea *Katu jendea* liburuen inguruan 18:00etatik aitzinera Herriko Ostatuan.

BERA

Barbie alaba eta Rambo semea nahi al dituzu?

Abenduaren 19an Marian Moreno, hezikidetza ardurakide zana adituak *Barbie alaba eta Rambo semea nahi al dituzu?* solasaldia eskainiko du 18:00etatik aitzinera Kultur Etxean. Ludoteka zerbitzua eskainiko da (948 635036).

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Gau lana: Kontrabandoa Bidasoa aldean

ROSA ARBURUA

Alberdania, 2011

Euskal Herria lurralde ttikia izanik, geografikoki eta ekonomikoki guztiz estrategikoa izan da. Horregatik, sarritan gertatu da banaturik mugak ezarrita. 1659an sinatu zen Pirinioetako Bakea eta orduan ezarri zen Espainia eta Frantzia arteko muga. Bertzalde, dirua lortzeko, agintariei beti jarri izan dizkiote zergak merkataritzari. Erraterako, XIII. mendean Nafarroatik ateratzen ziren produktuak Tolosa-Donostia-Baiona edo Belate-Bidasoa-Hondarribia bideari ekiten zioten. Bide horietan aduanak zeuden, eta zergak ordaindu behar ziren merkataritza legala izango bazen. Mendez mende gainditu izan dira, ordea, muga horiek aduanak saiestuz Euskal Herrian. Euskaldunentzat kontrabandoa errekurtso ekonomikoa bihurtu zen. Kontrabandaren fenomeno zabaldua egon da Euskal Herrian eta fenomeno horren inguruan hainbat egoera sortu dira. Rosa Arburuak bi zati nagusi osatu ditu. Lehenean, alderdi historikoa ikertu du; bigarrean, protagonisten lekukotasunak bildu ditu.

Musika



Oroimenak erretzen 18 urte

LEIHOTIKA

Gor diskak, 2011

Leihotika taldearen disko bilduma honek bi atal ditu; alde batetik orain arte argitaratu dituen bere lau diskoetako kantu sorta bat aurki daiteke; abesti hauek bere jarraitzaileek hautatu dituzte, haien kanta kuttunak bozkatzuz posta elektronikoa bidez. Aldi berean, nolabait hain ezagunak ez diren bertze bertsio batzuk ezagutarazteko, 1996ko maketako kantu jakin batzuk ere erantsi dituzte. Bertze alde batetik, hainbat kolektibok, irratik... argitaratu zituzten disko bildumetako kantak eta baita bitxikeri batzuk ere batu egin dituzte *Oroimenak erretzen 18 urte* bilduma honetan. Leihotika taldeak publiko ttikia du oraindik orain, alde batetik beraiek ez dutelako sekula arrakasta hori lortu nahi izan eta bertzetik jende gehienak ez dutelako aintzat hartu. Halere, beren zale amorratuak esker darraite, baita 18 urte hauetan izan duten etengabeko jardunari esker. Jardun hori ezagutzeko aukera ederra eskaintzen du diskak.

Internet



Ondasunak berrerabili eta zaborrak murrizteko

Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateak www.yonolotiro.es webgunea abiatu dute, erabilkitako kontsumo ondasunen berrerabilpena eta truke bultzatzeko eta modu horretan, hondakin kopurua murrizteko. Webgunea hiru arlotan egituratzen da, erakunde publikoei, enpresei eta herritarrei zuzendua. Doaneko iragarkiak sartzen ahal dira, alokairua, oparia, salmenta, bilaketa edo trukea eskainiz. Modu berean, denbora bankua, konpartitza edo mailegatzea ere eskaintzen dira. Erabiltzaileak berak aukera dezake bere iragarkia hiru arlo horietan agertu edo bakarrik berari dagokionean. Beraz, kontsumo arduratsua sustatzeko, hondakin gutxiago sortzeko eta hondakinak prebenitzeko, tresnak berrerabiltzeko, partekatze edo herriaren artean truka daitezen sustatzeko edo gauzak berrerabiltzeko aukera praktikoa bat eskaintzeko bisitatu beharreko webgunea.

Topaketak

IRURITA

Baztango haur eta gazte kantariak

Abenduaren 23an Baztango haur eta gazte kantarien topaketa antolatuko du Elizondoko Abesbatzak Iruritan 19:00etatik aitzinera.

Emanaldiak

ERRATZU

Islandia bizikletaz

Abenduaren 18an *Islandia bizikletaz* diapositiba emanaldia eskainiko dute Totu Iturzaeta eta Idoia Gilleneak Erratzuko Elkartean 18:00etan hasita.

Zinema

ETXALAR

Eguberrietako zinema

Abenduaren 27an *Cher ami... ta ni* filma Kultur Etxean (16:30) Gero opariak.

ARANTZA

Eguberrietako zinema

Abenduaren 28an eta urtarilaren 4an haurrentzat zinema (16:30).

Mendi ateraldiak

BERA

Larun Tiki mendi taldearen irteera

Abenduaren 18an la-moteneatik Bianditzera. Kotxez Arritxulora (09:00).

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Abenduaren 18n Lekaroz-Laraldea-Bagordi. Eskiz-Beltzuri-Legate-Lekaroz irteera (08:00).

Abenduaren 24ean Arizkun-Otxasko-Zipunt-Iñarbegi-Maza-Auza. Iñarbilgo depositoa-Gorostapolo-Arizkun irteera (08:00).

ETXEBIZITZAK

salgai

ETXALAR. Zaharberri-
tzeko den borda salgai.
Lur eremuarekin. ☎661
121540.

DONEZTEBE. Ogiberri
okindegiaren gainean, pi-
sua salgai. 2 logela, 2 bai-
nugela, egongela, suka-
dea eta trastelekua.
36m2ko terraza bikaina,
oso eguzkitsua. Dena he-
goaldera. ☎656 770373.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA,
ULTZAMA eta
IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak,
partzelak, baserriak, bor-
dak, lokal komertzialak eta
nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA
alderdietan**

- Eskaintzagatik baserriak,
bordak eta lurak behar
ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000
metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Apartamentua sal-
gai. ☎630 441315.

ARESO. Sastizar base-
rri-landetxea salgai,
25.000 m²ko lur eremu-
arekin. ☎649 707584.



LESAKA. Azkaine karri-
kan 90 m2ko pisua eta 24
m2ko lokala salgai. Su-
kaldea mobleztatuarekin.
☎667 796439.

IRUN. Hiri erdian pisua
salgai. 3 logela, egongela
haundi bat, sukaldea,
komuna eta terraza. Zuk
paratuko duzu prezioa.
☎662 382700.

ELIZONDO. 84,5 m² era-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

bilgarri dituen pisua sal-
gai. Garajeko plaza eta
trastelekuarekin. Sukal-
dea mobleztatua. 3 loge-
la, 2 bainugela eta egon-
gela. 170.000 euro. ☎619
875749.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

LESAKA. Logela erren-
tan emateko, internete-
rako aukerarekin. 160 eu-
ro. Pertsona arduratsua.
☎658 503895.

DONEZTEBE. 98 m²ko
pisua errentan emateko.
Dena mobleztatua. Su-
kaldea, egongela, 2 bai-
nugela eta 3 logela. ☎660
036182.

ETXALAR. 2 logela erren-
tan emateko. ☎653
706614.

IRUÑEA. Aralar kalean,
2. zabalgunean, 4 loge-
lako pisua errentan ema-
teko. ☎618 963055.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

ARRAIOZ. 45 m2ko ba-
jera salgai. Prezio ezin ho-
bean. ☎629 317086.

LANA

eskariak

Gizon gazte bat anima-
liak zaintzen, garbitzen
edota mantenimendu la-
netan ariko litzateke.
☎630 979584.

**LEITZALDEA eta INGU-
RUA.** Neska euskalduna
umeak edo adinekoak
zaintzen eta garbiketan
ere ariko litzateke. ☎695
716894.

MALERREKA. Hemen-
go emakumeak egune-
an 3-4 orduz garbiketak
egiten lan eginen luke:
etxeetan, ostatuetan...
☎661 006327.

**BAZTAN ETA INGU-
RUA.** Neska euskalduna

umeak zaintzeko edo kla-
separtikularrak emateko
prest dago. ☎678
309025.

LANA

eskaintzak

DANTXARINEA. Aste-
buruetan lan egiteko
zerbitzaria behar da.
☎948 599013.

Pertsona euskalduna eta
esperientziaduna behar
da **adineko gizona**
zaintzeko interna mo-
duan. Interesa dutenek
bakarrik deitzea esker-
tuko da. ☎948 580853.

Pertsona bat behar da
arratsaldez **bi haur zain-
tzeko** Beran, 3 orduz.
☎697 246131.

MOTORRA

salerosketak

Opel Combo salgai,
1996koa. Ibilgailu mis-

toa. 100.000 kilometro.
600 euro. ☎636 497345.

Citroen C3 1.400 injek-
zioa (gasolina) salgai. 5
atekoa. 45.000 kilome-
tro. Errebisio liburuare-
kin eta jabe bakarra izan
du. 3.400 euro. ☎670
410556.



Toyota runner 3.0 sal-
gai. Gutxi erabilia.
174.000 kilometro. Sus-
pentsio eta kubiartak es-
treinatzeak. Hagitz
egoera onean. Leiho tin-
datuak. ☎653 709496.



Opel Astra Cosmos sal-
gai. 2005ekoa, 1.9 CDTI,
120 zaldikoa, 5 ate, bel-
tza, 90.000 kilometro.
☎679 270432 (Deitu
eguerditan, 13:00etatik
17:00etara).

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(azaroaren 8tik 25era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 38,00 € (+1,00)

Zerri gizena
1,185 € kilo. (-0,005)

Zerramak:
0,450€ Kg/bizirik. (+0,040)

BEHIKIA

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,43 (+0,05)

1.koa 4,13 (+0,05)

2.koa 3,89 (+0,05)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,49 (+0,05)

1.koa 4,29 (+0,05)

2.koa 4,11 (+0,05)

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 100,00 (=)

idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 120,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,91/3,01


Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,00/8,70

8-10 kilokoak: 6,80/7,00

Volkswagen Golf 140 zal-di TDI autoa salgai. 2003. urtekoa, 150.000 kilometro. 5 ate, beltza eta egoe-
ra hagitz onean. ☎607 924379.



Honda sportrax EX 400 motorra salgai. 2004. urtekoa. Oso egoera one-
an. 2.400 euro. Probatu konpromisorik gabe. ☎686 279252 edo 948 451530.



Volkswagen California Coach furgoneta salgai. 2.5 TDI. 1999koa. 250 ki-
lometro. Berogailua, ka-
rrorako bola eta abar. 17.800 euro. ☎ 629 317086.

MOTORRAK tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK



ANIMALIAK salgai

10-15 ardi mutur gorri,
31 eskubide (deretxo)
eta 2 urteko setterra sal-
gai. ☎650 176597.

Udaberrian 3 urte bete-
ko dituen ahari mutur
grisa salgai, adarrak ga-
bea. ☎948 450353.

8 hilabeteko bi bildots
eta ahari bat salgai.
Bergintxon arrazakoak.
☎627 735113.

3 zerri salgai, mendiko-
ak. 120-140 kilo arteko-
ak. ☎687 738239 (Juana
Mari).

DONEZTEBE. Arrazako
zakurkumea salgai: la-
brador arra eta beltza.
1,5 hilabetekoa. ☎669 382438.


DENETARIK salerosketak

Hohner markako pianoa
salgai, prezio onean.
☎654 156710.

Estreinu gabe dauden
3 logela eta egongela
bat salgai. Oso prezio
onean. ☎669 185858.




**Mahaia, aulkia eta for-
jazko lanpara** salgai.
☎617 461649.



ORONÓZ. Egurra xehe-
tua salgai. Pagoa eta ha-
ritzta. Etxera eramaten da.
☎676 242520.


SUNBILLA. Su egurra
salgai, lotean edo xehe-
tua. ☎659 867287 / 699 461394.

Lanpara salgai. ☎660 870536.



Akazia piketeak salgai.
☎666 788143.

Mahaia salgai. ☎660 870536.



Hozkailu kamara salgai.
Neurriak: 3,16 x 3,16 x
2,45. Panelak. Berria.
9.000 euro negoziaga-
rriak. ☎615 004047

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzenko

DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari

proiektu berriak
15.996

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

ferreteria
Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK




Santiago 31 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 234 • Faxe: 948 581 210

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



Elizondoko **LEIRE TELLETXEA** GALARREGIK azaroaren 24an 3 urte bete ditu. Zorionak Xabier eta Enekoren partetik.



Elizondoko **EIDER TELLETXEA** GALARREGIK abenduaren 14an 8 urte beteko ditu. Zorionak Xabier eta Enekoren partetik.



IRATI APEZTEXEA ANSA goizuetarak 2 urte bete ditu abenduaren 3an. Muxu handi bat guraso eta anaien partetik. Zorionak potxolita!



LUMA AMILIBIAK, Aiherrako neska politak, 6 urte bete ditu abenduaren 2an. Urtebete on eta zorionak Baionako amaxiren partetik. Mila musu!



Auniz urtez **JO-XEMIEL** urtebetez eguneko partez. Besarkada eta muxuak familiaren partetik. Animo eta eutsil Euskal preso eta iheslari politikoak etxera!



NAHIA ENDARA beratarak azaroaren 28an 2 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik, eta bereziki aita eta amaren partetik.



Abenduaren 1ean **NAHIAK** urtea bete du eta 19an bere aita **AXIERREK** batzuk gehiago beteko ditu. Auniz urtez eta muxu haundi bana biei. Ongi pasa!




AIMAR AGINAGALDE etxalartarak azaroaren 24an 6 urte bete ditu. Zorionak aita, ama, Oier, Enaitz eta amaxiren partetik.



Auniz urtez gure txirindulariari!!! Eman gogor pedalari eta honaterakoan ekarri dolmenak, bale? Muxu bat. Zure lankideak.



ANTTON eta **ENEKO** osaba-lobek abenduaren 23an beteko dituzte urteak. Muxu potolo bana Arantzako familia guztiaren partetik eta ondo pasa zuen eguna.



Zarauzkoa den oiztar **ENERITZ ZAPIAIN ARIZTEGIRI** zorionak abenduaren 9an 2 urte bete dituelako. Bi muxu potolo etxeko saltserari, aita, ama eta familia guztiaren partetik.



Lesakako **BENAT ETXEPARE** Aiestaranek 3 urte bete ditu abenduaren 8an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Legasako amaxi **TERESA, IRAITZ** eta **GARAI** hirukoteak abenduaren 13, 20 eta 18an beteko dituzte urteak. Auniz urtez familia guztiaren partetik eta prestatu berendu goxua!



Zorionak osaba eta izeba! **MIREN GOÑI** eta **ARKAITZ MINDEGI** abenduaren 13 eta 15ean urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik eta bereziki iloba Leianeren partetik. Berendu goxo-goxoa prestatu.



Donamariako **IÑAKI TELLETXEAK** urteak beteko ditu abenduaren 29an. Muxu haundi bat, bereziki Nahia eta Ekainen partetik. Zorionak pantxorrio!!!



Auniz urtez mendizale! Ongi pasa eta berendu goxoaren zain gelditzen gara. Muxu haundi bat. Kaxkarrak.



Auniz urtez **ARKAITZ!** Ongi pasa eta ardiek tarte bat uzten badizute, ea etxekoak bazkari batera gonbidatzen gaituzun.



IRAIA SALABERRIA NARBARTe aranoar 3 urte beteko ditu abenduaren 30ean. Zorionak! Gure Iraiak beteko ditu / 3 urte berrialaxen / ohartu gabe sorgin biki hau / asko ari da handitzen / Goizuta dijua eskola / kontent ta pozik nola! / lagun tartia nahi dola / segi ebxia eta baztarrak / zure irriparez betetzen.



bai euskarari zozketa BIZI EUSKARA!

SARIDUNAK

2011ko abenduaren 1ean, 12:00etan, Arantzako etxerako Etxean eta udal idazkararen aburuz, saritu batzuen 2 zerbakiak zozkatatu dira.

Saridunak matrikularak dira berriz: 1948-1975 urtekoak. 1976-1977 urtekoak. 1978-1979 urtekoak. 1980-1981 urtekoak. 1982-1983 urtekoak. 1984-1985 urtekoak. 1986-1987 urtekoak. 1988-1989 urtekoak. 1990-1991 urtekoak. 1992-1993 urtekoak. 1994-1995 urtekoak. 1996-1997 urtekoak. 1998-1999 urtekoak. 2000-2001 urtekoak. 2002-2003 urtekoak. 2004-2005 urtekoak. 2006-2007 urtekoak. 2008-2009 urtekoak. 2010-2011 urtekoak.

1.- Amaleun Arraindegian (Bera) 60 euroko erosketa
02.088 zenbakia, Tania Gonzalez Aiestaran Farmaziak (Igantzil) banatua

2.- Burlada Jatetxean (Arantz) bi lagunendako menua
12.000 zenbakia, Irats Trikitixa Eskolak (Bera) banatua



IREKI

LEIHOAK

- Aluminio R.P.T / PVC
- Itxidurak
- Kontraleihoak
- Barandak
- Berandak
- Pertsianak
- Toldoak

T-F: 948 630 962
M: 626 313 162

www.irekileihoak.com

Pol. Ind. Zalain, 8
BERA

irekileihoak@irekileihoak.com



BIANDITZ

NEKAZARIEN ETXEA

ABENDUAN
IREKIERA BERRIA

PENTSUAK • FORRAJEAK
LANDAREAK • FITOSANITARIOAK
PLASTIKOAK • ABONOAK
BOLOEN PLASTIKOAK
PATATA HAZIAK
BASERRIRAKO TRESNERIA

...
etxerako behar duzun guztia
etxez etxeko zerbitzua

Zalain ind. 5 • BERA | T. 600 977 339 | bianditzpentsuak@gmail.com

ABENDUAK
17

OIHAN VEGA DJ + GOGOS

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

ABENDUAK
24

GABON GAUA

02:00 DOHAINIK

ABENDUAK
25

EGUBERRI EGUNA

01:00 - 02:00 DOHAINIK

02:00etatik aintzinera 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

ABENDUAK
31

URTE ZAHAR GAUA

02:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 04:00ak arte

IREKIA 08:30ak arte

URTARRILAK
5

ERREGEEN GAUA

01:00 - 02:00 DOHAINIK

02:00etatik aintzinera 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

URTARRILAK
7

LUR DJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK

02:00etatik aintzinera 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



garagardategia

Ostiral, barriata eta jaiaguneko bezperetari irekia
TRESNARIK: 03.34501983